ELKAR-EKIN 2022-2026 GIPUZKOAKO II. GIZARTERATZEKO PLANA

ESPARRU ESTRATEGIKOA



Elkar-EKIN Gipuzkoako
II. Gizarteratzeko Plana

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



[00.]
AURKIBIDEA

1. kapitulua. Sarrera eta metodologia 4

1.1 Aurrekariak 4
1.2 Metodologia: partaidetza prozesua Plana prestatzeko 6
1.3 Planaren egitura 7
1.4 Elkar-EKIN II. Gizarteratzeko Planari lotutako erakunde publiko eta pribatuak 8

2. kapitulua. Oinarrizko diagnostikoa: bazterketarekin lotutako behar sozialak, gizarteratzeko Gizarte Zerbitzuen sarearen irismena eta Planaren ebaluazioa 9

2.1 Bazterketarekin lotutako egoera sozioekonomikoen bilakaera 9
2.2 Gizarteratzeko gizarte zerbitzuen sarearen egoera eta bilakaera Gipuzkoan. 25
2.2.1 Lehen eta bigarren mailako arretako Gizarte Zerbitzuen bilakaera 2012tik 2019ra bitarte 26
2.2.2 Arreta plazen eta gastu publikoaren bilakaera gizarte bazterketaren esparruan 29
2.3 Elkar-EKIN Gipuzkoako I. Gizarteratzeko Planaren balorazioa eta II. Gizarteratzeko Planerako proposatutako orientazioak 30
2.3.1 Planaren balorazio orokorra 30
2.3.2 Erronka eta orientazio nagusiak II. Plan bati begira 35
2.3.3 Diagnostikoaren elementu nagusiak 38

3. kapitulua. Gizarteratzeko II. Planaren oinarrizko ezaugarriak: arau esparrua, irizpide orokorrak eta arreta eredua 40

3.1 Arau eta estrategia esparrua 40
3.2 Planaren irizpide orokorrak eta printzipio gidariak 48
3.3 Arreta eredua: pertsonalizazioa, estratifikazioa eta lurralde ikuspegia 51
3.3.1 Zerbitzuen pertsonalizazioa eta pertsonarengan oinarritutako arreta 52
3.3.2. Profilen estratifikazioa eta konplexutasunaren araberako beharrak 56
3.3.3. Lurralde ikuspegia eta arreta emateko tokiko eta eskualdeko sareak sustatzea: zerbitzuen integraziorantz 60

4. kapitulua. Lehentasunak, ardatzak, helburuak eta orientazioak 62

4.1 Erronka nagusiak 62
4.2 Lehentasunezko arreta premiak eta egoerak 63
4.3 Ekintza ardatzak eta helburu estrategikoak 64
4.4 Orientabideak, gomendioak eta jarraibideak 66

5. kapitulua. Jarraipena eta gobernantza 70

5.1 Sarrera 70
5.2 Planaren gobernantzarako tresnak 71
5.3 Planaren jarraipenerako eta ebaluaziorako tresnak 71

[01.]
Sarrera eta metodologia.

[01.1]

Aurrekariak.

2016an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak Elkar-EKIN 2016-2020 Gizarteratzeko Plana onartu zuen. Helburutzat zuen gizarteratze plan bat bideratzea, gizarte erakundeekin, udalekin eta beste erakunde publiko batzuekin elkarlanean. Plan horren sorburuko bokazioa gaur egun gizarte bazterketaren inguruan diren politika sektorialak antolatzea zen, eta estrategia berriak bultzatzea, gizarteratzearen helburuari modu eraginkor eta efizientean heltzeko.

Lau urte horietan, Foru Aldundiak eta gainerako eragile instituzionalek Plana garatu zuten, pandemiak eta horrek ekarritako krisi soziosanitario eta sozioekonomikoak markatutako testuinguru batean, 2020ko martxotik aurrera. Gipuzkoako Elkar-EKIN Gizarteratzeko Planak bide eman zion, gainera, Elkar-EKIN Lanean Estrategiari, espezifikoki garatuta planaren ekintza lerro nagusietako bat, hots, enplegua lortzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboentzako lan aukerak sortzeari zegokiona. Elkar-EKIN Lanean enplegagarritasunerako eta aktibazio inklusiborako estrategia bat da, Foru Aldundiko Gizarte Politikako eta Sustapen Ekonomikoko Departamentuek elkarrekin sustatua, eta foru administrazio osorako proiektu estrategikotzat hartu da, Gipuzkoako eskualde guztietan enplegu politiken garapenean parte hartzen duten eragileekin elkarlanean.

Bestalde, Planak jarraipena ematen dio Gipuzkoako Lurralde Historikoan azken urteetan gizarteratze politiken gainean egiten ari den ebaluazio, hausnarketa eta berregituraketa prozesuari. Hauek izan dira prozesu horren une nagusiak:

- → Gizarteratzean, Emakume Biktimen Arretan eta Gizarte Larrialdietan Esku Hartzeko Eredua prestatzea, 2014an;
- → Gizarte Zerbitzuetako inklusiorako sarearen diagnostikoa egitea, 2015ean;
- → Lurraldeko Gizarte Zerbitzuen ondoz ondoko mapak prestatzea, maila autonomikoan Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa, Gizarte Zerbitzuen Mapa eta Zorroaren Dekretua onartu ondoren;
- → Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko Plana prestatzea, 2016an, eta plana garatzea 2016tik 2020ra bitartean;
- → Elkar EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko Plana ebaluatzea, 2021ean.
- → Elkar-EKIN Gipuzkoako II. Gizarteratzeko Plana prestatzea, 2022an.

Aipatu denez, prozesu horren parte dira, halaber, Elkar EKIN Lanean estrategiaren lanketa eta Etorkizuna Eraikiz proiektuaren baitan egindako hausnarketa guztiak eta, bereziki, ongizate estatuaren etorkizunari buruzko Think Tank-aren baitan egindakoak.

Behin amaituta I. Planaren indarraldia, eta horren ebaluazioa egin ostean, dokumentu honek Elkar-EKIN Gipuzkoako II. Gizarteratzeko Planaren oinarrizko elementuak biltzen ditu, eta helburutzat du azken urteotako helburuei eta ekintzei jarraipena ematea. Hurrengo orrialdeetan azaltzen denez, gizarte bazterketako egoeretan ardaztutako plan bat egin nahi izan da, baina, aldi berean, erakunde arteko plan multidimentsionala ere bada, eta Gipuzkoan gizarte bazterketaren arloan lan egiten duten erakunde publiko guztiak uztartzen ditu. Funtsezko lau printzipiotan oinarritutako plana da –ekintza fokalizatuak; zerbitzu pertsonalizatuak; artatutako profilen eta estalitako beharren estratifikazioa; eta eragile guztien koordinazioa–, eta I. Elkar-EKIN Planaren antzera, inplikatutako eragile guztien lan bateratuan eta koordinatuan jartzen du enfasia.

II. Planaren helburua da inklusioaren alde lan egiten duten erakunde publikoen eta entitateen batasuna eta atxikipena lortzea, eta, lehenengo planarekin alderatuta, zenbait berrikuntza dakartza, egituraketari eta hedapenari dagokienez:

→ Gipuzkoako Foru Aldundiaren lidergoaren inguruan egituratuta dauden Lurraldeko erakunde publiko eta erakunde sozial nahiz pribatu ugari batzea eta atxikitzea.

→ Gizarte integrazioko eta bazterketako prozesuetan funtsezkoak diren eta aurreko Planean zeharka baino lantzen ez ziren eguneroko bizitzako zenbait alderdi planean kontuan hartzea –etxebizitza, osasuna, formakuntza, diru sarreren bermea…-. Elementu horiek Planean sartzearen arrazoia da ebaluazio prozesuan egiaztatuta geratu dela sektorearen arazo nagusiak egiturazkoak direla eta zerikusia dutela Gizarte Zerbitzuen eta gainerako ongizate zerbitzuen arteko koordinazioarekin, horiek baitira enpleguarekin, etxebizitzarekin, hezkuntzarekin, osasunarekin edo diru sarreren bermearekin lotutako politiken arduradunak.

→ Planaren bi mailatan egituratzea:

- Alde batetik, **Esparru estrategiko** bat, zeinak jasotzen dituen planaren oinarrizko ezaugarriak, oinarri duen arreta eredua, plana prestatzeko onartutako irizpideak, oinarrizko helburuak eta planari atxiki zaizkion erakundeek onartzen dituzten gomendio edo orientazioak. Ondoren azaltzen den moduan, esparru estrategiko honek bost urteko indarraldia du, eta berau ezartzen parte hartuko duten erakunde publikoen jarduera bideratu nahi du epe ertain eta luzean.

- Beste alde batetik, **Jarduera plan espezifikoak,** printzipioz bi urterako izango direnak eta planari atxiki zaizkion erakundeek aldi bakoitzean onartuko dituzten konpromisoak eta proiektu eragile zehatzak jasoko dituztenak.

Edonola ere, II. Plan honek, funtsean, aurrekoaren antzeko eskema du, ardatzei eta jarduera eremuei dagokienez, eta Lurraldeko administrazio publikoen eta ekintza sozialeko erakundeen elkarlan partekatuan jartzen du enfasia –are handiagoa-.

[01.2]

Metodologia: partaidetza prozesua Plana prestatzeko.

II. Plan honen lanketak jarraipena ematen dio aurreko planaren ebaluazioarekin hasitako lan prozesuari, eta partaidetza prozesu bat eta Gipuzkoako gizarteratze zerbitzuen sarean parte hartzen duten eragileei egindako kontsulta ditu abiapuntutzat. Partaidetza prozesu hori 2020ko abenduan hasi zen, planaren ebaluazioa martxan jartzean, eta 2021. urte osoan luzatu da.

I. Plana ebaluatzeko eta II. Plana egiteko lan prozesua laburbilduta dago irudi honetan.

1. ilustrazioa.
II. Gizarteratzeko Plana eraikitzeko prozesu metodologikoa.



Irudian ageri diren faseak honela laburtu daitezke:

- Elkar-EKIN 2016-2020 Gizarteratzeko Planaren ebaluazioa, 2020ko abendutik 2021eko uztailera bitarte egina, bi helbururekin: batetik, Planak inklusiorako gizarte zerbitzuen sarearen funtzionamenduan duen garapena eta inpaktua ebaluatzea; eta bestetik, egoera sozioekonomikoaren oinarrizko ezaugarriak deskribatzea eta II. Gizarteratzeko Planak kontuan hartu behar lituzkeen erronkak eta oinarrizko orientabideak identifikatzea.

- Aurkezpen, parte hartze eta kontsulta ekitaldia 2021eko abenduaren 1ean: *Gizarteratze Planaren ebaluazioa eta Gipuzkoako II. Gizarteratze Planaren oinarrizko orientabideak aurkezteko eta kontrastatzeko jardunaldiak*. Uda honetan, Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko Planaren ebaluazioaren emaitza nagusiak eta hurrengo planaren oinarrizko orientabideak aurkeztu ziren, eta zenbait lan mahai antolatu ziren, ekarpenak jasotzeko.

- Abenduaren 17tik urtarrilaren 31ra bitarte egindako kontsulta birtuala, ekarpenak biltzeko prozesuari jarraipena emateko. Kontsulta horretarako, ekitaldian egindako lan mahaietan erabilitako tresna berbera erabili zen informazioa biltzeko.

- Fase horietatik abiatuta, Esparru Estrategikoa definitzen duen dokumentu hau prestatu da, Planaren oinarri teorikoak eta operatiboak biltzen dituena, eta Plana garatzeko konpromisoa hartu duten erakunde publiko eta pribatuen atxikipena lortu da.

Aurretik adierazi denez, Esparru Estrategiko hau datozen hiletan osatuko da, 2022/2023 aldirako lehen Jarduera Plan bat landuta. Bertan zehaztuko dira dokumentu honetan planteatzen diren orientabide orokorrak gauzatzeko konpromisoak eta proiektu eragileak.

[01.3]

Planaren egitura.

Elkar-EKIN Gipuzkoako I. Gizarteratzeko Planaren eta gure inguruan inklusiorako garatzen diren gainerako planen ebaluazioak agerian uzten du zaila dela arlo horretan ekintza plan erakunde artekoak eta multidimentsionalak prestatu eta gauzatzea. Sektore horretan era askotako eragileek esku hartzen dute, ikuspegi, behar eta interes desberdinak dituztenek, eta horrek gobernantzarako arazoak dakartza; horrez gainera, zaila da modu operatiboan definitzea helburuak eta aurreikusitako ekintzak, eta horrek guztiak eraginkortasuna kentzen die plangintzaren arloan egiten diren ahaleginei.

Aipatu denez, ahal den neurrian zailtasun horiek konpontzeko, eta kontuan hartuta inklusiorako politikak planifikatzearen konplexutasuna, II. Plana bi mailatan egituratzea erabaki da. Egitura hori gure Lurraldeko ekintza sozialeko beste plan eta estrategia batzuetan erabilitakoa da, eta helburutzat du Planak dituen hiru funtzioei erantzutea: eragile guztien ekintzak orientatzea, konpromiso zehatzak ezartzea eta gaitasun eragilea eta eraldatzailea izango duten ekintza bereziak definitzea.

Ildo horretan, plana hiru elementuren inguruan egituratuta dago:

- → Esparru estrategiko bat, estrategiari atxikitako eragileen jarduna bideratu nahi duena zuzentarauen eta gomendioen bidez.
- → Esparru operatibo bat, konpromiso zehatzak eta espezifikoak ezarri nahi dituena Planaren garapenean inplikatutako administrazio bakoitzarentzat.
- → Esparru betearazle bat, proiektu eragile zehatzak planteatzen dituena, praktikan jarri ahal izateko gomendio eta konpromisoetako batzuk.

Hasierako dokumentu honek **Esparru Estrategikoa** jasotzen du, eta **2022-2024 aldirako Jarduera Planarekin** osatuko da; hor zehaztuko dira aldi horretarako esparru operatiboa (konpromisoak) eta betearazlea (proiektu eragileak).

Hasierako planteamendutik abiatuta, honako hau da dokumentuaren egitura:

- Lehenengo kapituluak Planaren aurrekariak, metodologia eta egitura azaltzen ditu, eta Planari atxikita dauden erakundeen zerrenda aurkezten du.
- Bigarren kapituluak I. Plana ebaluatzean egindako azterketaren laburpena jasotzen du. II. Planeko helburuak eta lehentasunak definitzeko oinarrizko diagnostikoa da.
- Hirugarren kapituluan jasota daude Planaren oinarrizko ezaugarriak dagokion esparru normatibo eta politiko estrategikoari dagokionez, abiapuntutzat dituen irizpide orokor edo oinarrizko printzipioei dagokienez eta oinarrian duen arreta ereduari dagokionez.
- Laugarren kapituluak Esparru Estrategikoa bera aurkezten du: lehentasunezko erronkak, lehentasunezko arreta beharrak eta egoerak, ekintza ardatzak eta helburu estrategikoak eta landutako eremuetako ekintza publikorako orientabideak.
- Bosgarren kapituluak Planaren gobernantza eta ebaluazio eredua aipatzen du.

[01.4]

Elkar-EKIN II. Gizarteratzeko Planari lotutako erakunde publiko eta pribatuak

Elkar-EKIN Gipuzkoako II. Gizarteratzeko Planak erakunde publiko eta pribatuetan borondatezko aliantzak bilatzen ditu, ez baitago erakunde publiko edo pribatuak dokumentu honetan ezarritako gomendioak edo helburuak betetzera behartzen dituen araudirik. Elkar-EKIN Gipuzkoako II. Gizarteratzeko Planarekiko loturak, funtsean, hau dakar:

- Dokumentu honetako Esparru Estrategikoaren oinarrizko elementuak onartzea.
- Plana indarrean dagoen bitartean Esparru Estrategiko honetan jasotako orientabideak eta gomendioak gauzatzeko jarduera zehatzak garatzea, erakunde bakoitzari dagokion lurralde eta/edo eskumen esparruan.
- Konpromiso zehatzak eta espezifikoak hartzea, orientabide horiek gauzatzeko Konpromiso horiek Plana indarrean dagoen bitartean garatuko diren jarduera planetan sartuko dira.
- Hala badagokio, gizarte zerbitzuen, diru sarreren bermearen, enpleguaren, sustapen ekonomikoaren, etxebizitzaren, osasunaren, hezkuntzaren, kulturaren, kirolaren edo partaidetza komunitarioaren arloan proiektu eragileak garatzea.
- Jarraipen eta ebaluazio jardueretan parte hartzea, baita bosgarren kapituluan adierazita dauden gobernantza egituretan ere.

Horrela, ondoren adierazten den bezala, Planari lotzen zaizkion erakundeek adostutako esparru estrategikoa garatzeko borondatea adierazten dute, konpromiso eta proposamen eragile zehatzen bidez, beren eskumenen, lehentasunen eta beharren arabera. Planari lotutako erakundeek neurri zehatzak eta ebaluagarriak garatzeak berekin dakar erakunde horiek konpromisoa hartzea abian jarritako jarduerei dagozkien adierazleak jasotzeko eta Planaren ebaluazioan parte hartzeko.

[02.]

Oinarrizko diagnostikoa: bazterketarekin lotutako behar sozialak, gizarteratzeko Gizarte Zerbitzuen sarearen irismena eta Planaren ebaluazioa.

Sarrerako kapituluan aipatu denez, bigarren kapitulu honek II. Gizarteratze Plana egiteko kontuan hartu den diagnostikoaren oinarrizko elementuak biltzen ditu. Diagnostiko hori, funtsean, 2021ean zehar I. Plana ebaluatzeko gauzatu den prozesuaren emaitza da.

Ebaluazio horren edukietatik abiatuta, diagnostiko hau lau atal handitan egituratuta dago:

- → Lehenengoak gizarte bazterketarekin lotutako egoera sozioekonomikoen bilakaerari buruzko datuak biltzen ditu, batik bat lan merkatuaren, pobrezia egoeren eta etxebizitza lortzeko zailtasunen bilakaerari buruzkoak. Era berean, gizarte bazterketaren balorazioa eskatu duten pertsonen profilari buruzko azken datuak jasotzen ditu, baita EAEko bazterketa egoeren bilakaerari buruzkoak ere.

- → Bigarren atalak bazterketa egoerak prebenitzeko eta konpontzeko politiken irismenari buruzko oinarrizko datuak biltzen ditu, arreta berezia jarrita Gizarte Zerbitzuen sistemaren bilakaeran.

- → Hirugarren atalak I. Planaren ebaluazioan parte hartu zuten eragileek emaitzen gainean egin zuten balorazioarekin lotutako gogoeta batzuk aurkezten ditu.

- → Laugarren atalean diagnostikoaren ondorio nagusiak jasotzen dira.

[02.1]

Bazterketarekin lotutako egoera sozioekonomikoen bilakaera.

a] *Gipuzkoan langabezia eta soldata desparekotasuna murriztu egin dira, soldata txikienak gutxiago handitu diren testuinguruan.*

2015etik 2021era bitarte, nabarmenki murriztu dira langabezia tasa orokorrak, baita COVID19aren pandemiak lan merkatuan izandako inpaktua kontuan hartuta ere. Edonola ere, hurrengo grafikoan argi ikusten denez, urte bakoitzaren amaierako langabezia tasa orokorrak kontuan hartzen badira, 2015ean biztanleria aktiboaren % 11,7koa izatetik 2021ean % 8,7koa izatera pasatu da. Nabarmena dirudi, halaber, hobekuntza 2008an hasitako krisitik irteten hasi ginen urteetan gertatu zela gehienbat, eta 2018az geroztik % 9 inguruan gelditu direla langabezia tasak.

Eskualde desberdinen 2021eko egoerari erreparatzen badiogu, desberdintasun nabarmen samarrak daude, Urola Kostako % 7,6tik Bidasoako % 10,9ra eta Debabarreneko % 10,3ra bitarteko tasekin. Udalerri handienen artean, Eibarren (% 11,9), Irunen (% 11,8), Arrasaten eta Zumarragan (% 10,8) erregistratu dira langabezia tasa handienak.

Langabetuen profilari dagokionez, 2021ean gazteak (16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean % 23,5ekoa da langabezia tasa) eta atzerritar nazionalitateko pertsonak (% 21,4) dira kopuru handienak dituztenak, eta erregistratutako tasak zertxobait handiagoak izan dira emakumeen artean gizonezkoen artean baino.

1. grafikoa.
Biztanle langabetuen eta urte amaieran erregistratutako langabezia tasaren bilakaera. Gipuzkoa, 2015-2021.



Iturria: geuk egina, Lanbideren datuetan oinarrituta.

Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera aztertuz gero, eta oinarritzat hartuta biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko Eustaten inkesta, bi sexuetan langabezia tasaren joera oso antzekoa dela ikusten da. 2015ean, tasa orokorra % 13,3koa zen gizonentzat nahiz emakumeentzat, baina aztertutako gainerako aldian handiagoa da emakumeen kasuan. Gizonen eta emakumeen langabezia tasen arteko desberdintasunak nabarmenagoak dira 2018ra arte. Urte horretatik aurrera, alde hori nabarmenki murrizten da.

2. grafikoa.
Langabezia tasaren (%) bilakaera sexuka. Urteko batezbestekoa. Gipuzkoa, 2015-2021.



Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta.

Langabetuen kopurua alde batera utzita, ordea, nabarmendu behar da enpleguaren kalitateari lotutako faktoreek gero eta garrantzi handiagoa dutela bazterketa, pobrezia eta desberdintasun egoeretan; faktore horiek gero eta lotura handiagoa dute behin-behinekotasunarekin, jardunaldi partzialekin edo soldata txikiekin. Ildo horretan, EUSTATen datuen arabera, 2015etik 2019ra bitarte behin-behinekotasun tasa handitu egin zen gizon zein emakumeentzat; 2020an murriztu egin zen, pandemiak enplegua suntsitu zuelako, seguru asko; eta 2021ean, aldiz, handitu egin zen, emakumeen behin-behinekotasun tasak gora egin zuelako, funtsean. Ondorioz, behin-behinekotasunari begira emakumeen eta gizonen artean dagoen arrakala ere handitu egin da aztertutako aldian (2015-2021).

Soldaten bilakaerak eta, bereziki, soldata desparekotasunak lotura zuzena dute pobrezia eta bazterketa egoerekin. Horri dagokionez, Gipuzkoako bilakaera anbibalentea da. Alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak egindako *Soldatak, pentsioak, langabezia prestazioak eta gizarte aurreikuspeneko erreskateak Gipuzkoan* txostenaren arabera, soldaten diru sarrerek epe luzean 2011tik 2020ra izan duten bilakaera aztertuz gero, eta sarrerak deziletan banatuta, argi eta garbi ikusten da diru sarrerak txikitu egin direla gutxien irabazten duten langileen erdientzat, eta handitu egin direla, aldiz, gehien irabazten duten erdientzat. Zehatzago esanda: lehenengo bost dezilen kasuan, soldata sarrerak % 3,6 murriztu dira, batez beste, eta, aitzitik, batez beste % 6,5 handitu dira azken bost dezilen kasuan (hau da, langile guztien artetik diru gehien irabazten duten % 50en kasuan). Garrantzitsua da adieraztea datuak euro arruntetan jasotzen direla —hau da, prezioen bilakaeraren ondorioz, soldata baxuenetan gehiago txikitzen da erosahalmena, eta soldata altuenen igoera benetan txikiagoa da—, eta aldaketak lan merkatuak eskaintzen dituen soldaten bilakaeraren eta benetan lan egindako orduen murrizketaren ondorio izan daitezkeela, talde batzuetan hazi egin baitira lanaldi partzialak edo/eta behin-behinekotasuna.

3. grafikoa.
Soldaten medianaren bilakaera dezilen arabera.
Gipuzkoa, 2011-2021.



Iturria: geuk egina, Soldatak, pentsioak, langabezia prestazioak eta gizarte aurreikuspeneko erreskateak Gipuzkoan txostenetik abiatuta.

Alabaina, soldata desparekotasuna epe laburragoan neurtzen duten adierazleen bilakaera aztertuz gero, adierazleen beherakada argi geratzen da: 2015ean, errenta handiena zuten % 10en soldaten mediana errenta txikiena zuten % 10en mediana baino 68,4 bider handiagoa zen. 2020an, aldiz, ratio hori 46koa zen. Era berean, txikitu egin da bosgarren dezileko pertsonek jasotzen duten soldataren eta lehenengo dezilekoek jasotzen dutenaren arteko distantzia, eta egonkor mantendu da, ordea, bosgarren eta azken dezileko pertsonen arteko aldea. Horrek guztiak funtsean adierazten du soldata txikienak dituzten pertsonen posizio erlatiboa suspertu egin dela 2015etik 2020ra bitarte.

1. taula.
Soldaten medianaren errenta dezilen arteko ratioaren bilakaera. Gipuzkoa, 2015-2020.

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
D10/D1	68,4	65,1	56,0	52,3	52,6	46,2
D5/D1	24,5	23,1	19,7	18,7	18,9	16,2
D10/D5	2,8	2,8	2,8	2,8	2,8	2,9

Iturria: geuk egina, Soldatak, pentsioak, langabezia prestazioak eta gizarte aurreikuspeneko erreskateak Gipuzkoan txostenetik abiatuta.

Soldaten bilakaera errenta mailaka aztertzeaz gain, *Soldatak, pentsioak, langabezia prestazioak eta gizarte aurreikuspeneko erreskateak Gipuzkoan* txostenak aukera ematen du batez besteko soldaten bilakaera aztertzeko, hartzaileen beste ezaugarri batzuen arabera. Genero ikuspegitik abiatuta, beheko taulan jasota daude 2011tik 2020ra bitarteko batez besteko soldatak gizonentzat zein emakumeentzat, baita bien arteko ratioa ere. Taulan ikus daitekeenez, 2011tik 2020ra bitarte emakumeen batez besteko soldata gizonena baino gehiago handitu da, % 7,6 eta % 4,8, hurrenez hurren; beraz, gizonen eta emakumeen arteko ratioa murriztu egin da.

Dena den, gizonen batez besteko soldata emakumeena baino nabarmenki handiagoa da aztertutako aldi osoan. Hala, 2020an, gizonen batez besteko soldata emakumeena baino 1,30 aldiz handiagoa da.

2. taula.
Batez besteko soldataren bilakaera sexuaren arabera. Gipuzkoa 2011-2020.

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
EMAKUMEAK	21.014	20.713	20.990	20.846	21.018	21.019	21.007	21.798	22.611	22.601
GIZONAK	28.138	27.627	27.840	27.894	28.076	28.194	28.052	29.247	29.815	29.476
RATIOA G/E	1,34	1,33	1,33	1,34	1,34	1,34	1,34	1,34	1,32	1,30

Iturria: geuk egina, Soldatak, pentsioak, langabezia prestazioak eta gizarte aurreikuspeneko erreskateak Gipuzkoan txostenetik abiatuta.

b] *2016az geroztik hazi egin da pobrezia eta, bereziki, desberdintasuna.*

Pobrezia eta desberdintasun egoeren bilakaerari buruzko datuek erakusten dutenez, adierazle guztiek okerrera egin dute, bai Euskadin bai Gipuzkoan, eta, gainera, Gipuzkoan EAEko gainerako lurraldeetan baino nabarmenagoa da okertzea. Hurrengo taulan jasota daude pobreziarekin eta desberdintasunarekin lotutako adierazle nagusiek Gipuzkoan izan duten bilakaera. Ikusten denez, pobrezia eta desberdintasun egoera ia guztiek argiro egin dute gora Gipuzkoan, kontuan hartutako adierazle mota edozein dela ere. Muturreko pobrezia izateko arrisku egoerak, adibidez, % 3,7tik % 5,5era igo dira; hau da, % 50 inguru handitu dira aztertutako aldian. Mantentze arloko pobreziaren kasuan (PGEI metodologia), gorakada % 37,3koa izan da, eta Gini indizearen kasuan, % 13,7koa.

3. taula.
Pobrezia eta desberdintasun adierazleen bilakaera. Gipuzkoa, 2016-2020.

		2016	2018	2020	ALD. (%)
PGEI ADIERAZLEAK	Mantentze arloko pobrezia	5,1	5,7	7,0	37,3
	Metatze pobrezia	0,4	0,1	0,2	-50,0
	Benetako pobrezia	4,0	4,5	5,1	27,5
DESBERDINTASUN ADIERAZLEAK	Gini indizea	23,6	24,2	26,8	13,7
	S80/S20	3,4	3,6	4,2	20,6
	% 10 pobreenaren diru sarreren %	3,9	3,7	3,2	-16,9
EU-SILC ADIERAZLEAK	Pobrezia arriskua	13,6	13,6	16,7	22,8
	Pobrezia larriaren arriskua	3,7	3,5	5,5	48,6
	Gabezia material larria	3,0	4,8	3,9	30,0
	Lan intentsitate txikia	7,9	6,0	5,8	-26,6
	AROPE tasa	16,9	16,5	18,7	10,7

Iturria: EOE. Pobreziari eta Gizarte Desparekotasunei Buruzko Inkesta.

Alderaketa eginez, nahiz eta 2020an egoera oraindik hobea den Gipuzkoan inguruko lurraldeetan baino, bistakoa da, halaber, egoera gehiago okertu dela bertan, agian 2016an abiapuntu hobea zuelako. Edonola ere, pobrezia larriaren arrisku tasa % 48,6 handitu da Gipuzkoan 2016tik, eta Euskadin eta EBn, aldiz, % 25,2 eta % 4,6, hurrenez hurren. Espainian % 11,2 txikitu da.

4. taula.
Pobrezia adierazle nagusien alderaketa lurraldeka, 2020.

		GIPUZKOA 2020	EUSKADI 2020	ESPAINIA 2020	EB-28 2020
EGOERA 2020AN	Pobrezia arriskua	16,7	17,8	21,0	16,8
	Pobrezia larriaren arriskua	5,5	6,1	9,5	6
	Gabezia material larria	3,9	4,1	7.0	5,4
	Lan intentsitate txikia	5,8	7,6	9,9	8,5
	AROPE tasa	18,7	19,9	26,4	21,4
	Mantentze arloko pobrezia (PGDI)	7,0	8,0	-	-
ALDAKUNTZA 2016TIK	Pobrezia arriskua	22,8	8,5	-2,2	-5,8
	Pobrezia larriaren arriskua	48,6	25,2	-11,2	4,6
	Gabezia material larria	30,0	-35,9	20,7	-31,6
	Lan intentsitate txikia	-26,6	-25,5	-33,6	-18,3
	AROPE tasa	10,7	-3,4	-5,4	-8,9
	Mantentze arloko pobrezia (PGDI)	37,3	13,8	-	-

Iturria: EOE. Pobreziari eta Gizarte Desparekotasunei Buruzko Inkesta.

Eskualdeka aztertuta, pobrezia tasa handienak Debabarrenekoak dira; bertan, mantentze arloko pobreziaren tasa % 8,2koa da, eta Gipuzkoa osoan, aldiz, % 5,1ekoa. Edonola ere, 2008az geroztik mantentze arloko pobrezia tasak handitu egin dira Pobreziari eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkestak Lurralde Historikoan bereizten dituen lau eskualdeetan.

4. grafikoa.
Benetako pobreziaren intzidentziaren (%) bilakaera Gipuzkoan, eskualdeka. 2014-2020



Iturria: EOE. Pobreziari eta Gizarte Desparekotasunei Buruzko Inkesta.

Azkenik, aipatu beharra dago pobrezia tasak handiagoak direla emakumeen, gazteen eta etorkinen artean, baita kide guztiak langabezian dituzten familien artean ere.

5. taula.
Mantentze arloko pobrezia tasak zenbait profil soziodemografikorentzat. EAE 2008-2020

		2008	2020	ALDAKUNTZA
SEXUA	Gizonak	5,3	7,4	39,6
	Emakumeak	6,1	8,6	41,0
ADINA	<15	9,1	13,6	49,5
	15-24	6,9	9,1	31,9
	25-34	5,3	9,6	81,1
	35-44	5,8	10,7	84,5
	45-54	3,3	7,4	124,2
	55-64	5,6	4,9	-12,5
	65+	4,3	4,7	9,3
NAZIONALITATEA	Espainiarra	4,4	5,5	25,0
	Atzerritarra	28,5	41,9	47,0
ADINGABEAK ETXEAN (0-15)	Adingaberik gabe	4,0	6,0	50,0
	Adingabeekin	8,8	12,7	44,3

FAMILIA UNITATEA	Bikotea seme-alabarik gabe	3,9	3,3	-15,4
	Bikotea seme-alabekin	4,4	6,1	38,6
	Gurasobakarra	13,7	18,6	35,8
	Pertsona bakarrekoa	9,7	15,5	59,8
JARDUERAREKIN HARREMANA	Lanean, modu egonkorrean	3,1	2,4	-22,6
	Lanean, modu ezegonkorrean	13,2	15,3	15,9
	Denak lanik gabe	54,0	54,1	0,2
	Ez-aktiboak	9,4	10,4	10,6
GUZTIRA		5,7	8,0	40,4

Iturria: EOE. Pobreziari eta Gizarte Desparekotasunei Buruzko Inkesta

Nolanahi ere, biztanleria profil desberdinen gaineko inpaktuaz haratago, Gipuzkoako eta Euskadiko pobrezia eta desberdintasun tasen igoeraren azalpena elkarri hertsiki lotuta dauden hiru zirkunstantziak azaltzen dute.

Alde batetik, diru sarreren mediana handitu egin da, eta errenta txikieneko taldeen sarrerak gutxiago handitu dira. 2016tik 2020ra bitarte, Euskadi osoan, biztanleen % 10 pobreenen diru sarrerak % 6,1 handitu dira; biztanleria osoa kontuan hartuta, ordea, hazkundea % 16koa izan da, eta ekonomikoki egoera onenean dauden erdien kasuan, % 17koa. Ikuspuntu horretatik, argi dago hazkunde ekonomikoaren emaitzak ez direla berdin banatu errenta talde guztientzat eta biztanleriaren % 10 txiroenaren egoerak nabarmen egin duela okerrera termino erlatiboetan.

6. taula.
Batez besteko per capita diru sarrera baliokideak, diru sarreren dezilen arabera (hileko diru sarrera garbi konstanteak). EAE 2016-2020.

	2016	2018	2020	ALDAKUNTZA
% 10 pobreena (D1)	557,6	544,4	592,5	6,3
% 10-20 (D2)	862,4	844,3	948,6	10,0
% 20-30 (D3)	1.067,3	1.047,4	1.179,8	10,5
% 30-40 (D4)	1.233,3	1.237,9	1.399,9	13,5
% 40-50 (D5)	1.404,5	1.415,8	1.590,9	13,3
% 50-60 (D6)	1.584,7	1.593,6	1.798,0	13,5
% 60-70 (D7)	1.778,5	1.778,8	2.023,9	13,8
% 70-80 (D8)	1.981,3	2.038,8	2.279,7	15,1
% 80-90 (D9)	2.312,1	2.362,4	2.688,3	16,3
% 10 aberatsena (D10)	3.234,7	3.335,0	4.089,7	26,4
Guztira	1.601,8	1.620,7	1.859,5	16,1

Iturria: EOE. Pobreziari eta Gizarte Desparekotasunei Buruzko Inkesta.

Bestalde, biztanleria osoaren egoera hobetzeak EAE osoko pobrezia atalaseen hazkundea bultzatu du; pertsona bakar batentzako pobrezia larriaren adierazlearen kasuan, adibidez, atalasea 541 eurokoa zen 2014an, eta 680koa, berriz, 2020an, eta horren ondorioz, biztanleriaren zati baten diru sarrerak pobreziaren atalasearen azpitik daude, handitu diren arren.

Azkenik, garrantzitsua da nabarmentzea azken urteetan Euskadin nabarmen handitu direla pobrezia primarioaren edo prestazioen aurreko pobreziaren tasak[1], hau da, merkatuak sortzen dituen pobrezia tasak transferentzia sozialen eraginez zuzendu aurretik (langabeziagatiko subsidioak, sarrerak bermatzeko errenta, familientzako laguntzak, etab.). Hurrengo grafikoan ikusten denez, 2004tik 2020ra bitarte, % 14,5etik % 26,7ra handitu dira prestazioak jaso aurreko pobrezia larriaren tasak. Aldi horretan, gainera, desagertu egin da espainiar Estatuarekiko eta EBrekiko aldea; izan ere, eremu horietan aldi osoan apenas aldatu dira prestazioak jaso aurreko pobrezia larriaren tasak talde horrentzat.

5. grafikoa.

Prestazioak jaso aurreko pobrezia larriaren tasen bilakaera 65 urtetik beherakoentzat Gipuzkoan, Euskadin, Espainian eta EBn (2004-2020).



Iturria: geuk egina, Pobreziari eta Gizarte Desparekotasunei Buruzko Inkestatik abiatuta.

Aldaketa hori oso garrantzitsua da Euskadiko eta, hedaduraz, Gipuzkoako pobreziaren eta bazterketaren aurkako politiken ikuspegitik. Gizarte babeseko ereduaren eraginkortasunarekin batera, historikoki Euskadiko pobrezia eta desberdintasun tasa baxuak —eta, bereziki, Gipuzkoakoak— azaldu dituen arrazoietako bat zera izan da, bertako ekoizpen eredua gai izan dela transferentziak egin aurreko pobrezia eta desberdintasun tasa nahiko baxuak sortzeko, ikuspegi konparatu batetik behintzat. Izan ere, oro har pentsa daiteke Gipuzkoak eta Euskadik urte askoan posizio ona mantendu ahal izan dutela, bai aurre-banaketari dagokionez (lan merkatu), bai birbanaketari dagokionez (gizarte babeseko eredua). Azken urteotan, ordea, pobrezia primarioaren tasak hazi egin dira Gipuzkoan eta Euskadin, gure inguruko herrialdeetan baino gehiago, eta gizarte babeseko ereduak ezin izan du osorik bere gain hartu lan merkatuaren funtzionamenduak eta kotizaziopeko babes sistemek sortutako premia egoeren hazkundea. Bestela esanda, azken urteetan ahuldu egin da Euskadiko eta Gipuzkoako ekoizpen sarearen aurre-banaketa ahalmena, eta ez da behar beste konpentsatzen birbanaketa politiken bidez (gizarte prestazioak eta zergak).

1 Pobrezia eta desberdintasun egoerak bi ikuspegitatik aztertu daitezke. Ohiko ikuspegiak etxeetako errenta erabilgarritik eratorritako pobrezia edo desberdintasun adierazleak eskaintzen ditu. Errenta erabilgarriak barne hartzen ditu etxeetako berezko errentak (lanekoak, kapitalekoak, etab.), baita jasotzen diren transferentzia publikoak ere (pentsioak, langabeziagatiko prestazioak, gizarteratzeko gutxieneko errentak, familia prestazioak, etab.), eta etxeek ordaintzen dituzten zerga zuzenek txikitu egiten dute (nagusiki, pertsona fisikoen errentagatiko zergak). Bigarren ikuspegiak pobrezia primarioko tasei egiten die erreferentzia, hau da, etxeetako errenta primariotik (lana eta kapital errentak) eratorritako pobrezia tasei, kontuan hartu gabe transferentzien bidez jasotzen dituzten diru sarrerak edo ordaintzen dituzten zergak. Prestazioak jaso aurreko pobrezia egoeren bilakaera aztertuta, lan merkatuak sortzen dituen pobrezia eta desberdintasun tasen bilakaera aztertu daiteke, esku hartze publikoak zergen eta prestazioen bidez zuzendu aurretik. Pobrezia primarioko (prestazioen aurretikoa) tasen azterketak aukera ematen du, halaber, birbanaketa politiken bidez murriztu behar diren pobrezia tasen tamaina aztertzeko.

c] *Diru sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoen eskaerak murriztu dira.*

Enpleguaren eta soldaten arloan izandako hobekuntzen ildotik –eta pobrezia eta desberdintasun adierazle gehienen bilakaerarekin kontrastean–, diru sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoen eskaera nabarmen murriztu da Gipuzkoan 2015etik 2021era bitarte, nahiz eta 2020an handitu egin zen prestazio horren titularren kopurua, Covid-19aren pandemiaren eraginez, seguru asko.

Nolanahi ere, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) titularren eta onuradunen kopurua % 18 eta % 20 inguru murriztu da, hurrenez hurren, 2015etik 2021era bitarte. Etxebizitza Gastuetarako Prestazio Osagarria jasotzen duten titularren kopurua % 13 murriztu da. Bestalde, 2019 eta 2020 bitartean prestazioaren titularrek eta onuradunek gora egin bazuten ere, 2021eko datuak 2015ekoak baino askoz txikiagoak dira oraindik.

Bestalde, urte amaieran prestazioaren titularren eta onuradunen kopurua sexuaren arabera nola banatuta dagoen aztertuz gero, erdiak baino gehiago emakumeak dira aldi osoan zehar. Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren titular diren emakumeen proportzioak gora egin du pixkanaka 2016. urtetik 2019. urtera, eta behera egin du urte horretatik aurrera, batez ere 2020. urtetik 2021. urtera. Onuradunen kasuan —barne daude titularrak eta bizikidetza unitateko gainerako kideak—, esan daiteke emakumeen pisua nahiko egonkor mantendu dela % 54 inguruan (2018tik aurrerako datuak erabilita).

7. taula.
Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko adierazle nagusien bilakaera Gipuzkoan, 2015-2021.

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Titularrak 12/31n	15.077	15.039	14.128	12.992	12.361	13.257	12.400
Emakume titularren % 12/31n	57,1	56,0	56,5	57,6	58,5	58,0	56,5
12/31n EGPO jasotzen duten titularrak	6.974	7.244	6.848	6.254	5.890	6.414	6.016
Onuradunak 12/31n	27.401	27.221	25.365	23.393	21.992	24.057	21.843
Emakume onuradunen %, 12/31n	—	—	—	54,1	54,5	54,3	53,9
Titularrak urte osoan zehar	18.736	18.982	18.486	17.513	16.140	16.631	17.048
Estaldura 12/31n	2,1	2,1	1,9	1,8	1,7	1,8	1,7
Laneko osagarria (%)	19,4	20,4	21,2	21,4	21,2	19,3	16,0

Iturria: Lanbide; EOE. Pobreziari eta Gizarte Desparekotasunei Buruzko Inkesta

Pobrezia tasen prebalentziarekin gertatzen zen bezala, DSBEren estaldurak alde nabarmenak ditu Gipuzkoako eskualdeen artean. Alde handiak daude: Debagoieneko eskualdean, adibidez, estaldura 12,9 titularrekoa da mila biztanleko, eta Debabarreneko eskualdean, berriz, 25,3 titularrekoa mila biztanleko (esan bezala, eskualde horretan handigoak dira pobrezia tasak).

Mapa 1.
DSBEren estaldura (%) 2020



Iturria: EOE. Pobreziari eta Gizarte Desparekotasunei Buruzko Inkesta eta Lanbide.

d] *Euskadin, gizarte bazterketa handitu egin da pandemiaren ostean.*

Lehen aipatutako pobrezia eta desberdintasun arazoen hazkundearekin batera, badirudi gizarte bazterketako egoerak areagotu egin direla, bereziki gizarte bazterketa larria. Aldaketa hori Estatu osoan gertatzen ari da, baita Euskadin ere, berezitasun batzuekin. Bazterketa egoerek Gipuzkoan izan duten bilakaerari buruzko datu eguneraturik ez dagoen arren, pentsa daiteke Lurralde Historikoko bilakaera Euskadi osoko bilakaeraren antzekoa izan dela.

FOESSA fundazioak *Euskadiko bazterketari eta garapen sozialari buruzko txostena* dokumentua argitaratu du 2022an, 2021eko datuekin, eta horren arabera, Euskadiko biztanleen % 57,7 erabat integratuta daude; % 26,1en integrazioa prekarioa da; % 7,3 bazterketa egoera moderatuan daude, eta % 9,0, bazterketa egoera larrian. Gizartean bazterturik dauden pertsonak Euskadiko biztanleen % 16,3 dira; horrek esan nahi du Erkidegoko sei biztanletik bat –360.000 pertsona inguru–, gutxi gorabehera, bazterketa egoera moderatuan edo larrian daudela 2021ean. Euskadiko egungo egoera Espainia osokoa baino askoz hobea da, eta 2018az geroztik izandako bilakaera ere hobea izan da.

6. grafikoa.
Euskadiko biztanleen gizarteratze mailen bilakaera.



Iturria: FOESSA Fundazioaren 2018ko Integrazio eta Beharrizan Sozialei buruzko Inkesta, 2021. Txosten autonomikoak.

Azterketak sexuaren araberako bazterketa tasei erreparatzen badie, ez da desberdintasun nabarmenik ikusten gizonen eta emakumeen artean. 2021ean, bazterketaren intzidentzia % 16,4koa da gizonen artean, eta % 16,2koa emakumeen artean. Bi kasuetan, bazterketa maila handiagoa da 2021ean 2018an baino. Etxeko sostengatzaile nagusiaren sexua kontuan hartzen bada, aldiz, bazterketa mailaren aldeak handitu egiten dira. Sostengatzaile nagusitzat gizon bat duten etxeetan bizi diren biztanleen artean, bazterketaren intzidentzia handitu egin da 2018tik 2021era bitarte (% 9,6tik % 15,5era), eta aldiz behera egin du sostengatzaile nagusitzat emakume bat duten etxeetan bizi diren biztanleen artean. Hala, 2021ean, nabarmen murriztu dira bi kasu horien arteko aldeak.

7. grafikoa.
Gizarte bazterketaren intzidentziaren (%) bilakaera Euskadiko biztanleriaren eta etxeko sostengatzaile nagusiaren sexuaren arabera. 2018-2021.

Iturria: FOESSA Fundazioaren 2018ko Integrazio eta Beharrizan Sozialei buruzko Inkesta, 2021. Txosten autonomikoak.

Euskadiko egoera Estatu osokoa baino hobea izan arren, bazterketa tasek nabarmen egin dute okerrera 2018tik 2021era bitarte, bereziki bazterketa larriaren tasek. Alde batetik, gizartean bazterturik dauden biztanleen ehunekoa ia % 20 hazi da, eta biztanleria osoaren % 13,9 izatetik % 16,3 izatera igaro da. Aldaketa nabarmenena, ordea, gizarte bazterketa larrian dauden biztanleen kopurua eta ehunekoa nabarmen handitzea izan da: biztanleen % 4,4tik %9,0ra igaro da (eta etxebizitzen ikuspegitik, % 3,6tik % 6,8ra). Aldi berean, murriztu egin da bazterketa moderatuan dauden biztanleen ehunekoa, % 9,5etik % 7,3ra. Azpimarratzekoa da, beraz, gizarte integrazioko maila orokorrak argi eta garbi murriztu ez badira ere, COVID-19aren krisiaren ondorioz Euskadin asko samar ugaritu direla bazterketa egoerak, eta, batez ere, bazterketa egoera larrienak, baita muturrekoak ere. Bazterketaren Indize Sintetikoan (BIS) puntuazio handiena duten etxeetan bizi diren biztanleen ehunekoa % 1,3tik % 6,1era igo da.

Inkestako datuen arabera, Euskadiko biztanleen % 24,4 bazterketa egoeran daude ardatz ekonomikoan; % 31,47, ardatz politikoan eta herritartasunekoan, eta % 7,1 ardatz erlazionalean[2]. Hiru ardatz horietako bakoitzari dagokionez, Euskadiko egoera Espainiakoa baino hobea da, funtsean: ardatz ekonomikoaren kasuan, biztanle kaltetuen ehunekoa portzentajezko 8,5 puntu txikiagoa da; ardatz politikoaren eta herritartasunekoaren kasuan, 12,5 puntu txikiagoa, eta ardatz erlazionalaren kasuan, 4,9 puntu txikiagoa.

Bilakaerari dagokionez, 2018tik 2021era bitarte murriztu egin da gabezia egoerak dituzten pertsonen ehunekoa, bai ardatz politikoan eta herritartasunekoan, bai ardatz erlazionalean (% 6 eta % 10, hurrenez hurren). Aldi berean, ordea, Estatuan bezala, handitu egin da ekonomia arloko arazoak dituzten biztanleen ehunekoa, euskal biztanleen % 15,6tik % 24,4ra. Gainera, hazkundea Espainia osokoa baino handiagoa izan da.

8. grafikoa.

Gizarte bazterketako ardatz bakoitzak Euskadin eta Espainian kaltetutako biztanleen ehunekoaren bilakaera. 2018-2021



Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2021.

2 FOESSAren Integrazio eta Beharrizan Sozialei buruzko Inkestaren metodologiak hiru bazterketa ardatz handi bereizten ditu: ekonomikoa, politikoa eta herritartasunekoa, eta soziala eta erlazionala. Ardatz ekonomikoan, enpleguarekin eta kontsumoarekin lotutako alderdiak hartzen dira kontuan: alde batetik, etxeak eta bertako kideak lan harreman normalizatu batetik kanpo uzten dituzten prozesuak aztertzen dira, eta bestetik, sarrera ekonomikoen nahikotasuna edo/eta kalitatea gizartean parte hartzeko, baita oinarrizkotzat jotzen diren ondasunen gabezia egoerak ere. Bigarren ardatzak, politika eta herritartasun arloarekin lotuak, partaidetza politikoan, hezkuntzan, etxebizitzan eta osasunean izaten diren bazterketei egiten die erreferentzia. Partaidetza politikoaren alderdian, kontuan hartzen da ordezkari politikoak aukeratzeko eskubidea eta aukeratua izatekoa, baita politikan eta herrigintzan parte hartzeko benetako ahalmena ere. Herritartasunarekin lotutako alderdietan, aldiz, herritar guztiek hezkuntza, etxebizitza eta osasuna baldintza bertsuetan eskuratzeko duten aukera aztertzen da. Azkenik, gizarte bazterketaren ardatz erlazionalak gatazka eta bakartze sozialeko egoerei egiten die erreferentzia, nagusiki; horien barruan sartzen dira, alde batetik, harreman sozial kaltegarriak eta gizarte edo/eta familia arloko beste egoera gatazkatsu batzuk, eta bestetik, lotura eta laguntza sozialik eza.

Aipatzen ari garen bazterketaren ardatzak eta alderdiak familiek eta norbanakoek 37 adierazle espezifikori begira duten egoeratik eratortzen dira. Inkestako datuen arabera, EAEko biztanleen % 8ri baino gehiagori eragiten dieten arazo ohikoenak bost dira: etxebizitza gastu gehiegizkoak (biztanleen % 15,2 egoera horretan dauden etxeetan bizi dira); lan ezegonkortasun larria (% 13,8); etxean bizi diren eta adin aktiboan dauden pertsona guztien langabezia (% 9,7); sendagaiak erosteko edo osasun tratamenduei jarraitzeko zailtasun ekonomikoak (% 9,2), eta politikan parte hartzeko mugak (% 8,6). 2021ean, 200.000 pertsona inguru (adierazlearen arabera) daude halako gabezia egoeretan Euskadin. Bestalde, bistan da bost adierazleen arteko erlazioa. Alderdi edo esparru desberdinei eragiten badiete ere —enpleguari, politikari, etxebizitzari eta osasunari—, jatorri bera dute, hots, familien beharrei erantzuteko gutxieneko sarrera ekonomikorik ez izatea.

e] *500 pertsona inguruk gizarte bazterketako balorazioa dute Gipuzkoan.*

Euskadiko gizarte bazterketako egoerei buruzko azterketa soziologikoak alde batera utzita, Gizarte Bazterketa Baloratzeko Tresnaren (GBBT) emaitzak aztertuz gero, balorazioa eskatu ondoren bazterketa arinean, moderatuan edo larrian dauden pertsonen kopurua eta profila ezagutu daitezke, baita bazterketa jasateko arriskuan daudenena ere.

Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako Zerbitzuaren arabera, 2017tik 2020ko urrira bitarte, 1.049 balorazio egin dira GBBTrekin; kasu guztietan, interesdunek berek eskatu zuten balorazioa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez. Horietatik 906k ebatzi ziren (% 86,4). Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, pertsona horien % 4 gizarte bazterketako egoera larrian daude; % 24, bazterketa moderatuko egoeran, eta % 31, bazterketa arineko egoeran. Guztira, 530 pertsona daude bazterketa egoeran. Gainera, ebazpena duten pertsonen % 39 bazterketa arriskuan daude –gehienak 2. irizpideari lotuta–, eta % 2 inklusio egoeran.

9. grafikoa.
Ebazpendun balorazioen banaketa (N=906) emaitzaren arabera (%).2017-2020



Iturria: GFA. Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako Zerbitzua

Taula honetan, bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen banaketa azaltzen da, sexuaren arabera. 2017tik 2020ra baloratutako pertsonen ia % 80 gizonak izan dira, eta gainerako % 20a, emakumeak. Emakumeen artean, ordea, gizonetan baino ohikoagoa da emaitzak bazterketa adieraztea: gizonen % 56k jaso dute emaitzatzat bazterketa egoeran daudela eta % 43k bazterketa arriskuan daudela; emakumeen artean, berriz, % 72,4 bazterketa egoeran daude, eta % 27 bakarrik arrisku egoeran. Hala ere, gizon gehiago baloratu direnez, bazterketa egoeran dauden pertsona guztien % 75,3 gizonak dira, eta soilik % 24,7 dira emakumeak.

8. taula.
Bazterketaren balorazioari buruzko adierazleak sexuka. Gipuzkoa 2017-2020.

		BAZTERKETA ARRISKUA	BAZTERKETA	GUZTIRA
ABSOLUTUAK	Gizonak	307	399	706
	Emakumeak	50	131	181
	Guztira	357	530	887
BANAKETA HORIZONTALA (%)	Gizonak	43,5	56,5	100,0
	Emakumeak	27,6	72,4	100,0
	Guztira	40,2	59,8	100,0
BANAKETA BERTIKALA (%)	Gizonak	86,0	75,3	79,6
	Emakumeak	14,0	24,7	20,4
	Guztira	100,0	100,0	100,0

Iturria: GFA. Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako Zerbitzua

Adinari dagokionez, baloratutako pertsonen ia bi herenek 44 urte baino gutxiago dituzte, eta, beraz, talde gazte batez hitz egin daiteke. Nolanahi ere, bazterketa egoerak maizago gertatzen dira urte gehien dituzten pertsonen artean: 30 urtetik beherakoen artean, baloratutako pertsonen % 43ri eragiten diete bazterketa egoerek, eta 45 urtetik gorakoen artean, aldiz, % 75 baino gehiagori. Bazterturik dauden pertsonen erdiak, nolanahi ere, 45 urtetik beherakoak dira.

9. taula.
Bazterketaren balorazioari buruzko adierazleak adinaren arabera. Gipuzkoa 2017-2020.

		BAZTERKETA ARRISKUA	BAZTERKETA	GUZTIRA
ABSOLUTUAK	< 30 urte	175	133	308
	30-44 urte	117	148	265
	45-54 urte	34	150	184
	55 urte edo gehiago	31	99	130
	Guztira	357	530	887
BANAKETA HORIZONTALA (%)	< 30 urte	56,8	43,2	100,0
	30-44 urte	44,2	55,8	100,0
	45-54 urte	18,5	81,5	100,0
	55 urte edo gehiago	23,8	76,2	100,0
	Guztira	40,2	59,8	100,0
BANAKETA BERTIKALA (%)	< 30 urte	49,0	25,1	34,7
	30-44 urte	32,8	27,9	29,9
	45-54 urte	9,5	28,3	20,7
	55 urte edo gehiago	8,7	18,7	14,7
	Guztira	100,0	100,0	100,0

Iturria: GFA. Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako Zerbitzua

f] *Etxegabeen kopurua handitu egin da Gipuzkoan.*

Bizitegi bazterketari buruzko adierazleei dagokienez, argi dago Gipuzkoan asko handitu dela etxerik gabeko pertsonen kopurua. Hala ere, pentsa daiteke hazkunde horren zati bat 2020an etxerik gabeko pertsonak zenbatzeko metodologia aldatzearen ondorio dela, eta konfinamenduan etxerik gabeko herritarrak errazago lokalizatu ahal izatearen ondorio.

Nolanahi ere, bi urtean behin egiten diren etxegabeen zenbaketetan bizitegi bazterketako egoeran zenbatu diren pertsonen kopurua 635etik (2014) 957ra (2020) igo da Gipuzkoan, eta ia etengabe hazi da zenbaketa egin den urteetan. Gorakada horren arrazoia da gizarteratzeko zentroetan eta etxebizitzetan pertsona gehiago daudela identifikatuta —hau da, egonaldi ertain eta luzeko ostatu sarearen harrera ahalmena handiagoa dela—, eta, era berean, pertsona gehiago identifikatu direla kalean, gaueko aterpetxe eta harrera zentroetan eta, 2020an, konfinamenduan jarritako ezohiko zerbitzuetan.

10. grafikoa.
Bizitegi bazterketa larriko egoeretan dauden pertsonen kopuruaren bilakaera. Gipuzkoa, 2012-2020.



Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko ikerketen bilduma.

2020an, bizitegi bazterketako egoeran zeuden 957 pertsonen % 5,1 gauez kalean identifikatu ziren; % 11,1, gaueko harrerarako ohiko aterpetxe eta zentroetan; % 24,5, Covid-19aren harira prestatutako zerbitzuetan; % 6, indarkeria matxistaren biktimentzako zentro eta etxebizitzetan, eta % 53,4, gizarteratze zentro eta etxebizitzetan. Bestalde, etxegabetasun egoeran (hau da, kalean, aterpetxean edo COVIDagatiko ekipamenduetan) dauden pertsonen sexua, adina eta jatorria kontuan hartuta, etorkinen pisua argiro murrizten da adinean aurrera egin ahala (18-29 adin tartean % 94koa da, eta 70 urtetik gorakoen artean, aldiz, % 12koa), eta emakumeek 40 urtetik 49 urtera bitarteko tartean dute pisu handiena, % 16koa.

11. grafikoa.
Etxegabeen banaketa sexuaren arabera (emakumeak) eta jatorriaren arabera (atzerritar jatorria). Gipuzkoa. 2020



Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko ikerketen bilduma.

g] *Atzerritar jatorriko biztanleek nabarmen egin dute gora Gipuzkoan.*

Gizarte bazterketako egoerek lotura zuzena dute pertsonen nazionalitatearekin, eta atzerritar jatorriko biztanleen artean espainiar nazionalitatekoen artean baino txikiagoak dira soldatak eta handiagoak langabezia tasak, pobrezia, gizarte bazterketa edo bizitegi bazterketa. Neurri handi batean, bazterketa tasa handiago horiek zerikusia dute zailtasun administratiboekin eta pertsona horiek gainditu behar dituzten irregulartasun egoerekin.

Gai horri dagokionez, eskura dauden datuek argi erakusten dute 2008ko krisiaren osteko ekonomiaren eta enpleguaren susperraldiak berekin ekarri zuela atzerritar nazionalitateko biztanleen gorakada nabarmena Gipuzkoan, eta kopuru horrek gora egin du etengabe 2015az geroztik, eta urte horretan biztanleria osoaren % 6,5 izatetik 2021ean % 8,4 izatera pasatu da. Termino absolutuetan, atzerritar nazionalitateko biztanleen kopurua % 31 inguru handitu da Gipuzkoan 2015etik 2021era bitarte.

12. grafikoa.
Atzerritar nazionalitateko biztanleriaren bilakaera eta Gipuzkoako biztanleria osoarekiko proportzioa (%). 2015-2021



Iturria: INE. Errolda Jarraituaren Estatistika.

h] *Oinarrizko hornigaien prezioak nabarmen garestitu dira, bereziki etxebizitzari eta energiari lotutako kostuak.*

Azkenik, pobrezia eta bazterketa egoerekin lotutako faktoreen azterketa osatzeko, inflazioaren bilakaera aztertu behar da, eta, zehazki, etxea mantentzeko beharrezkoak diren hornigaien kostuaren igoera. Ildo horretatik, hurrengo grafikoan ikusten denez, 2021eko abenduan KPIaren indize orokorraren urteko aldakuntza tasa % 6,3koa izan zen Gipuzkoan, eta etxebizitzari, elektrizitateari, urari eta gasari buruzko kostuak biltzen dituen indizea, berriz, % 23koa. Hornigaien kostua handitzeak pobrezia energetikoko egoerak areagotzeko arrisku handia dakar, batetik, eta, bestetik, etxebizitza gastuei aurre egiteko zailtasunak handitzeko arriskua, batez ere diru sarrera txikieneko etxeetan.

13. grafikoa.
Inflazio tasaren urteko aldakuntzaren bilakaera hilabeteka, Gipuzkoan. 2015-2021

Iturria: INEbase. Bizitza maila eta baldintzak (KPI).

[02.2]

Gizarteratzeko gizarte zerbitzuen sarearen egoera eta bilakaera Gipuzkoan.

Diagnostikoaren bigarren atal honetan, Gipuzkoako gizarteratze zerbitzuen sarearen ezaugarri nagusiak deskribatzen dira, baita 2015az geroztiko bilakaera ere. Informazio iturri erabilgarriak kontuan hartuta, azterketak hiru zati ditu (OHARRA: HIRU ATAL DIO, BAINA GERO BI AIPATZEN DITU):

- Lehenengoan, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluaziotik ateratako datu nagusiak biltzen dira. Iturri horrek udal guztietan eta hiru aldundietan bildutako datuak eskaintzen ditu, eta aukera ematen du Gizarte Zerbitzuen Zorroko zerbitzuek 2012tik 2019ra bitarte izan duten hedapena aztertzeko, bai arreta plazen ikuspegitik, bai gastu publikoaren ikuspegitik.

- Bigarrenak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoak egiten duen Gizarte Zerbitzuen Estatistikatik (GZGEE) ateratako datuak biltzen ditu. Iturri horrek aldi askoz luzeago bateko datuak ematen ditu, baina ez du behar besteko bereizketa egiten lehen mailako eta bigarren mailako arreta zerbitzuen artean, eta ez ditu behar bezala jasotzen Zorroko zenbait zerbitzu, hala nola esku hartze sozio-hezitzaileei lotutakoak.

[02.2.1]
Lehen eta bigarren mailako arretako Gizarte Zerbitzuen bilakaera 2012tik 2019ra bitarte.

a] *Handitu egin da eguneko arretarako zerbitzuen eskaintza eta bigarren mailako arretarako plazen pisua.*

EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazio Txostenaren arabera, 2012tik 2019ra bitarte 913tik 1.241era handitu da udalek eta Foru Aldundiak Gipuzkoan eskaintzen dituzten egoitza plazen eta eguneko arretako plazen kopurua. Hortaz, % 35,9ko gorakada izan da. Hala ere, ugaritze erritmoak desberdinak izan dira, arreta mailaren arabera: lehen mailako arretako plazak % 22 hazi dira, eta bigarren mailako arretakoak, aldiz, % 50; horrenbestez, 2012an lehen mailako arretako plazak eskaintza osoaren % 52 baziren eta bigarren mailako arretako plazak % 47, 2019an banaketa berdina da, baina alderantzizkoa.

Era berean, 2012arekin alderatuta, 2019an zentro aniztasun handiagoa dago –edo, hobe esanda, egoitza eskaintzaren pisu txikixeagoa-, ostatua ematen duten zentroak eskaintzaren % 90 baitziren 2012an, eta % 73 baitira 2019an. Hori, batez ere, bigarren mailako arretako eta foru eskumeneko gizarteratze beharrak asetzeko eguneko zerbitzua hazi delako gertatu da, 0 plaza izatetik 185 izatera pasatu baita. Guztira, eguneko arretaren eskaintza % 265 handitu da (90 plazatik 329ra), gaueko harrerakoa % 24 (128 plazatik 159ra) eta egoitzakoa % 8 (695etik 753ra).

10. taula.
Gizartean baztertuta dauden pertsonak artatzeko zerbitzuetako plazen kopurua, estaldura (10.000 biztanleko) eta portzentajezko aldakuntza. Gipuzkoa, 2012/2019

		2012/01/01		2019/01/01		ALD. % 12/19
		KOP.	%	KOP.	%	
LEHEN MAILAKO ARRETA	Bazterketa egoeran dauden pertsonentzako eguneko arretako zerbitzua (1.7.2)	90	9,9	144	11,6	60,0
	Gaueko harrerarako zerbitzuak (1.8)	128	14,0	147	11,8	14,8
	Gizarte larrialdiko egoeretan arreta emateko harrera etxebizitzak (1.91.) / Bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako zaintzapeko etxebizitza (1.9.2)	261	28,6	296	23,9	13,4
	Lehen mailako arreta guztira	**479**	**52,5**	**587**	**47,3**	**22,5**
BIGARREN MAILAKO ARRETA	Gizarteratze beharrei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.3)	0	0,0	185	14,9	-
	Gizarteratze beharrei erantzuteko gaueko harrera zentroa (2.3.2)	0	0,0	12	1,0	-
	Bazterketa eta marjinazio egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroak (2.4.5)	434	47,5	457	36,8	5,3
	Bigarren mailako arreta guztira	**434**	**47,5**	**654**	**52,7**	**50,7**
GUZTIRA		**913**	**100,0**	**1.241**	**100,0**	**35,9**

Iturria: geuk egina, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioan bildutako datuetatik abiatuta. EAEko Mapako aurreikuspenen 2019ko urtarrilaren 1eko betetze maila ebaluatzeko txostena.

Gipuzkoan bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako plazak dituzten zerbitzuen estaldura tasak Arabakoekin eta Bizkaikoekin alderatzen baditugu, 2019ko datuen arabera, ikusten da Gipuzkoako guztizko estaldura Bizkaikoa baino zertxobait txikiagoa dela, eta Arabakoa baino askoz handiagoa; Arabaren kasuan, nabarmentzekoa da bigarren mailako arreta zentroen estaldura oso eskasa. Aipatzekoa da, gainera, Gipuzkoan plaza mota horien eskaintza nahiko orekatua dagoela: Arabako ereduaren (oinarrizko arretan oinarritua) eta Bizkaiko ereduaren (bigarren mailako arretara bideratuagoa) aldean, Gipuzkoako ereduak oreka handiagoa du lehen eta bigarren mailako arretako plazen artean.

Nolanahi ere, Gipuzkoan beste bi lurraldeetan baino handiagoa da egoitza zentroen estaldura, eta Bizkaian baino bigarren mailako eguneko arreta zentro gutxiago ditu, zentro horiek garrantzi berezia baitute lurralde horretan.

14. grafikoa.

Gizartean baztertuta dauden pertsonak artatzeko zerbitzuetako plazen estalduraren (10.000 biztanleko) alderaketa lurraldeka. EAE, 2019.



Iturria: geuk egina, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioan bildutako datuetatik abiatuta. EAEko Mapako aurreikuspenen 2019ko urtarrilaren 1eko betetze maila ebaluatzeko txostena.

b] *Gizarteratzeko gizarte zerbitzuetako gastu publikoa % 65 handitu da, eta hazkundea bereziki nabarmena izan da bigarren mailako arretako zerbitzuetan.*

EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazio Txostenaren arabera, 2012an Gipuzkoan 2,4 milioi euro bideratu ziren, guztira, gizarteratze arloko lehen mailako arretako gizarte zerbitzuetara, eta 5,7 milioi, berriz, bigarren mailako gizarte zerbitzuetara; hau da, guztizko gastua 8,2 milioikoa izan zen. 2019an, 13,5 milioi euro gastatu ziren guztira, hau da, % 65eko hazkundea izan zen. Lehen mailako arretako udal gastua % 28 hazi da, eta bigarren mailako arretako foru gastua, berriz, % 82 handitu da, 5,3 milioi gehiago gastatu baitira. Gastu gehikuntza hori bigarren mailako eguneko baliabide berriak sortu direlako eta egoitzetarako gastua indartu egin delako gertatu da. Lehen mailako arretari dagokionez, eguneko arreta zerbitzuetara bideratutako gastuaren hazkundea neutralizatu egin da gaueko harrera zentroetara bideratutako gastua murriztuta.

11. taula.

Gizartean baztertuta dauden pertsonak artatzeko plazak dituzten zerbitzuen gastu korronte publikoaren bilakaera. Gipuzkoa 2012/2019

		2012	2019	ALDAKUNTZA
ABSOLUTUAK	Lehen mailakoa	2.493.885	3.198.464	28,3
	Bigarren mailakoa	5.707.427	10.389.149	82,0
	Guztira	8.201.312	13.587.613	65,7
BANAKETA (%)	Lehen mailakoa	30,4	23,5	-22,6
	Bigarren mailakoa	69,6	76,5	9,9
	Guztira	100,0	100,0	0,0

Iturria: geuk egina, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioan bildutako datuetatik abiatuta. EAEko Mapako aurreikuspenen 2019ko urtarrilaren 1eko betetze maila ebaluatzeko txostena.

Gastuaren hazkunde erritmoan dauden aldeen ondorioz, nabarmen aldatu da baliabide desberdinek gastu osoan duten pisua. Hala, lehen mailako arretako zerbitzuak gastu publikoaren % 30,4 ziren 2012an, eta % 23,5, aldiz, 2019an; bigarren mailako arretako zerbitzuak gastu publikoaren % 69,6 izatetik % 76,5 izatera pasatu dira. Gizarteratzeko egoitza zentroek hartzen dute, oraindik ere, gastuaren zati handiena, baina horien pisua zertxobait txikitu da.

Azkenik, hurrengo grafikoak alderatu egiten du biztanleko zer gastu publiko bideratu duten EAEko hiru lurraldeek 2019an bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako Zorroko zerbitzuetara. Grafikoak agerian uzten du, alde batetik, gastu hori antzekoa dela hiru lurraldeetan, baina gastu horren egitura oso desberdina dela: Araban pisu handiena lehen mailako arretak du, eta Bizkaian, bigarren mailakoak; Gipuzkoan, berriz, egoera orekatuagoa da. Bilakaerari dagokionez, epe horretan gehien hazi den gastu mota Gipuzkoako bigarren mailako arreta zerbitzuena izan da (foru eskumenekoak), eta gastua % 50,2 handitu da.

15. grafikoa.

Lurralde bakoitzeko biztanleko gastua bazterketan eta aldakuntza (%), arreta mailaren arabera. EAE, 2012/2019



Iturria: geuk egina, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioan bildutako datuetatik abiatuta. EAEko Mapako aurreikuspenen 2019ko urtarrilaren 1eko betetze maila ebaluatzeko txostena.

[02.2.2]
Arreta plazen eta gastu publikoaren bilakaera gizarte bazterketaren esparruan.

Arestian aipatutako moduan, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen inkestaren datuek ez dituzte argi eta garbi bereizten zorro mota desberdinak eta ez dute ahalbidetzen behar bezala bereiztea lehen mailako eta bigarren mailako arreta zerbitzuak. Alabaina, informazio garrantzitsua ematen dute egoitza plazen eta eguneko arretako plazen igoerarekin lotuta, Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluaziotik eratorritako datuak osatzen baitituzte.

GZGEEren datuekin bat, 2019an Gipuzkoan 1.898 eguneko arretako eta egoitza plaza zeuden gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan zeuden pertsonentzat; egoitza plazek pisu askoz ere handiagoa izanik (% 85), eguneko arretako plazen aldean. Zehazki, GZGEEren arabera, Gipuzkoak 2019an 1.613 egoitza eta ostatu plaza zituen gizarte bazterketaren arloan, hau da, 22,3 plaza 10.000 biztanleko (2015ean ‰ 16,5ekoa zen). Eguneko arretako zerbitzuen kasuan, plazen igoera egoitza zentroen kasuan bezain handia izan ez arren, 2015etik 2019ra 223 izatetik 285 izatera igaro dira, eta 10.000 biztanleko 3,1 plaza izatetik 3,9 izatera.

16. grafikoa.
Eguneko arretako eta egoitza arretako plazen kopuruaren bilakaera Gipuzkoan, 2012/2019.

Iturria: geuk egina, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioan bildutako datuetan oinarrituta. 2019ko urtarrilaren 1ean EAEko Maparen aurreikuspenen betetzearen ebaluazio txostena.

Halaber, GZGEErekin bat etorrita, Gipuzkoan gizarte zerbitzuetako gastu publikoa gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonentzat 2019an 38 milioi eurokoa zen, hots, biztanleko 53 eurokoa. 2019an Gipuzkoan gizarte zerbitzuetara bideratutako gastu arrunt osoaren % 4,8. 2015 eta 2019 artean, gastu osoa % 30 igo zen, eta biztanleko gastua % 24, gizarte zerbitzuetako gastu osoarekin bat etorrita; hain zuzen, denbora tarte horretan % 25 igo da Gipuzkoan.

Gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako gizarte zerbitzuetako gastu publikoan sartzen da foru aldundien gastua eta udalen gastua. Administrazio maila bakoitzak biztanleko egiten duen gastua aztertuz gero, ikus daiteke foru aldundien gastua 14,2 eurokoa izan zela 2018an; aldiz, udalen gastua 4,4koa izan zen, hau da, gastu osoaren % 25 ingurukoa. Alderaketa eginez gero, Gipuzkoak gizarteratzeko gizarte zerbitzuetan egindako gastua (eurotan biztanleko) Arabakoaren antzekoa da, baina Bizkaiko gastua baino askoz ere txikiagoa. Halaber, Gipuzkoan txikiagoa da gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako gizarte zerbitzuetara bideratzen den gizarte zerbitzuetako guztizko gastuaren ehunekoa.

GZGEEren datuak alde batera utzita, EUSTATen Gizarte Babesaren Kontuak aukera ematen du gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei zuzeneko arreta emateko zerbitzuetan egiten den

gastua alderatzeko, bai EAEko hiru lurraldeetan, bai EBko gainerako herrialdeetan. Estatistika horretan kontuan hartzen diren zerbitzuak eta baliabideak beti berdinak ez badira ere, mota horretako baliabideetan Gipuzkoako biztanleko gastua (65 euro 2018an) Europako handienen artean dago, eta 28en EBko batezbestekoaren (45 euro biztanleko) eta Espainiako gizarte babesaren sektore horretan egindako gastuaren (26 euro biztanleko) gainetik.

[02.3]

Elkar-EKIN Gipuzkoako I. Gizarteratzeko Planaren balorazioa eta II. Gizarteratzeko Planerako proposatutako orientazioak.

Planaren ebaluazio prozesuaren helburuetako bat zen inplikatutako agenteek planaren garapenari eta emaitzei buruz duten ikuspegia jasotzea. Ebaluazioan agente horien ikuspuntua jaso da, nahikoa bereizitako hiru gairi dagokienez: a) Planaren diseinua, garapena eta inpaktua baloratzea; b) lurraldean gizarteratzearen arloan dauden premia berriak (bai biztanleriarenak, bai arreta sarearenak); eta c) datozen urteetan Plana birbideratzeko jarraibide edo ildo orokorrak.

Metodologiaren atalean azaldu den moduan, inplikatutako agenteei kontsulta egiteko prozesuari 2020ko abenduan ekin zitzaion, eta oinarrizko bi teknika edo ikuspegitan gauzatu zen: galdetegi bana bidali zitzaien Gipuzkoako udaletako oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzari eta bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen sareko erakunde, zentro eta programa bakoitzari; eta elkarrizketa sakonak egin zitzaizkien guztira 35 pertsonari, arreta sarearen egoera eta/edo artatutako biztanleriaren beharrizanak ezagutzen dituztenei. Jarraian, aipatutako ikerketa tresnak aplikatzearen ondoriozko emaitza nagusiak laburbilduko ditugu.

[02.3.1]
Planaren balorazio orokorra.

Ebaluazioan parte hartu duten erakunde eta pertsonei bidalitako galdetegiak Planaren diseinuari, garapenari eta inpaktuari buruzko zortzi galdera zituen, 1-5 arteko eskala batean planteatuta. Galdera horiei emandako puntuazioen batez besteko balioa 3,02koa da; hortaz, ondoriozta daiteke inplikatutako pertsonek Planari buruz eginiko balorazio orokorra ez dela ez bereziki negatiboa, ez bereziki positiboa. Hobekien baloratutako alderdia ardatz estrategikoen eta jarduketa ildoen egokitasunari dagokiona da (5etik 3,7 puntu); aldiz, balorazio txarrena jaso duena beste ongizate sistema batzuekiko koordinazioarekin lotutako da (2,7).

17. grafikoa.
Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko Plana baloratzeko galdetegiko 8 galderen batez besteko puntuazioa
1-5 arteko eskala



Iturria: geuk egina, jasotako galdetegietan oinarrituta.

Balorazio horietatik harago, kontsultatutako agenteek uste dute Plana lantzea eta onartzea dela planaren indargune eta ekarpen nagusietako bat. Kontsultatutako pertsonen iritziz, Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko Plana izateak ahalbidetu du, ildo horretan, sareko baliabideak eta agenteak bildu eta antolatzea, bai eta gizarte inklusioaren esparruan sortzen ari diren premietako batzuk lantzea ere. Kontsultatutako pertsonentzat, Planak gizarteratzea eztabaida tekniko eta politikoaren erdigunean jartzen lagundu du, gizarte zerbitzuen sektore horri nolabaiteko duintasuna emanez eta Zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren garapena ikusgai jarriz.

Planaren kudeaketari eta garapenari dagokionez, ondoren baloratutako bigarren alderdia erakundeak Planarekin bat etortzea da (5etik 3,1 puntu). Gainera, erakunde eta instituzio askoren komunikazio ahalegina, parte hartzea errazteko interesa eta inplikazioa baloratu dira. Aitzitik, alderdi negatiboenetan, bi elementu nabarmentzen dira:

→ Erakundeen funtzionamenduan aldaketak egiteko zailtasuna, bai eta horiek Planarekin bat egitekoa ere, bereziki udalen kasuan.

→ Planaren komunikazioaren eta haren inguruko partaidetzaren intentsitate, konstantzia eta kontzepzioa bera -pasibo samarra-, azken urteetan, gainera, gainbehera joan dena.

Hori horrela, sistemaren barne egituraketan agenteen arteko koordinazioaren inpaktuari buruz galdetutakoan, 5etik 2,9 puntu jaso dira; hortaz, ondorioztatu daiteke egituratze horrek hobetu beharreko alderdia izaten jarraitzen duela. Alderdi horrekin lotuta, ebaluazioaren ondorio nagusiek elementu hauek nabarmentzeko aukera ematen dute:

- Baloratzeko eta baliabideak eskuratzeko prozesuetan izandako aurrerapenak.
- Koordinazioan eta kohesioan izandako aurrerapenak, batik bat, hirugarren sektoreko erakundeekin.
- Lurralde ikuspegitik lidergoan izandako aurrerapenak, oraindik nahikoa ez badira ere.
- Lehen eta bigarren mailen arteko zereginen mugaketari eta arretaren jarraitutasunari buruzko arazoek bere horretan jarraitzea.
- Eguneroko bizitzako hainbat arlo edo kontingentziatan arazoak metatzen dituzten pertsonei arreta egokia emateko zailtasunak.

Taula honetan jasotzen dira labur-labur Planaren diseinuari, garapenari eta inpaktuari buruzko indargune eta gabezia nagusiak.

1. koadroa.
Planaren indargune eta gabezia nagusiak.

INDARGUNEAK	• Plana bera onartzea, sektorea antolatzeko tresna gisa eta inklusioaren arloa agenda tekniko eta politikoaren erdigunean jartzeko tresna gisa. • Akordioak bilatzea eta lankidetzazko gobernantza baten alde egitea, zeharkako ikuspegi integratzailea izanez: GFAren zeregina ulertzeko modua aldatzea, tokiko errealitateei dagokienez (mikro eta makro mailan). • Gainerako agenteen parte hartzea eta komunikazioa hobetzeko eginiko ahaleginak. • Inklusiorako politikek oinarri dituzten esparru teoriko, kontzeptual eta filosofikoak berritzea. • Arreta hobetzean, baliabideak egokitzean, zehaztean eta hornitzean eta zerbitzuaren barne antolaketan eginiko aurrerapenak.
GABEZIAK	• Bazterketa egoeren edo faktoreen operatiba ez zehaztea, ezta Planak eragin nahi dituen politika publikoak ere. • Planean jasotako jarduketen zehaztapen maila eskasa. • Planean jasotako jarduketen garapenean etenak eta erritmo aldaketak. • Aurrerapen eskasak, zerbitzuak pertsonen beharrizanetara egokitzeari dagokionez. • Aurrerapen eskasak, lehen eta bigarren mailako arretaren koordinazioan, eta lurraldeko lidergo gaitasunean. • Gabeziek bere horretan irauten dute beste sistema batzuekiko koordinazioari dagokionez, bereziki etxebizitza sistemarekin lotuta.

Iturria: geuk egina, jasotako galdetegietan eta eginiko elkarrizketetan oinarrituta.

Beste ongizate sistema batzuekiko koordinazioari dagokionez, galdeketa egin zaien pertsonen % 67k uste dute etxebizitzarekiko koordinazioa txarra dela (5etik 2,16 puntu). Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Planak garrantzia ematen dion arren etxebizitza bazterketako egoerei etxebizitza sistematik eta eredua etxebizitzan ardaztuago dauden beste eredu batzuetara aldatzeari, Donostian abian jarritako Habitat proiektu pilotutik harago, egindako elkarrizketetatik ondorioztatzen da ez dagoela aurrerapenik arlo horretan, eta etxebizitza sistemak baliabideak ez hornitzeak gizarte bazterketako eta egoitza bazterketako egoeran dauden pertsonengan eragin negatiboa duela.

18. grafikoa.
Galdetegien banaketa, beste ongizate sistema batzuekiko koordinazioari emandako balioaren arabera (%)



Iturria: geuk egina, jasotako galdetegietan oinarrituta.

Badirudi planak eragin txikia izan duela, halaber, gizarte zerbitzuen eta osasun zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzean; hortaz, gaixotasun mentalak dituzten pertsonen arreta da, oraindik ere, arreta sistemaren gabezia nagusietako bat. Donostialdea ESIarekin edo Osasun Mentaleko Sarearekin lankidetzan aritzea puntu positiboa da Planean, baina ez du ahalbidetu elkarrizketa espazio normalizatuak, iraunkorrak eta egituratuak sortzea.

Kontsultatutako pertsonek adierazitako iritziaren arabera, aurrerapen handienak diru sarrerak bermatzearen eta enpleguaren esparruan eman dira, eskualdeko garapen agentziekin koordinazio prozesuak garatu direlako. Arestian aipatutako moduan, aurrerapen horiek Elkar-EKIN Lanean estrategiaren inguruan gauzatu dira.

Planaren hedapenari dagokionez, ardatzei oro har emandako batez besteko puntuazioa 5etik 2,9koa da. Puntuazio altuenak (3,09 eta 3,01) 1. ardatzari (arreta hobetzea) eta 3. ardatzari (lankidetza, gobernantza eta berrikuntza) dagozkie, hurrenez hurren. Aldiz, puntuazio baxuenak 4. ardatzari (zeharkako prozesuen garapena) eta 5. ardatzari dagozkie, bereziki herritarren sentsibilizazioan izandako aurrerapen eskasari dagokionez. Nolanahi ere, ardatzen arteko aldeak ez dira oso handiak, eta balorazio positiboa egin da oro har, nahiz eta ez den oso gogotsua.

Ikuspuntu kualitatibotik, aurrerago azalduko den moduan, iritzia eman dutenak ados daude, oro har, adierazi dutelako Plana abian jartzearen ondorioz aurrerapauso garrantzitsuak eman direla –arlo batzuetan beste batzuetan baino gehiago, jakina–. Halaber, aipatu dute aurrerapen horiek ez direla nahikoak izan eta partzialak izan direla, batez ere Planaren potentziala eta beharren nolakotasuna kontuan hartuta.

19. grafikoa.
Galdetegien banaketa, Planaren ardatz estrategiko bakoitzaren gauzatze mailari emandako balioaren arabera (%)



Iturria: geuk egina, jasotako galdetegietan oinarrituta.

Planak bere helburuen artean ezartzen zuen programen lurralde estaldura bermatzea. Galdetegien erantzunak oinarri hartuta, ez dirudi aurrerapauso handirik eman denik ildo horretan, nahiz eta egiaztatu den Planak aukera eman duela hedapen hori egiteko prozesu bati ekiteko. Galdetegi guztiak aztertuz gero, *grosso modo* ikusten da erantzunen ia erdiek adierazi dutela zenbait aurrerapauso eman direla, laurden batek adierazi du aurrerapauso garrantzitsuak eman direla eta beste laurden batek aurrerapenak oso txikiak izan direla (batez besteko puntuazioa 5etik 2,9koa da).

Hauek dira ebaluazio prozesuan adierazi diren zailtasun batzuk, baliabideak zuzen eta ekitatiboki hedatzeko:

- Mekanismorik ez izatea udal titulartasuneko eta udalaz gaindiko eskualdeko ekipamenduak sustatzeko.
- Baliabideak udalerri jakin batzuetan kontzentratzea, hala nola Pasaian edo Donostian.
- GFAk eskualde batzuek benetan behar dituzten baliabideei buruzko ezagutza eta baliabideen irekierari buruzko komunikazio kanalak hobetzeko aukera.
- Arkitektura ekipamendu egokia duten azpiegituren eta etxebizitza erabilgarrien arazoak.
- Zailtasunak eta/edo udalen proaktibitate eta borondate politiko eskasa Zorro Dekretuan jasotako lehen mailako arretako baliabideak garatzeko.

Galdetegietan, Planak inklusiorako gizarte zerbitzuen funtzionamendua zer neurritan hobetu duen baloratzeko eskatu zitzaien kontsultatutako pertsonei. Galdetegi gehienek, % 55,4k zehazki, hobekuntza ertaina adierazi dute, nahiz eta % 25ek hobekuntza nahikoa izan dela adierazten duten; % 19k, berriz, adierazi du hobekuntza txikia edo oso txikia izan dela.

Egindako elkarrizketek ikuspegi anbibalente hori berresten dute. Ebaluazio horren ondorioak balantzan jarriz gero, zati positiboan lau ideia nabarmenduko lirateke:

- Aurrerapenak esparru teorikoko sare eta esku hartzeko eredu komun bat hedatzean, gutxienez ikuspuntu diskurtsibo, kontzeptual edo filosofikotik.
- Inklusiorako bigarren mailako arreta zerbitzu eta baliabide batzuk berrantolatzea eta birdefinitzea.

- Diagnostiko eta balorazio tresnak era sistematikoagoan aplikatzea, eta horien ondorioak.

- Lankidetzazko gobernantza eredu bat onartzea eta elkarrekiko lankidetza irizpideak dituen hobeto integratutako eta egituratutako sare bat eraikitzean izandako aurrerapenak, partzialak izan arren.

Aitzitik, alderdi negatiboen artean hauek azpimarratuko lirateke:

- Oraindik ere sistemaren barne artikulazio eskasa izatea, batez ere lehen mailako eta bigarren mailako arretaren arteko funtzioak mugatzean.

- Baliabideen eraketan aurreikusitako aldaketak egiteko moteltasuna.

- Zerbitzuen edukiaren egokitasun eskasa maila operatiboan, erabiltzaileen beharrekin lotuta.

[02.3.2]
Erronka eta orientazio nagusiak II. Plan bati begira.

Ebaluazioan, kontsultatutako pertsonei proposatu zitzaien beren ikuspegia planteatzea II. plan honek kontuan hartu behar dituen erronkei eta orientazioei dagokienez, eta, zehazki, COVID-19ak inklusio prozesuetan eta zerbitzuen sarean duen eraginari buruzko iritzia ematea. Hain justu, hemen laburbildu dira planteatutako gogoetak:

- Pandemiak, oro har, gizarte bazterketan dauden pertsonengan eragina izan badu ere, badirudi prekarietate eta hauskortasun egoeran zeudenei eragin diela nagusiki. Horrenbestez, COVID-19ak agerian utzi du familia askoren hauskortasuna krisiaren aurretik, eta distantzia txikia dagoela bazterkeria egoera larrienetatik bereizteko.

- Jasotako iritzien arabera, herritarrengan izandako eragin handienak honako hauei dagozkie, hurrenkera honetan: bakardade eta isolamendu egoerak areagotzea; arrakala digitala; lan baldintzen prekarizazioa; osasun mentaleko arazoak larriagotzea; baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea; eta etxebizitza eskuratzeko eta/edo mantentzeko arazoak.

- Erakundeen funtzionamenduaren ikuspegitik, inpaktu handienak hauek dira, besteak beste: gainkarga profesionala; eskariaren igoera; beste ongizate sistema batzuekiko koordinazio arazoak; eta langile hornidura eskasa.

- Gainera, COVID-19ak ikusarazi egin du, entitateen eta inklusiorako gizarte zerbitzuen sarearen funtzionamenduari dagokionez, sistemarik edo sarerik ez izatea, eta arreta sistemaren prekarietatea eta egiturazko hauskortasuna (eta krisiaren aurrekoa) ikusarazi du. Halaber, zenbait administrazio prozedura geldiarazi izana eta erabiltzaileentzako erreferentziarik ez izatea jarri du ikusgai, edo agerian utzi du administrazioarentzat eta/edo hirugarren sektoreko beste erakunde batzuentzat neurri batean ikusezinak diren bazterketa taldeak daudela.

Kontsultatutako pertsonen arabera, Gizarteratzeko II. Planak herritarren beharrizan edo gizarte egoera hauek izan behar ditu ardatz:

2. ilustrazioa.
Lehentasunezko arretako gizarte egoerak (maizen aipatzen direnak)

Iturria: geuk egina, jasotako galdetegietan eta eginiko elkarrizketetan oinarrituta.

Egoera horiez gain, lehentasunez artatu beharko liratekeen beste batzuk ere aipatu dira, hala nola:

- → Sistemara sartzeko betebeharrak edo eskakizun administratiboak betetzen ez diren egoerak.
- → Atzerriko pertsonak, eta bereziki egoera irregularrean daudenak.
- → Gizarte eta/edo etxebizitza bazterketako egoeran dauden emakumeak.
- → Gizarte bazterketako egoeran dauden seme-alabadun familiak.
- → Desgaitasuna edo mendekotasuna duten eta bazterketa egoeran dauden pertsonak.
- → Epe luzerako enplegagarritasunerako zailtasunak dituzten pertsonak.
- → Enplegagarritasun aukerak dituzten eta bazterketa arriskuan dauden pertsonak.

Kontsultatutako pertsonen arabera esku hartzeko arlo arazotsuenak identifikatzearen ikuspegitik, maizen aipatzen den arazoa beste sistema batzuekiko koordinazioa da, eta, ondoren, zerbitzuen edukia pertsonen beharretara egokitzea eta lehen mailako eta bigarren mailako arretaren funtzioak mugatzea. Aldiz, gutxien aipatzen direnak kontzeptu eta filosofia esparruarekin, sareko profesionalen prestakuntzarekin eta haien lan baldintzekin lotutakoak dira.

20. grafikoa.
Gehien aipatutako erronkak eta beharrak (aipamenen %)

Iturria: geuk egina, jasotako galdetegietan oinarrituta.

Grafiko horretan ikus daitekeen moduan, gehien eskatzen diren baliabideak honako hauek dira, hurrenez hurren: gizarte eta hezkuntzako esku hartzea eta esku hartze psikosoziala, bai lehen mailako arretan (1.3.), bai bigarren mailakoan (2.7.3.1.); laneratze programak (% 13,9), eta bigarren mailako arretako egoitza zentroak (% 12,5). Oinarrizko gizarte zerbitzuek eta lehen mailako arretako tutoretzapeko etxebizitzek, bestalde, aipamenen % 8,6 jaso dituzte. Gainerako zerbitzuak ez dira hain maiz aipatu. Zentro okupazionalak eta, are gehiago, bazterketa egoeran dauden pertsonentzako gizarteratze enpresak -desgaitasuna duten pertsonetatik harago- funtsezkotzat jotzen dira, kontuan hartuta bazterketa larriko kasu jakin batzuekin nekez landu daitekeela epe labur eta ertaineko eta, kasu batzuetan, epe luzeko enplegu arrunta lortzeko aukera.

21. grafikoa.
Agenteen arabera sortu edo indartu beharko liratekeen gizarte inklusioko sistemaren prestazio eta zerbitzuak (aipamenen %).

Iturria: geuk egina, jasotako galdetegietan oinarrituta.

Ardatz, helburu eta ekintza ildoei dagokienez, lehentasun hauek aipatu dira funtsean:

- Baliabideen sarea berrantolatzen eta egituratzen aurrera egiten jarraitzea.
- Bazterketa arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako aukerak biltzea eta enplegu aukerak sortzetik harago joan daitezela lortzea.
- Gizarte eta etxebizitza bazterketako egoeren prebentzioa sustatzea, prebentzioaren potentzialtasuna agerian jarri den egoeretan (familiak, gazteak...).
- Eskualde mailako elkarrizketarako eta plangintzarako espazioak edo udalaz gaindiko egiturak bultzatzea, koordinazio eta lidergo espazio gisa, talde txikiz osatutako erakunde desberdinetako ordezkariekin.
- Erabiltzaileak Planaren diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan sartzearen alde egitea.
- Foru erakundearen barruan erreferentzia teknikoko figurak sortzea eskualdeentzat, horiei laguntza handiagoa ematea bermatu ahal izateko.
- Arretaren koordinazioa eta jarraitutasuna hobetzea, integrazio bertikalen bidez (gizarte zerbitzuen barruan), lehen mailako eta bigarren mailako arretako zerbitzuak elkarrekin emateko, gutxienez, eskualde mailako irismena duten zerbitzuetan.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren lidergoa hobetzea eskualde mailan, eta foru erakundearen zeregina zerbitzu jakin batzuk emateko (hala nola esku hartze komunitariokoak) udalei laguntzen dien figura gisa proposatzea.

- Kaiser piramidearen eredua bultzatzea (konplexutasun mailaren araberako estratifikazioa eta esku hartzea) eta zerbitzuen pertsonalizazioa indartzea.

- Baterako prestakuntza eta gogoeta guneak sustatzea, zerbitzuen edukia arreta eredura eta pertsonen beharretara egokitzeko.

- Foru erakundeak udalerriei eta eskualdeei laguntzea beren eskumeneko baliabideak sortzeko prozesuetan eta zailtasunetan, lehen mailako arretako ostatu zentroetako plazen hornidura sortzea edo handitzea lehentasun garrantzitsua den neurrian (bereziki, etxebizitza komunitarioak eta tutoretzapeko apartamentuak).

- Gizarte eta hezkuntza arloko esku hartze taldeak eta gizarte laguntza indartzea, eta, ahal den heinean, zerbitzu horren definizioa lehen eta bigarren mailako arretaren artean modu integratuan bultzatzea.

- Aktibazio komunitarioa eta baliabide komunitarioen aprobetxamendu handiagoa sendotzea, bigarren mailako arretak lehen mailako arretaren garapena sustatuz eta lagunduz.

- Ebidentzia zientifikoa sortzea, Planean garatutako jarduketak ebaluatuz eta bazterketarekin lotutako egoerak aztertuz eta ikertuz.

- Ezagutzaren baterako sorkuntza indartzea, sareko agenteak Planaren esparruan garatutako jarduketen ebaluazioan inplikatuz artatutako pertsonen premiei dagokienez.

- Esku hartzearen xede diren egoeretan Planak duen inpaktua neurtzea erraztea, eta horretarako, inpaktuaren jarraipena egitea ahalbidetuko duten adierazleak ezartzea.

- Bigarren mailako arretako kudeaketa unitateek ematen dituzten zerbitzuak kontrolatzeko eta gainbegiratzeko mekanismoak garatzea, arretaren kalitatea bermatzeko.

Azkenik, Gipuzkoako Gizarteratzeko II. Planaren bereizgarri izan behar duten oinarrizko elementuei dagokienez, egindako elkarrizketetatik, batetik, iritzi anbibalenteak eragiten dituzten elementuak eratortzen dira, eta, bestetik, nolabaiteko adostasuna dutenak. Itxuraz adostasun orokorrik ez duten alderdiak planaren izaerarekin lotuta daude: gizarte zerbitzuetatik at dauden beste esparru batzuen inplikazioa, lotura maila... Alabaina, adostasuna dagoela esan daiteke Planak izan beharko lituzkeen ezaugarri edo atributu batzuk definitzean: zehatza eta operatiboa, parte hartzailea eta lankidetzakoa, kontinuista, erakunde artekoa, zeharkakoa, beharren estratifikazioan oinarritua, trakzio proiektuetan oinarrituta, eraldatzailea, malgua eta zuzkidura ekonomiko espezifikoduna.

[02.3.3]
Diagnostikoaren elementu nagusiak.

Egindako diagnostikotik eratortzen diren elementu nagusiak jaso dira jarraian. Gizarteratze eta gizarte bazterketako prozesuen ikuspegitik Gipuzkoako herritarren beharrizanei dagokienez, elementu hauek azpimarratu behar dira:

- Lan merkatuarekin lotutako adierazleak hobetzea, besteak beste soldata desberdintasunarekin lotutakoak.

- Diru sarrerak bermatzeko prestazioen eskaera murriztea; horrek adieraz dezake biztanleriaren premiak murriztu direla pobreziaren eta diru sarrerak bermatzearen arloan.

- Aurrekoa gorabehera, gorakada nabarmena izan da pobrezia, bazterketa eta desberdintasun egoeretan, eta hori nabarmenagoa izan da Gipuzkoan EAEko beste lurraldeetan baino; izan ere, neurri batean, Gipuzkoa aurreko urteetan egoera positiboagoa izatetik abiatu da.

- Pobrezia eta desberdintasun egoerak okerragotzea biztanleria gehienaren diru sarreren hazkunde erlatiboki handiarekin lotzen da, hazkunde askoz txikiagoen aldean -negatiboak barne- diru sarrera gutxien dituztenen kasuan.

- Prestazioen aurretik pobrezia handitzearekin ere lotzen da -hau da, laguntza prestazio ekonomikoek merkatuak sortzen dituen pobrezia primarioaren tasak murriztu aurretik-. Hori, funtsean, errenta txikienak dituzten taldeen soldatak eta/edo lan intentsitatea murriztearekin dago lotuta. Pobrezia primario hori txikiagotzeko gaitasunaren murrizketa gehitu behar zaio horri, laguntza prestazio ekonomikoen bidez.

- Etxe gabeko pertsonen kopuruaren igoera nahiko handia, edo, gutxienez, pertsona horien ikusgarritasun handiagoa; hein batean pandemian sortu berri diren baliabideetan hartutako konfinamendu neurriei zor zaie.

- Gaixotasun eta nahasmendu mentalen prebalentzia nabarmen handitzea, neurri batean pandemiaren ondorio sanitario, ekonomiko, sozial eta emozionalengatik.

- Beharrizan konplexuak dituzten pertsonen kopuruak gora egitea, sarri hainbat sistemak esku hartzea behar duten eta egoera espezifikoki lantzea behar duten hainbat arazo konbinatzeagatik.

- Horrez gainera, lurraldera iristen diren etorkinen kopuruak gora egin du, batez ere 2015 eta 2020 artean. Migrazio fluxu horiek aldatzen ari dira, bai COVID19ren pandemiaren ondorioz, bai, berrikiago, Europako Ekialdeko gerraren ondorioz.

- Elementu horiekin batera, nabarmentzekoa da etxebizitza eskuratzeko kostuen igoera, dela alokairuan, dela jabetzan. Eta, bereziki, oinarrizko horniduren (elektrizitatea, gasa, ura) kostuaren igoera, prezioen hazkunde nabarmenaren testuinguruan.

Baliabideen sareari dagokionez, oinarrizko ondorio hauek azpimarratu behar dira:

- Lehen eta bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen arteko koordinazioa eta arretaren jarraipen arazoak, eta Gizarte Zerbitzuen zorroan aurreikusitako ekipamenduak bultzatzeko zailtasunak, batez ere lehen mailako arretaren eremuan eta eskualde jakin batzuetan.

- Gizarte zerbitzuen esparruan, arreta maila bakoitzak bere egoeraren konplexutasunaren arabera erantzun behar dien kolektibo eta beharrak behar bezala estratifikatzeko zailtasunak.

- Gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko eta esku hartze psikosozialeko zerbitzu nahikoa trinkoak eskaintzeko zailtasuna, egoitza edo eguneko arretako zentroetatik harago.

- Gizarte Zerbitzuen sare publikoa osatzen duten erakunde guztiek arreta eredu komun bat ezartzeko zailtasunak, bai lehen mailako arretan, bai bigarren mailako arretan.

- Zailtasunak gainerako ongizate sistemekin koordinatzeko eta sistema horiek gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen beharrizan espezifikoak kontuan har ditzaten beren zerbitzuak diseinatzean, planifikatzean eta ematean.

- Diru sarrerak Bermatzeko Errenta nahikoa ez izatea, bereziki kolektibo jakin batzuetarako aurreikusitako zenbatekoei dagokienez, eta zailtasuna prestazioa jasotzen duten pertsona askori laguntza eta babes zerbitzu egokiak eskaintzeko.

- Arazo konplexuak dituzten eta/edo gizarte zerbitzuetara iristeko baldintzak betetzen ez dituzten (askotan administrazio erregularizazioarekin lotutako arrazoiengatik) eta behar dituzten zerbitzuak jasotzen ez dituzten biztanle talde nahiko handiak egotea.

[03.]

Gizarteratzeko II. Planaren oinarrizko ezaugarriak: arau esparrua, irizpide orokorrak eta arreta eredua.

Aurreko orrialdeetan proposatutako diagnostikoa oinarri hartuta, kapitulu honetan Gipuzkoako Gizarteratzeko II. Planaren oinarrizko ezaugarriak jasotzen dira, abiapuntuko esparru estrategikoari eta arau esparruari, irizpide orokorrei edo printzipio gidariei eta oinarri duen arreta ereduari dagokienez. Horrela, kapitulua hiru atal handitan egituratu da:

- → Batetik, Planaren arau esparrua eta esparru estrategikoa ezartzen da; hainbat planek, estrategiek eta antolakuntza eta erakunde aldaketek zehazten dute, eta horiek nahitaez hartu behar dira kontuan Plana garatuko den egoera testuinguruan jartzeko.

- → Bestetik, Planaren sostengu diren irizpide orokorrak edo printzipio gidariak zehazten dira; Planaren izaerari dagokionez onartu diren aukerei buruzkoak dira, Gipuzkoan gizarteratzeko politiken gobernantzaren ikuspegitik.

- → Azkenik, Planaren oinarri den arreta eredua ezartzen da; funtsean Planak aurreikusten dituen gizarteratzeko politiken kontzepzioari eta politika horiek garatzeko bultzatu nahi diren jarduketa motei buruzkoa da.

[03.1]

Arau eta estrategia esparrua.

Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko II. Planak kontuan hartzen ditu azken urteotan gizarte bazterketaren aurkako euskal politiken egituraketan izan diren aldaketak, bai eta hainbat eremutan garatzen joan diren plangintza tresnak ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiak gobernantza eredu berri bat jarri du abian *Etorkizuna Eraikiz* ekimenaren esparruan, eta abian jartzeko prozesuan izandako ikaskuntza nabarmenen artean daude lidergo partekatua eraikitzea eta entzute prozesuak sortzea, legitimazio iturri gisa. Halaber, Aldundiak 2020-2023 Plan Estrategikoa du. Plan horren abiapuntua da "Gipuzkoak Europako desberdintasun maila txikieneko erkidegoa izan nahi duela".

Nazioartean, Nazio Batuen garapen jasangarrirako helburuak (GJH) oinarrizko erreferentzia dira Plana garatzeko, bereziki honako hauei dagokienez: 1. helburua (Pobreziaren desagerraraztea), 2. helburua (Goserik ez), 3. helburua (Osasuna eta ongizatea), 5. helburua (Genero berdintasuna), 8. helburua (Lan duina eta hazkunde ekonomikoa) eta 10. helburua (Desberdintasunak murriztea).

Oinarrizko erreferentzia horiekin batera, Plana idazteko plan, arau garapen eta jarduketa hauek hartu dira kontuan:

a] *Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren Agenda Gipuzkoa 2020>2030*

Gipuzkoako Lurralde Historikoa gizarte politikako hainbat jarduera garatzen ari da 2015etik, honako hauek sustatzeko: gizarte berrikuntza, berrikuntza publikoa, elkarlaneko gobernantza, arreta eta zaintza ereduaren eraldaketa eta gizarte zerbitzuen kalitatea bermatzeko sistema. COVID-19aren pandemia inflexio puntu bat izan da Gipuzkoako gizarte zerbitzuen ibilbidean. Sistemaren ahulezia batzuk ikusita, hala nola koordinazio soziosanitarioko zailtasunak, etxeko arreta indartu beharra, lan baldintzak hobetu beharra, zainketa eredu berrien prestakuntza bultzatu beharra, eta egoitza zentroetan berrikuntzak duen garrantzia, besteak beste, nabarmendu da pertsonak eta horien harremanak ardatz dituen arreta, zaintza eta laguntza eredu

bateranzko trantsizioa sustatzearen garrantzia, zainketarako tokiko ekosistemak indartuz. Horrela, trantsizioko gizarte politikek Gipuzkoa Zainketa Lurralde bihurtu nahi dute. Zainketen lurraldea prozesu bateratuen multzo baten emaitza da. Prozesu horiek ezaugarri hauen arabera defini daitezke.

Zainketen lurralde bateranzko trantsizioa bultzatzeko, Gizarte Politiketako Departamentuak (Gipuzkoako Foru Aldundia) abian jarri du Gipuzkoa 2020>2030 Agenda: Trantsizioko Gizarte Politikak. Gipuzkoa 2020>2030 Agendak arreta eta zaintza eredua errotik eraldatzea proposatzen du Gipuzkoako gizarte politika guztietarako, kontuan hartuta lurraldearen erronka handienetako bat trantsizio demografikoarekin lotuta dagoela. Gipuzkoa 2020>2030 Agenda: Trantsizioko Gizarte Politikak ahalegin kolektiboa da, gizarte politikak etorkizuneko palanka gisa kokatzeko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko arreta eta zaintzan eredua eraldatzea ahalbidetuko duen bidea, bidezidor bat eskaintzeko, elkarlaneko gobernantzan, gizarte esperimentazioan eta ebaluazio sistemikoan oinarrituta.

Agenda horrek Gipuzkoako gizarte zerbitzuen multzoan hainbat eraldaketa egitea proposatzen du:

- Gizarte Politika guztietarako arreta, zaintza eta laguntza eredu berri bat bultzatzea.
- Lurralde mailan elkarlaneko gobernantza indartzea.
- Esperimentazioa eta berrikuntza integratua bultzatzea.
- Zaintzak ebaluatzeko eta trantsizioko gizarte politikak monitorizatzeko eredu berri bat garatzea.

Agendan ezartzen diren eta gizarteratzeko zerbitzuetan inpaktu nabarmena izan dezaketen jarduketa zehatzen artean hauek nabarmendu daitezke:

- Zaintzaren eta zerbitzuen pertsonalizazioa sustatzea gizarte politiketan.
- Lurralde estrategia bat diseinatzea eta hedatzea etxeko arreta eta zaintzarako eredu berri batera joateko.
- Partaidetzazko ebaluazioa bultzatzea egoitza zentroetan.
- Berrikuntza eta kudeaketa aurreratua sustatzea, Gizarte Politiketako Departamentuaren lehentasunezko jarduketa esparru gisa.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte zerbitzuak sarean egiaztatzeko eta ebaluatzeko sistema bat diseinatzea eta abian jartzea.

b] *Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2030 Plan Estrategikoa*

Agenda 2020>2030 egitasmoarekin batera, II. Planak Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2030 Plan Estrategikotik eratorritako erronkak eta orientazioak jasotzen ditu; hain zuzen, plan horren helburu nagusietako bat da “Gipuzkoa eredua” indartzea. Horretarako, Planak adierazten du “lurraldearen etorkizuna elkarrekin eraikitzeko apustua egiten duela, Plan Estrategiko honen eta Etorkizuna Eraikiz programaren bidez, haiek hartzen baitira konpromiso instituzional gisa, Gipuzkoako eragileek agenda publikoari buruzko hausnarketa eta prestaketa estrategikoan parte hartzea eta lankidetzan jardutea ahalbidetzeko, guztia ere entzuteko, erabakitzeko eta esperimentatzeko dinamika berriak sortuz”. Gizarteratzeko II. Plana, beraz, Plan horrekin bat etorri beharko da, eta hark ezartzen dituen erronkei erantzun.

Taula honetan jasotzen dira erronka horietako batzuk, bereziki etorkizuneko Gizarteratzeko Planari gehien eragiten diotenak eta harekin neurri handienean bat etortzen direnak.

2. koadroa.
Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2030
Plan Estrategikoan jasotako erronken laburpena.

EREMUA	ERRONKAK
GIZARTEA	• Nola erantzun gizarte babesaren eskaria handitu izanari eta nola egin aurre gizarte bazterkeriari? • Nola bermatuko ditugu gizarte kohesioko mailak, desberdintasun eta urrakortasun egoeren aurrean? • Eta nola lagundu aukera berdintasunari eta bizikidetzari gizartearen esparru guztietan? • Nola erantzun gizarte babesaren eskaria handitu izanari eta nola egin aurre gizarte bazterkeriari? • Nola lagundu pertsonen autonomia eta norbanakoen ardura? • Nola mantendu eta indartu kooperazio, ekimen, lankidetza eta gizarte elkartasun maila, indibidualismoa eta gizarte zatiketa indartzen ari diren testuinguruetan? • Nola zabaldu elkartasun eta ardurakidetasun balioak gizartean, Gipuzkoa nazioartean lurralde solidario gisa posizionatzeko? • Nola sustatu hezkuntza, kultura eta euskara gizarte eraldaketarako motor gisa, gero eta askotarikoagoa den eta kultura aniztasun handiagoa ageri duen gizarte batean? • Zer ekarpen egin dezake aurrerapenotan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunak?
POLITIKA	• Nola parte hartu erakundeek gero eta konplexuagoak diren eta dimentsio gehiago hartzen dituzten arazoak konpontzeko (sozialak, ekonomikoak, politikoak eta abar)? • Nola bildu intentsitate handiagoz kultura eta gobernantza kolaboratzaileagoa, agertoki politiko berrian?
LURRALDEA	• Nola bildu gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lurraldeko garapen eta orekarako funtsezko elementu gisa? • Nola bermatu gure udalerri eta eskualde guztien arteko lurralde oreka, desberdintasunak gutxituta esparru guztietan (ekonomikoa, soziala, laborala, kulturala, azpiegiturak eta zerbitzuk)?

Gizarte Politiketako Departamentuaren kasu zehatzerako, Plan Estrategiko horrek erronka hauek ezartzen ditu:

- Gizarte zerbitzuen eskariaren eta eskaintzaren arteko oreka egokia topatzea.
- Egoitza arretaren estaldura eta kalitatea hobetzea mendekotasunaren eta desgaitasunaren esparruan.
- Indartzea eta hobetzea adingabeko eta bakarrik dauden gazte migratzaileentzako zerbitzuak.
- Etxeetako arreta integralaren aldeko apustua egitea eta pertsonetan eta beren inguruenean ardaztutako gizarte berrikuntzako eredu bilakatzeko apustua egitea.
- Indartzea eta hobetzea bazterkeria arriskuei aurre egiteko esku hartzeak.
- Gizarte politikak herritarren ongizatean duen inpaktu positiboari balioa ematea (enplegua, errenta, zergak), dela modu indibidualean dela gizartea osorik hartuta.

c] *Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako Zerbitzuaren barne antolakuntzan aldaketak egitea eta zerbitzu berriak eskaintzea*

Ebaluazioan adierazi den bezala, I. Planaren garapenean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruan hainbat jarduera eta antolakuntza aldaketa garatu dira gizarteratzeko gizarte zerbitzuen arloan. Jarduera eta antolaketa aldaketa horiek garatzen jarraituko dute datozen urteetan, eta, horren harira, II. Planaren edukiak zehaztuko dituzte. Ildo horretan, jarduera nagusi hauek nabarmendu behar dira:

- Gizarte bazterketako egoera aitortzeko prozedura eta bigarren mailako arretako gizarteratzeko foru sareko zerbitzuetarako sarbidea arautzen dituen Foru Dekretua onartzea laster. Erregulazio berri horrek orain arte indarrean zegoena ordezkatuko du, hau da, martxoaren 4ko 5/2014 Dekretua, bigarren mailako arretako gizarteratzeko baliabideetara sartzeko prozedura arautzen duena. Izan ere, onartu zenean, aurrerapen bat izan zen aurreko egoerarekiko, eta azken bost urteetan erregulazio esparru eraginkor gisa eratu da; nolanahi ere, gaur egun ez du eskaintzen azken urteetan, hain zuzen ere, Planaren babesean egin diren birplanteatze filosofiko, kontzeptual eta antolakuntzakotik eratorritako aldaketak txertatzeko esparru egoki edo nahikorik.

- Bigarren mailako arretaren eremuan kasu erreferentzialtasunaren eredu berri bat ezartzea. Kudeaketa eta arreta ereduaren aldaketa hori -zerbitzuak kudeatzeko eredu batetik prozesuak eta pertsonak kudeatzeko eredu batera- honako honetan datza: erabiltzaile bakoitzak foru administrazioko profesional bat izatean bere kasuaren eta ibilbidearen arduradun gisa.

- Oarsoaldean gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonentzako Eskualdeko Laguntzarako Foru Zerbitzua (ELFZ) garatzea. Azken hilabeteetan, bazterketa egoeran dauden pertsonentzako arreta anbulatorioko zerbitzua jarri da abian ingurune irekian, Oarsoaldean (Errenteria, Pasaia, Lezo eta Oiartzun). Helburu nagusia da laguntza instrumentalak, kognitiboak eta emozionalak eskaintzea eta osatzea, zerbitzuaren hartzaile izan ohi diren eta txertatuta dauden komunitate ingurunean.

- Bigarren mailako arreta sareko profesionalak trebatzeko programa bat abian jartzea, gizarteratzeko eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak artatzeko. 2022ko otsailean, berariazko prestakuntza plan bat jarri da martxan Gipuzkoako gizarteratzeko gizarte zerbitzuen sareko profesionalentzat. Plan horrek gutxienez bi urteko indarraldia izango du, eta sarean esku hartzen duten profesional guztiek gizarte zerbitzuen sare publikotik garatzen den gizarte bazterketaren aurkako esku hartze ereduari buruzko oinarrizko nozioak partekatzeko aukera emango du.

d] *Elkar-EKIN Lanean enplegagarritasun eta aktibazio inklusiborako estrategia*

Gipuzkoako Foru Aldundia kalitatezko enplegu inklusiboaren 2020-2023 estrategia garatzen ari da Elkar-EKIN Lanean lurraldean. Gipuzkoa Europako desberdintasun maila txikieneko erkidegoa izan nahi duen estrategia da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Estrategiak zehaztutako etorkizuneko ikuspegiarekin bat etorrita, eta funtsezko balioak nabarmentzen ditu, hala nola etorkizuna, lehiakortasuna, berdintasuna eta lankidetza, eta Gipuzkoak bizitzea eta lan egitea merezi duen lekua izaten jarraitzea bermatzen du.

Estrategia horrek, aurreko Elkar-EKIN Lanean 2018-2022 estrategia abiapuntutzat hartuta, arreta gunea zabaltzen du eta jarraitu beharreko lehentasun eta jarduera ildo nagusiak ezartzen ditu, lurraldeak hainbat krisi eta eraldaketatan adierazten den paradigma aldaketak planteatzen dituen erronka nagusiei aurre egin ahal diezaien, bereziki, ekonomiaren eta lan merkatuaren eraldaketarekin gehien lotutakoak eta epe ertain eta luzean antolaketa sozioekonomiko modu berriak nabarmenduz, eta, are zehatzago, egungo pandemia krisiaren testuinguruan. Hori guztia Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren esparruan, gobernantza ireki eta kooperatiboko eredu gisa, politika egiteko modu berri bat planteatzen duena, Gipuzkoako lurralde eta gizarte ezaugarriekin lotura sendoa izanez, besteak beste ekimen, truke eta lankidetzarako gaitasunak; horrela, “Gipuzkoa eredua” indartzen laguntzen du.

Horretarako, Elkar-EKIN Lanean estrategiak neurrien programa bat ezartzen du, lau ardatz nagusietan oinarritzen dena:

- Lehenik eta behin, elkarlaneko gobernantza eredu, irekia, efizientea eta gardena diseinatzeko eta ezartzeko neurriak zehazten ditu, kudeatzeko tresnak eta metodoak abian jarriko direla bermatzeko eta, horrela, estrategiaren garapena eta hedapena modu koordinatuan eta partekatuan gauzatzen dela ziurtatzeko.

- Bigarrenik, estrategiak kalitatezko enplegu inklusiboa mantentzeko eta sortzeko neurriak jasotzen ditu, ekonomia sare lehiakor eta jasangarri bat bultzatuz (ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik), bai sektore tradizionaletan (sektore helduak eta kalteberak barne), bai garapen potentziala duten sektoreetan, Euskadiko RIS3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lurralderako ezarritako lehentasunekin bat etorriz.

- Era berean, ezinbestekoa da lurraldean enpleguaren kalitatea indartzea eta hobetzea, gizarte balio partekatua sortzen duten kudeaketa eta antolaketa eredu arduratsuak bultzatuz, eta, horrez gain, pertsona guztien kalitatea eta inklusioa hobetzea, zerga neurriak aplikatuz eta intereseko eragile guztien eta, oro har, gizartearen arteko sentsibilizazioa eta elkarrizketa sustatuz.

- Azkenik, pertsona guztien enplegagarritasunaren eta kualifikazioaren alde, estrategiak beharrezko neurriak ezartzen ditu bermatzeko pertsonek lan merkatuan sartzeko behar diren gaitasunak eta trebetasunak dituztela, enplegu justu eta kalitatezko baten bidez, eta, horrela, enpresen eta lan merkatuaren eskaerei aukera berdintasunean erantzuteko.

Garrantzitsua da azpimarratzea Elkar-EKIN Lanean Planaren diseinuak eta kudeaketak aldaketa garrantzitsua dakarrela Gipuzkoako gizarte politiken esparruan, Foru Aldundi osorako proiektu estrategikotzat hartu baita, eta hori garatzeko Diputatu Nagusiaren Kabinetea, Ekonomia Sustapena Departamentua eta laneratzeko baliabideen lurralde sare osoa inplikatzen baititu, Proiektu Estrategikoen Zuzendaritzaren babesean. Enplegagarritasun zailtasun handienak dituzten kolektiboen laneratzea foru administrazio osoaren politika gisa eratzen da, eta proiektu estrategiko gisa proposatzen da, foru proiektu estrategiko guztiez arduratzen den departamentuak bultzatuta.

e] *Gizarte zerbitzuak pertsonalizatzeko gida*

2021ean, Etorkizuna Eraikiz Think Tank egitasmoaren esparruan, Gipuzkoako gizarte zerbitzuak pertsonalizatzeko gida bat egin da. Gida horrek zerbitzu pertsonalizatuago batzuetarantz joan ahal izateko elementu eta gomendio batzuk zehazten ditu, eta, zehazki, Gipuzkoako gizarte zerbitzuen trantsizio prozesuak ahalbidetuko dituzten antolaketa formulak garatzen laguntzea du xede, gaur egun duten konfiguraziotik arreta eredu pertsonalizatuagoetara, komunitarioagoetara, integratuagoetara eta horiek erabiltzen dituzten pertsonen eskubide, aukera, behar, itxaropen eta balioetan zentratutakoetara.

Gizarteratzeko II. Plana gida horretan jasotako pertsonalizazio kontzeptuarekin bat dator eta Gipuzkoako gizarte zerbitzu pertsonalizatuagoetaranzko trantsizioa egiteko proposatutako aurrerapen ildoak eta gomendioak kontuan hartzen ditu. Horietako batzuk dira:

- Gizarte zerbitzuen sistemaren zerbitzuak eta prestazioak berriz definitzea, pertsonalizazio oinarrietara egokitzeko.

- Etxeko programak eta gizarte eta hezkuntzaren arloan esku hartzeko eta esku hartze psikosozialeko programak zabaltzea eta teknikoki eta metodologikoki indartzea, bai lehen mailako arretan, bai bigarren mailako arretan.

- Erabiltzaileek zerbitzuak ematen dituzten zentroak eta erakundeak aukeratzea ahalbidetuko duten mekanismoak sartzea, besteak beste merkatuan zaintza zerbitzuak eskuratzeko prestazio ekonomikoak hautatzeko aukeraren aldeko apustu irmoagoa egitea.

- Erabiltzaileek gizarte zerbitzuen sistemako zerbitzuak eta prestazioak diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen parte har dezaten bultzatzea.

- Erreferentziazko profesionalen eta/edo kasu kudeatzaileen zeregina sendotzea, bai oinarrizko gizarte zerbitzuetan, bai Foru Aldundiaren organigraman eta zentro eta programen esparruan.

- Ahalegin koordinatua eta integrala sustatzea, zerbitzuak eskuratzearekin lotutako administrazio izapideak sinplifikatzeko.

- Hainbat ardatz zehaztea, instituzio eta erakundeen barneko lan prozesuei era gidatuan heltzeko, arretaren pertsonalizazioa txertatzeko aukerak baliozkotze aldera.

- Esku hartzeko eta ebaluatzeko tresnen garapena sustatzea.

- Sare eta proiektu komunitarioen eta koordinazioko tokiko mahaien garapena bultzatzea.

- Arretaren pertsonalizazioarekin bat datorren ebaluazio eredu bat definitzea.

- Adierazleen sistema bat diseinatzea, adostutako kalitate estandarretatik abiatuta, emandako zerbitzuen kalitatea ebaluatzeko aukera emango duena, erabiltzaileen bizi kalitatearen ikuspegitik.

f] *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana Gipuzkoan*

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana Gipuzkoan (2020-2023) da II. Plana garatzeko oinarrizko erreferentzietako bat. Berdintasunerako III. Foru Plan horrek, "Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak" helburu nagusia kontuan izanda, jarduketa ardatz bat ezartzen du, hiru helburu estrategikoren bitartez antolatuta. Helburu horiek, era berean, bederatzi helburu operatibotan zehazten dira, eta guztira 27 ekintza biltzen dira. Hauek dira hiru helburu estrategikoak:

- Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko ikerketa, sentsibilizazio, prebentzio eta formakuntza alorretan aurrera egitea.

- GFAren arreta emateko eredua indarkeria matxistari egokitzea, esparru guztietatik bideratutako esku hartzearen xedea emakumeen eta nesken ahalduntzea izan dadin.

- Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan esku hartzen duten erakundeetan eta beren artean koordinazioa hobetzea.

Hona hemen bederatzi helburu operatiboak:

- Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko ikerketa eta informazioa biltzeko sistemak eta datuak komunikatzeko eta ezagutarazteko bideak hobetzea.

- Emakumeen aurkako indarkeria matxistari nola heltzen zaion hobeto ezagutzea, indarkeria egoera horiek berariaz erantzuten ez dituzten foru zerbitzu eta baliabideetatik.

- Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arbuio soziala handitzea, indarkeria mota hori eragiten duten generoko desberdintasunak daudela ulertuta.

- GFAren zerbitzu eta baliabideetatik ahalbidetzea emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta espezializatua ematea.

- Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko foru zerbitzuen irismena eta kalitatea handitzea.

- Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko eredua beste foru baliabideetara, espezifikoki indarkeriaren arlokoak ez direnetara, zabaltzea.

- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen kalteak banan-banan erreparatzeko eskubidearen aldeko foru ekimenean aurrerapausoak egitea.

- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan foru eta toki politikak lerrokatzea.

- Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta ematean esku hartzen duten erakundeetan eta erakunde horien artean koordinazio eraginkorra ahalbidetuko duten tresnak sortzea.

g] *Euskal araudiaren erreforma diru sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arloan*

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak maiatzaren 10ean onartu zuen diru sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arloan gaur egun indarrean dagoen araudia aldatzeko lege proiektua. Araudi berriak diru sarrerak bermatzeko prestazioen arloan ekar ditzakeen aldaketez harago -eta, beraz, pobrezia eta desberdintasun egoeren prebentzioari eta lanketari buruzko guztian-, aurreproiektuak zenbait aldaketa proposatzen ditu diru sarrerak bermatzeko euskal sistemaren prestazio ekonomikoen onuradun diren gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei emandako laguntzari dagokionez.

Ildo horretan, lege proiektuak tresna berriak txertatzen ditu profilen eta beharrizanen diagnostikoa eta estratifikazioa egiteko, bai eta gizarteratzeko plan integratuak eta iraunkorrak garatzeko ere, aurrera egin ahal izateko arreta pertsonalizatzen eta kasuistika konplexuak Ongizate Estatuaren beste sistema batzuekin sektoreen artean lantzen. Zehatz-mehatz, diagnostiko tresnen barruan, daude hauek:

- Batetik, egoeraren eta beharrizanen hasierako balorazioa, Lanbidek aplikatuko duen triaje tresna baten bitartez, gizarteratzea lortzeko aktibatu behar diren sistemak identifikatuko dituena (110. art.).

- Bestetik, enplegu sistema ez eta beste arreta sistema batzuek esku hartu behar dutenean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren balorazioa eta diagnostiko soziala, bai eta hezkuntza, etxebizitza eta osasun sistemena ere, beharrezkoa denean (111. art.).

- Azkenik, laneratzeko beharrizanen diagnostikoa, Lanbidek egingo duena triaje tresnak hala zehaztutakoan (112. art.).

Bestalde, aurreproiektuak Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonala (IPIP) arautzen du; inklusio zerbitzu partaidetu bat da, non alderdi sinatzaileek zenbait konpromiso hartzen dituzten bazterketa arriskua prebenitzeko edo, hala badagokio, bazterketa egoerari buelta eman eta hartzaileen erabateko lan eta gizarte inklusioa lortzeko. IPIP Lanbideren eta hartzaileen artean sinatuko da, eta, diagnostikoa oinarri hartuta, kasu bakoitzean dagokion enplegu, gizarte zerbitzu, etxebizitza, hezkuntza eta osasuneko euskal sistemen esku hartze proposamenak eta jarduerak zehaztuko ditu. Gainera, IPIPi parte hartzen duten askotariko sistemen artean partekatuta garatuko diren jarraipenak, berrikuspenak eta ebaluazioak egingo zaizkio aldizka.

Halaber, aurreproiektuak hau ezartzen du: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erreferentziazko profesional bat esleituko du, eta teknikari hori arduratuko da Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalaren bultzadaz, negoziazioaz, sinaduraz, jarraipenaz eta ebaluazioaz. Diagnostikoak agerian uzten badu gizarte zerbitzuen esku hartzea lehenetsi beharra, erreferentziazko profesionala zerbitzu horietakoa izango da eta Lanbideri beharrezkoa den informazioa emango dio, prestazioa eskuratzeko eta mantentzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, bai eta IPIPen jarraipen eta ebaluazio funtzioak egiteko ere.

Azkenik, 109. artikuluak zera ezartzen du: Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak lan eta gizarte inklusiorako prozesuetako erakunde laguntzaile gisa onartu ahal izango dira, bai inklusio zerbitzuen hornikuran, bai gizarte laguntzako eginkizunetan, diagnostikoan, programazioan, jarraipenean eta ebaluazioan, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan.

h] *Aukerak Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzea eta euskal espetxe eredua garatzea*

EAEren esparruan, Gipuzkoako Gizarteratzeko II. Planari begira kontuan hartu beharreko beste aldaketa bat da Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu dituela Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.14 eta 12.1 artikuluetan ezarritako espetxe zerbitzuen antolamendu, araubide eta funtzionamenduari buruzko eskumenak. Eskumen aldaketa hori oinarri hartuta, Eusko Legebiltzarrak 3/2021 Legea onartu zuen, irailaren 30ekoa, Aukerak, Gizarteratzearen Euskal Agentzia, sortzekoa. Aukerak zuzenbide publikoko ente bereizi gisa sortu da, enplegatzaile gisa ekin diezaion askatasunaz gabetzeko zigorretara kondenatutako pertsonen lanarekin, lanerako prestakuntzarekin edo gizarteratzearekin zerikusia duen guztiari.

Agentzia horren funtzioak eta jarduerak garatzeari eta Zubietan Eskusaitzeta espetxe berria eraikitzeari esker, arrisku alderdi eta gizarte bazterketa handiagoak dituzten kolektibo bati -presoena- emandako zerbitzuak birdiseinatzeko aukera emango du.

i] *1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa.*

Martxoaren 3an, 1/2022 Legea onartu zen, eta horren bitartez, aldaketa handiak egiten dira Euskadiko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko arau esparruan. Legearen zioen azalpenean adierazten den moduan, lege horrek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko indarreko araudiaren aplikazioa hobetzeko eta bermatzeko beharra azpimarratzen du, eta, besteak beste, berritasun gisa planteatzen du bere printzipio orokorren artean espresuki aipa dadila emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea, emakumeak ahalduntzea eta emakumeek politika publikoetan parte hartzea, gizonen inplikazioa, politika horietan intersekzionalitatea kontuan hartzea, eta berrikuntza, gardentasuna, kontu ematea, nazioartekotzea, hizkuntza eskubideen babesa eta euskararen sustapena bermatzeko beharra.

Halaber aurreikusten da berdintasun politikak garatzeko baliabide ekonomiko, pertsonal eta teknikoak indartzea, berdintasunerako organismo eta zerbitzuei aitorpen handiagoa emanez, benetako lidergoa izan dezaten berdintasun politiken sustatzaile gisa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloko jarduketetan, eta ez bakarrik prebentzio lanetan, non orain arte lan garrantzitsua gauzatu duten, baizik eta biktimei arreta erreparatzailea emateko irizpideak zedarritzean ere bai. Hori guztia, generoaren eta giza eskubideen ikuspuntua berma dadin berdintasunaren aldeko lanean eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurka esku hartzeko eremu guztietan.

Oraingo berdintasun egitura espezializatuak indartzearekin batera, neurri batzuk ezartzen dira euskal botere publiko guztietan modu orokorrean ezar daitezen berdintasun politikak sustatzeko funtsezko elementuak, hala nola planak, zerbitzu espezializatuak, prestakuntza, erabakiak hartzeko guneetan emakumeek eta gizonek izan behar duten ordezkaritzaren sustapena, jaiotza, adopzio edo harrera kasuetako baimen berdin eta besterenezinak, edo araudian, dirulaguntza publikoetan eta kontratazio publikoan berdintasuna sustatzeko neurriak, Estatuko Sektore Publikoko Kontratuen Legeak berdintasun klausulak txertatzeko ematen dituen aukera berriak baliatuz.

Gainera, neurri handi batean txertatu dira euskal administrazio publikoek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordean adostutako berdintasun politiketarako kalitate estandarrak, 2018ko abenduaren 12ko bilkuran onetsitako akordioan jasoak.

j] *Erkidego esparruko gizarte zerbitzuen plangintzaren arloko beste aurrerapen batzuk*

Azkenik, aipatu behar da datozen hilabeteetan gizarte zerbitzuen eta bazterketaren arloko hainbat plangintza tresna autonomiko egingo direla. Plan eta estrategia horiek, oraindik egiteko prozesuan dauden arren, esparru horretan Gipuzkoan garatutako politikak zehaztuko dituzte, eta plan honetan proposatzen diren elementuetara egokitu beharko dira. Ildo horretan, seguru aski datozen hilabeteetan onartuko diren plan eta estrategiak hauek izango dira:

- Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa egitea jasotzen duena, EAEko hiru lurralde historikoetan Gizarte Zerbitzuen Zorroko baliabideak eta zer-

bitzuak hedatzeko orientabideekin. Gainera, II. Plan Estrategikoak gizarteratzeko gizarte zerbitzuak espezifikoki ardatz izango dituzten hainbat helburu eta ekintza ildo barne hartuko ditu.

- Etxerik Gabeko Pertsonentzako II. Euskal Plana, Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Planaren jarraipen gisa; azken horren indarraldia 2021ean amaitu zen.

- Herritartasunaren, immigrazioaren eta asiloaren Kulturarteko VI. Plana, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak sustatua.

- Gizarteratzeko V. Euskal Plana, Lan eta Enplegu Sailak sustatua. Plan hori oraindik egin gabe dagoen arren, Eusko Jaurlaritzak berau egiteko aurkeztutako oinarrien agiriak hainbat lehentasun proposatzen ditu, besteak beste honako hauek:

  – Estrategia integral bat abian jartzea, laguntza egonkorrak behar dituzten bazterketa arriskuan dauden pertsonei arreta emango zaiela bermatzeko, gizarteko esku hartzearen eta gizarteratzearen esparrutik.

  – Lurralde bakoitzean gizarte zerbitzuen sarea hedatzeko aurrera egitea, gizarteratzeko ibilbide desberdinekiko modu koherentean eta integratuan.

  – Programa integral bat abiaraztea gizarteratzeko babesak antolatzeko, hobetzeko eta bermatzeko, zehazki, gizarteratze hitzarmenen bidez, eta erreferentziazko profesionalak esleituz, betiere diru sarrerak bermatzeko politikaren eta bestelako politiken (gizarte zerbitzuak, gizarte lanekoak, soziosanitarioak...) arteko osagarritasuneko berariazko premien arabera.

  – Etxe gabeko pertsonen, pobrezia energetikoaren eta bereziki kalteberak diren pertsonei eragiten dieten beste pobrezia egoera batzuen (adinekoak, gazteak, haurrak, desgaitasuna duten pertsonak...) prebentzio eta lanketa jarduerak indartzea, arreta berezia jarrita diskriminazio anitzeko egoerei aurre egiten dietenei eta/edo gizarte laguntzako sarerik ez dutenei (nahi gabeko bakardadea...).

  – Balio anitzeko laguntza azpiegituren plan bat egitea, migrazio errealitate desberdinek planteatzen dituzten harrera premiei erantzuteko.

  – Hobetzea etxebizitzak esleitzeko prozedurak eta horietarako sarbide eskakizunak, gizarte profil desberdineko kolektiboen etxebizitzarako sarbidea errazte aldera, bereziki hauena: gazteak, adinekoak, seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak eta genero indarkeriaren biktimak, edonola ere, ghettoak sortzea saihestuz.

  – Gizarteratzearen eremuan esku hartzeko esparru komun bat sortzea, jardunbide profesionala egituratuko duena pertsona ardatz izango duten arreten, indibidualizazioaren, aktibazio inklusiboaren eta bizi kalitatearen printzipioen inguruan.

[03.2]

Planaren irizpide orokorrak eta printzipio gidariak

Gizarteratzearen esparruko politika publikoen plangintzak zailtasun hein batean garrantzitsuei aurre egin behar die, bai gizarteratzeren eta gizarte bazterketaren kontzeptuak zehatzak ez direlako eta hitz horien adiera zabala delako, bai politika horien garapenean esku hartzen duten politikak eta eskumen esparruak askotarikoak direlako. Zailtasun horiek kontuan izanik, eta aurreko planaren ebaluaziotik eratorritako ikaskuntzak abiapuntutzat harturik, irizpide orokor edo printzipio gidari batzuetan oinarrituta egituratu da II. Plana, eta irizpide horien bidez zehaztu nahi dira Planaren jarduera eremuak eta irismena.

a] *Batez ere lehen eta bigarren mailako arreta emateko Gizarte Zerbitzuen sarean ardaztutako plana, gizarte bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonentzat*

Lehen ere azaldu dugunez, Gizarteratzeko I. Planaren gabezietako bat zen bazterketa egoeren edo faktoreen eta eragin nahi zituen politika publikoen definizio operatiborik ez egotea. Sarri askotan, oso orokorra, aldakorra eta zehaztu gabea izan da gizarte bazterketaren aurkako edo gizarteratzeko politiken helburua, Horregatik, Gizarteratzeko II. Planak definitu eta zehaztu egin behar du zer egoera edo beharrizani heldu behar dion lehentasunez.

Planaren esparruan abian jartzen diren prebentziozko, zeharkako eta dimentsio anitzeko neurriak alde batera utzi gabe, gizarte bazterketako egoeran dauden edo arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzten Gizarte Zerbitzuei ematen die lehentasuna Gizarteratze Plan honek, eta Gipuzkoan sare horren artikulazioa hobetzera bideratzen da, funtsean. Beraz, horrek esan nahi du Planak, funtsean, honako hauek izan behar dituela oinarri:

- Gizarte Zerbitzuak, bereziki Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean eta Zorroari buruzko 85/2015 Dekretuan jasotzen direnak, lehen nahiz bigarren arreta mailan biltzen direnak.

- Gizarte bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan (txikia, moderatua, handia) dauden pertsonak.

Aurrerago azaltzen denez, Plana Gizarte Zerbitzuen sisteman eta baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonengan ardaztuta egoteak ez du eragozten Planean beste babes sistema batzuei dagozkien neurriak eta jarduerak edo baztertuta ez dauden pertsonei zuzendutakoak sartzea. Ildo horretan, aurrerago aipatzen diren estratifikazio eta segmentazio irizpideek ezinbesteko egin dute planean ongizate sistema desberdinetako zerbitzuen zorroetan nahitaez jasota egon behar ez duten prebentziozko neurriak eta jarduerak aintzat hartzea, baita diagnostikoaren ikuspuntutik bazterketa egoeran ez dauden pertsonei (esate baterako, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnaren (GBBT) bidez baloratuak izan ez direlako) eta/edo gizarte zerbitzu publikoak erabiltzeko eskubidea ez duten pertsonei (esate baterako, zerbitzu horiek erabiltzeko baldintzak betetzen ez dituztelako) zuzendutakoak ere.

b] *Zeharkako Plana, erakunde artekoa eta integrala*

Aurrekotik ondorioztatzen da Planak lehentasunez lotu behar dituela Gipuzkoako Foru Aldundia eta lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak emateko eskumena duten Lurraldeko Udalak. Beraz, foru erakundeak eta Gipuzkoako udalek sustatu, adostu eta onartu behar dute Plana, eta ildo horretan, bi erakunde maila horiei zuzendutako jarduerak eta neurriak aurreikusten ditu, lehen arretako gizarte zerbitzuak eta bigarren mailakoak uztartuz.

Halere, gizarteratze kontzeptuaren askotariko dimentsionaltasunak berak eta egoera horiei erantzun integral bat eskaintzeko beharrizanak behartu egiten dute Planean politika publikoen beste sistema edo esparru batzuei dagozkien jarduerak ere sartzea, eta kontuan hartzea Gizarte Zerbitzuek estaltzen dituztenak gainditzen dituzten dimentsioak eta beharrizanak. Ildo horretan, Planak jaso egiten ditu etxebizitza eta enplegua eskuratzeko gaiarekin, osasunarekin, diru sarrerak bermatzearekin, garraioarekin, hirigintzaren plangintzarekin, pertsonen arteko harremanekin eta garapen komunitarioarekin zerikusia duten jarduerak.

c] *Plan orientagarria eta, aldi berean, konpromiso eta jarduera zehatzetan ardaztua*

Bi helburu desberdinei baina osagarriei erantzuteko pentsatuta dago II. Planaren egitura:

- Alde batetik, gizarte politiken esparruan esku hartzen duten eragileek eta erakunde guztiek egiten dituzten jarduerak bideratzea, sistema osoa irizpide, **orientabide** edo jarraibide orokor batzuez hornituz. Aurrerago azaltzen denez, Planarekiko atxikimenduak berekin batera dakar planaren marko estrategikoa osatzen duten irizpide, orientabide edo jarraibide horiek betetzeko konpromisoa.

- Beste aldetik, eragileak jarduera zehatz, neurgarri eta ebaluagarri batzuk garatzera **konprometitzea**, marko estrategikoa osatzen duten gomendioak eta jarraibideak eraginkorrak izan daitezen konpromiso eta proiektu espezifikoetan.

Lehen ere azaldu dugun bezala, Planaren bi dimentsio horiek bi maila desberdinetan egituratzen dituzte beren edukiak: alde batetik, epe ertainari eta luzeari begira zehaztutako Marko Estrategikoa dago –dokumentu honetan jasoa–; eta bestetik biurteko izaera duten planak daude, Plana garatuko duten erakundeen konpromisoak eta proiektu zehatzak jasoko dituztenak.

d] *Aliantzak sustatzen dituen Plana eta, aldi berean, loteslea, akordio zabal batean eta lankidetza gobernantzan oinarritua*

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen eskumen egiturak eta Planaren izaera askotarikoak beharrezko egiten dute eragile guztiak inplikatuko dituzten lankidetza gobernantza formulak garatzea. Ildo horretan, Gizarte Politiketako Departamentuaren 2020>2030 Agendak "etengabeko arreta bermatzeko" beharra aipatzen du "maila anitzeko gobernantzako mekanismo berritzaileak abian jarriz, maila guztietan osasun zerbitzuen eta gizarte, osasun, eta komunitate zerbitzuen koordinazio instituzionala ahalbidetuz". Izan ere, Agenda horrek planteatzen duen eraldaketa garrantzitsuenetako bat da parte hartzeko eta erabakiak hartzeko gune berriak sortzeko eta sustatzeko beharra, gizarte politiken belaunaldi berri bat diseinatzeko, ebaluatzeko, gomendatzeko eta sustatzeko. Lankidetza gobernantzak instituzioak, erakundeak eta erabiltzaileak lotzen ditu trantsizioko gizarte politikak sortzeko prozesuan, etorkizunen diseinu parte hartzailean eta trantsizioko agenden eraikuntzan oinarrituta.

II. Planaren kasu zehatzean, lankidetza gobernantzaren aldeko apustuaren ondorioz, hainbat erakundek eta eskumen mailek bat egin dute Plan honekin, Lurraldeak gizarteratzearen arloan dituen lehentasun nagusiei buruzko aurretiazko akordio batetik abiatuta.

Ildo horretan, lehen ere azaldu dugunez, dagozkien lege eta eskumen mailako erantzukizunak betetzetik harago, Planari atxikitako erakunde publikoek eta pribatuek adostutako marko estrategikoa esan bezala konpromiso eta proiektu eragile zehatzen bidez garatzeko borondatea agertzen dute, betiere beren eskumen, lehentasun eta beharrizanen arabera.

Planari lotutako erakundeek neurri zehatzak eta ebaluagarriak garatzeak esan nahi du erakunde horiek ere konpromisoa hartzen dutela abian jartzen diren jarduerei dagozkien adierazleak jasotzeko.

e] *Plan kontinuista eta, aldi berean, berrikuntzara bideratua*

Ebaluazioaren ondorioetako bat izan da garrantzitsua dela Gizarteratzeko II. Planari izaera kontinuista ematea, lehenengo planaren esparruan garatutako jarduera ildoei eta neurriei jarraipena emateko. Beraz, I. Planaren esparruan abiarazitako aldaketak garatzeari eta finkatzeari jarraipena ematea planteatzen du Planak, hori bai, haren diseinuan eta aplikazioan hobekuntzak sartuta.

Izaera kontinuista hori ez da eragozpen Planak aldi berean izaera berritzailea izan dezan eta jarduera berritzaileak eta esperimentuzkoak jaso ditzan, Gizarte Politiketako Departamentuaren 20>30 Agendan adierazitakoarekin bat etorrita. Izan ere, 2020>2030 Gipuzkoa Agendak lortu nahi duen eraldaketa bat da esperimentazio eta berrikuntza integratua sustatzea. Horretarako, arreta, zaintza eta laguntza eredu berrietaranzko pixkanakako aldaketa sustatzen duten esperientzia pilotuak (produktu eta zerbitzu berriak) diseinatzeko, txertatzeko eta ebaluatzeko eredu esperimentalen aldeko apustua egiten du.

f] *Jarraipen eta ebaluazio sistema batez hornituriko Plana, Gipuzkoako Foru Aldundiak gidatua eta askotariko gobernantza mailaren ereduan oinarritua*

Elkar-EKIN Gipuzkoako I. Gizarteratzeko Planaren ebaluazioan identifikatutako gabezietako bat jarraipen eta ebaluazio sistematikarik eza da, baita hura egituratzen duten neurri bakoitzerako prozesu adierazleen eta emaitzen definiziorik eza ere. Plan Estrategiko batek behar-beharrezkoa du jarraipen eta ebaluazio sistema bat, eta horretarako ezinbestekoa da Plana koordinatzeko eta haren jarraipena egiteko mekanismoak izatea, baita jardueren eta adierazleen definizio operatiboa egitea ere, hura neurtzeko. Era berean, irizpide horiei egokitutako gobernantza eredu bat eskatzen du Planaren zeharkako eta erakunde arteko izaerak, Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko II. Planari lotutako eragile guztiak inplikatu ahal izateko.

Jardueren jarraipenaren eta ebaluazioaren aldeko apustuak era berean 2020>2030 Agendaren printzipioei erantzuten die, agenda horren printzipioetako bat Gipuzkoan gizarte zerbitzuen ebaluazio eredu berri bat garatzea baita. Ebaluazio sistema berriak teknika kuantitatibo, kualitatibo, esperimental eta parte hartzaileen erabilera konbinatuko eta indartuko du gizarte zerbitzuak eta sistemaren iraunkortasuna ebaluatzeko eta arreta, zaintza eta laguntza eredu berri baterako trantsizioa monitorizatzeko.

Jarraian azaltzen denez, honako hauetan oinarritzen da ebaluazioaren, jarraipenaren eta maila anitzeko gobernantzaren aldeko apustua:

- → Hasteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak, zehazki Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako eta Gizarteratzeko Zerbitzuak, hartuko ditu bere gain Gizarteratzeko II. Plana bideratzeko, jarraipena egiteko eta koordinatzeko eginkizunak. Horretarako, Idazkaritza Tekniko bat eduki ahal izango du, besteak beste, eragileek Planaren esparruan garatzen dituzten neurriak identifikatzeaz eta gainbegiratzeaz, erakundeek hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatzeaz, adierazleak biltzeaz eta eguneratzeaz eta jarraipen eta ebaluazio txostenak egiteaz arduratuko dena.

- → Bestalde, Planaren eraginaren gaineko jarraipena eta ebaluazioa egiteko ezarriko diren koordinazio eta lankidetza gobernantzarako mekanismoen artean, honako talde hauek aktibatuko dira:

  - Lotutako erakunde guztietako ordezkariez osatutako jarraipen batzordea edo taldea, aurreikusitako jarduerak zein neurritan garatzen ari diren jakiteko.

  - Aholkularitza talde tekniko zabalago bat, gogoeta eta diagnostikoa egiteko gunea ahalbidetuko duena Planaren aplikazioa eta garapena hobetzeko.

- → Azkenik, prozesuaren eta eraginaren adierazleen katalogo bat jasoko dute landuko diren jarduera planek, baita Planean jasotako proiektu eragileak ebaluatzeko tresna sorta bat ere, alde batetik, behar bezala gauzatzen ari diren orientabideak eta konpromisoak, eta horien eragina jakiteko, eta bestetik, Plan honen esparruan garatutako proiektu eragileen emaitzen berri izateko.

g] *Plan malgua eta berrikusgarria*

Azaldu bezala, bi mailatan egituratzen da Plana, marko estrategikoan eta jarduera plan sorta batean. Epe ertainera eta luzera–2026ra arte– planteatzen da marko estrategikoa, baina jarduera planek iraunaldi laburragoa izango dute –printzipioz bi urtekoa–, gizarte beharrizanetan gerta litezkeen aldaketetara –pandemiaren esperientziak agerian utzi du zeinen azkar alda daitezkeen inguruabar sozioekonomikoak– eta adierazitako koordinazio eta gobernantza bideen esparruan egiten diren ebaluazioen eta jarraipenaren emaitzetara egokitu ahal izan daitezen.

[03.3]

Arreta eredua: pertsonalizazioa, estratifikazioa eta lurralde ikuspegia

Aurreko epigrafean jaso dira II. Planaren oinarrizko printzipioak, Gipuzkoan gizarteratze politikak planifikatzeko tresna eraginkor gisa. Epigrafe honetan daude jasota Planak hedatu eta indartu nahi duen arreta ereduaren oinarriak, kontuan izanik elementu filosofikoak eta kontzeptualak eta sistemaren antolamenduarekin eta artikulazioarekin zerikusia duten elementuak.

Hiru dira Planean oinarritzen den arreta ereduaren elementu nagusiak: zerbitzuen pertsonalizazioa, profilen eta beharrizanen estratifikazioa eta lurralde ikuspegia, tokiko zaintzako ekosistemak sustatuz baita gizarte bazterketaren esparruan ere.

[03.3.1]
Zerbitzuen pertsonalizazioa eta pertsonarengan oinarritutako arreta.

Gipuzkoako gizarte zerbitzuak pertsonalizatzeko gidan eta 2020>2030 Gipuzkoa Agendan ezarritakoarekin bat etorrita, Elkar-EKIN Gipuzkoako II. Gizarteratzeko Planaren oinarrizko ardatzetako bat da gizarte bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonei ematen zaizkien zerbitzuak pertsonalizatzeko helburuan aurrera egiten jarraitzea.

Pertsonalizazioak pertsonak beren indarguneekin eta lehentasunekin hartzea dakar, eta jasotzen duten arretaren erdigunean jartzea. Pertsonalizazioaren ideiak tradizio eta ikuspegi oso desberdinetako ekarpenak jasotzen ditu –pertsonan eta bizitza independentean oinarritutako plangintza, pertsonan oinarritutako arreta gerontologikoa, kalteen murrizketa, berrosatzeko eredua osasun mentalaren arloan, errehabilitazio psikosoziala...– eta zerbitzuak emateko modua nahiz erakundeen funtzionamendua eta gizarte zerbitzuen sistema osoa egituratzeko modua finkatzen du.

*Gipuzkoako gizarte zerbitzuak pertsonalizatzeko gida*n jasotakoarekin bat etorrita, gisa honetan laburbildu eta sailkatu daitezke pertsonalizazioaren printzipioak:

- **Duintasuna.** Duintasunak berekin dakar giza izaerari berez datxekion aitorpena eta errespetua, haren inguruabarrak edozein direla ere. Pertsonaren berezko ezaugarria da, bizitzako edozein etapa eta inguruabarretan bere autonomia morala eta eskubideak baliatzeko gai izan behar duena, bere lehentasun eta nahiekin bat datorren bizitza plan propioa lortzera bideratzeko. Beraz, duintasunak berekin dakar pertsonak gaitasunak, lehentasunak eta desioak dituzten gizabanako gisa aitortzea, errespetatzea eta balioestea, bakoitzaren inguruabarra edozein dela ere. Duintasunak, gainera, aukera berdintasuna eskatzen du gainerako herritarrekiko, eta beste eskubide batzuk ere eskatzen ditu, hala nola pribatutasuna, intimitatea edo, jakina, edozein tratu txarren aurkako babesa.

- **Eskubideak.** Pertsonen duintasuna zaintzeak berekin dakar, inplizituki, arretaren paradigman eskubideen ikuspegia txertatzea, eredu asistentziala eta diskrezionala gaindituta emanez. Horrela, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko eta gizarteratzeko eta gizartean parte hartzeko prozesuetarako beharrezkoak diren laguntzak pertsonak estigmatizatzen dituzten asistentzialismoan oinarritutako ideiez gabetu behar dira, eskubideen ikuspegia nagusitu dadin. Pertsonak ez dira baliabideen hartzaile soiltzat hartu behar, eskubideen titularrak eta herritar berdinak baitira.

  Eskubideen ikuspegiaren oinarrizko premisa da pertsona guztiek –alde batera utzirik euren osasun egoera edo jasan ditzaketen gaixotasunak, neurodegeneratiboak izan ala ez– beste guztien eskubide berberak dituztela beren egoerak gorabehera, eta eskubide horiek bermatu eta erabili behar direla laguntza jasotzen dutenek gainerako herritarren aukera berberak izan ditzaten.

- **Autodeterminazioa, hautaketa eta kontrola.** Pertsonalizazioaren printzipioa da pertsona guztiek dutela erabakiak hartzeko gaitasun juridiko osoa, haien zaintzarekin eta arretarekin lotutakoak barne hartuta –nahiz eta kasu batzuetan laguntza pertsonal eta tekniko jakin batzuk eska ditzakeen pertsona horren borondatea gauzatzeko–, eta horrek hautatzeko, jarduteko eta pentsamendu independenterako gaitasuna aitortzea dakar, arrazoizko eta/edo kalkulatutako nolabaiteko arrisku maila onartzeko prestasuna barne. Arretaren erdigunean kokatzeaz gain, batez ere laguntza premiei buruzko erabakiaren muinean ere kokatu behar da pertsona. Horretarako, banakako laguntza malgu, bateragarri eta arin batzuk antolatu behar dira bere beharrak eta nahiak asetzeko. Modu horretan pertsonalizazioaren funtsezko elementu bihurtzen da erabiltzaileen ahalduntzea, pertsonak bere bizitzaren protagonista nagusi gisa jardutea ahalbidetzen baitu, bizi kalitate pertsonalari eutsiz edo hobetuz.

- **Osotasuna.** Pertsona bakoitzaren beharrizanak asetzeko jarduerak aurreikusi behar dituzte planifikatzen diren esku hartzeek: oinarrizkoak (osasun psikofisikoa eta funtzionaltasuna), emozionalak (afektibotasuna eta harreman pertsonalak) eta sozialak. Globaltasun irizpide hori plangintzetan eta esku hartzeko prozesu berean jasotzen diren

programa guztietan aintzat hartu behar da, prozesuko eragileek elkarri eragin behar dioten dimentsio sistemiko batetik: artatutako pertsonak, familia, profesionalak, inguru-ne fisikoa eta psikologikoa eta testuinguru komunitarioa.

- **Genero ikuspegia eta intersekzionalitatea.** Pertsonalizazioak berekin batera dakar pertsonen ezaugarri indibidual guztiak aintzat hartzea; horien artean, generoa da esanguratsuenetako eta garrantzitsuenetako bat. Zentro edo programa, edo artatutako pertsonaren profila edozein dela ere –adinekoak, mendekotasunak dituztenak, desgaitasunak dituztenak, gaixotasun mentalak dituztenak eta gizarte bazterketako egoeran daudenak, haurrak, nerabeak...–genero ikuspegi esplizitu bat aplikatzea funtsezko baldintza da pertsonalizaziorako[3], izan ere, artatutako pertsonen beharrizanak, biografiak eta espektatibak hein handi batean daude generoak baldintzatuta.

  Aldi berean, intersekzionalitate kontzeptuan oinarritutako ikuspegia aplikatzea eskatzen du genero ikuspegiak. COCEMFEk landutako Manual básico sobre género y discapacidad eskuliburuan azaltzen denez, honela definitu dezakegu intersekzionalitatea: "Askotariko diferentzia ardatzak –ekonomikoa, politikoa, kulturala, psikikoa, subjektiboa eta esperientziazkoa– testuinguru historiko espezifikoetan tartekatzen direnean sortzen diren ondorio konplexuak, murriztu ezinak, askotarikoak eta aldakorrak". Ildo horretan, azterketa intersekzionala izango da bizi esperientzia marjinatuak aintzat hartzen dituena; aldi berean azpimarratu nahi dugu boterea eta pribilegioa ulertzearen garrantzia haren askotariko adierazpenetan. Beraz, desberdintasun harreman konplexuen azterketa ahalbidetzen du intersekzionalitatearen teoriak.

- **Parte hartzea.** Autodeterminazioak erabiltzaileen parte hartzea eskatzen du, hainbat mailatan eskatu ere. Maila indibidualean, erabiltzaileak parte hartu behar du premia indibidualen identifikazioan eta azalpenean, baita laguntza horiek jaso nahi dituen inguruabarrei buruzko erabakiak hartzean ere. Izan ere, garrantzitsua da erabiltzaileak esku hartzearen partaide egitea eta aldaketa prozesuetan duten erantzukizuna sustatzea. Talde mailan, erabiltzaileek ere –edo euren familiek– parte hartu behar dute antolakuntzari eta zentro eta programen kudeaketari buruz hartzen diren erabakietan. Gainera, dimentsio bikoitza du parte hartzeak: alde batetik, pertsonaren eta bere gertukoen parte hartzea laguntzen hornikuntzan eragina duten faseetan, eta bestetik, parte hartze soziala, kulturala eta politikoa.

- **Baldintzagabekotasuna.** Arreta pertsonalizatzeak, halaber, baldintzarik gabeko planteamenduak hartzea eskatzen du, erabiltzaileei profesionalen, erakundeen edo gizarte osoaren balio moralak inposatzea saihesteko. Bizikidetzarako oinarrizko arauak betetzeaz gain, arreta pertsonalizatuak merezimendu irizpideen aplikazioa saihestea dakar –pertsona jakin batzuek, beren portaera edo hautuagatik jasotzen duten laguntza merezi dutelako eta beste batzuek merezi ez dutelako ideia–, eta zerbitzuak gehienetan onartutakoekin bat ez datozen jokabideak, ohiturak edo balioak dituzten pertsonei ere zabaltzea. Testuinguru horretan, esku hartzearen baldintzagabekotasunaren ondorioz, eskakizun irizpide aldakorrak aplikatuko dira eta esku hartzeen helburuak eta arauak pertsona bakoitzaren egoera zehatzera (eta aukera pertsonaletara) egokitzeko gaitasuna ahalbidetuko da.

  Baldintzagabekotasuna edozein arreta mota behar duen pertsonarekiko tratu egokian (begirunezkoa, berrestekoa, balio iritzirik gabea) datza, eta errudun bihurtzen ez duen harreman profesionala eskatzen du, kontrolatzeko gaitasuna ez duten pertsonekiko egiturazko egoeretatik eratortzen diren zailtasunak defizit edo gabezia indibidualei egotziko ez dizkiena.

3 Genero ikuspuntuak edo ikuspegiak aintzat hartzen ditu gizonen eta emakumeen artean errealitatearen alderdi guztietan dauden aldeak eta desberdintasunak, hau da, ageriko egiten du generoak nola eragin dezakeen pertsonen bizitzan eta aukeretan beren arazoak eta zailtasunak gainditzeko edo beren proiektuak eta gaitasunak garatzeko. Genero ikuspegia aplikatzeko, funtsezkoa da kontuan izatea desberdintasunaren moduak eta forma zehatzak espezifikoak izan daitezkeela kulturaren eta askotariko inguruabar erabakigarrien arabera. Genero ikuspuntua edo ikuspegia txertatzeak zaurgarritasunaren ideian oinarritutako esku hartze sozialaren, babesaren, asistentzialismoaren edo biktimizazioaren ikuspegi edo praktika jakin batzuk zalantzan jartzen laguntzen digu, ikuspegi eta praktika horiek mendekotasuna eta diskriminazio egoera bultzatu baitezakete. Ikuspegi aldaketak aukera ematen du babesteko ikuspegia eta ahalduntzeko ikuspegia bereizteko.

- **Bizi kalitatea (kalitatezko bizitza).** Lehen ere azaldu dugun bezala, bizi kalitatearen ikuspegia du ardatz pertsonalizazioak, izan ere, arreta prozesuen eta esku hartze sozialen helburua da pertsonen bizi kalitatea hobetzea eta kalitatezko bizitza ahalbidetzea. Abiapuntua da pertsona guztiek dutela –beren egoera edo gaitasunak edozein direla ere– ahalik eta bizitzarik onena izateko nahia eta eskubidea, kalitatezko bizitza, bizitzea merezi duena, eta ez mugek eta/edo besteren erabakiek ezarritako bizitza. Horrek esan nahi du bizi kalitatearen kontzeptuaren askotariko dimentsioa aitortu behar dela, bai eta norbanakoak berak zehazten duela, bere subjektibotasunetik, bizi kalitatearen kontzeptua osatzen duten esparruei ematen dien garrantzia.

  Beraz, esku hartzeen diseinuak eta ebaluazioak bizi kalitatean hobekuntza bultzatzeko aukerak eman behar ditu garapen pertsonalari, autodeterminazioari, pertsonen arteko harremanei, gizarteratzeari, eskubideei, ongizate emozionalari, ongizate fisikoari eta ongizate materialari dagokienez. Esku hartzeko prozesu batek ez badu esparru horietan hobekuntzarik eragiten –nahiz eta beste alderdi batzuetan hobekuntzak edo zaintzak eskaini– nekez izango da esku hartze pertsonalizatua.

- **Gizarteratzea.** Arreta pertsonalizatuak berekin dakar gizarteratzearen aldeko apustua egitea, gizarteratze hori dimentsio anitzeko kontzeptu gisa ulertuta: gizarte bazterketaren arrazoiak askotarikoak badira, askotariko dimentsioak ditu gizarteratzeak, askotarikoak baitira pertsonen beharrizan materialak eta ez materialak (ekonomikoak eta harreman, hezkuntza, osasun eta etxebizitza alorrekoak). Gizarteratzearen dimentsioetatik –enplegua, etxebizitza, osasuna, zaintza beharrak, harreman pertsonalak, heziketa, etab.– bakar bat ere ez da beste bat baino garrantzitsuagoa, garrantzi handiago hori pertsona bakoitzaren aukeren eta lehentasunen araberakoa ez bada. Testuinguru horretan, laguntzek ez dute soilik eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak (elikadura, garbitasuna, jantziak, etxeko lanak, etab.) asetzera bideratuta egon behar; aitzitik, dimentsio sozial batera ere bideratu behar dira, hau da, pertsona komunitatean berdintasun egoeran sartzera eta parte hartzera bideratuta.

  Bereziki gaixotasun mentala duten, desgaitasuna duten edo bazterketa egoeran dauden pertsonentzako Gizarte Zerbitzuen esparruan, hauexek dakartza gizarteratzearen ikuspegitik parte hartzeak:

  – eredu errehabilitatzaile edo normalizatzaile batetik gizarteratze eredu batera igarotzeko beharra, pertsonaren arreta ardatza gizarte ingurunera eta gizarte eskubideen bermera eramateko, kontuan hartuta bazterketa faktore askok komunitatean eta egituran dutela jatorria eta konponbidea;

  – gizarteratzeko programek, enplegagarritasuna ez ezik, beste bizi dimentsio batzuk ere lantzeko beharra, hala nola, aisia, kultura jarduerak, boluntariotza, beste jarduera komunitario edo gizarte intereseko jarduera batzuk (elkarrekikotasuna, interdependentzia, doakotasuna eta elkartasuna) eta familia kontuak; eta

  – gaikuntzara edo kualifikaziora bideratutako baliabideak gainditzeko beharra, eta ahalduntzera eta eskubideak defendatzera bideratutako orientazioa bultzatzeko beharra, biak ala biak baitaude pertsonaren duintasunarekin berez lotuta.

- **Arreta komunitatean (eta komunitateak emana), ingurune arruntetan.** Arreta –zaintzak, laguntzak, konpainiak– lehentasunez komunitatean eman behar da, eta ahal dela komunitateak eman behar du pertsonaren gertuko baliabideak mobilizatuz, erabiliz eta koordinatuz. Gainera, ahal den heinean, ingurune arruntetan eta normalizatuetan eman behar dira zerbitzuak, eta soilik egoera jakin batzuetan aukeratu behar dira testuinguru bereziak edo berezituak.

- **Orientaziorako eta informaziorako eskubidea.** Hain konplexua eta zatikatua den sisteman, pertsonak eskura dituen posibilitateei, aukerei eta alternatibei buruzko eta pertsona horren egoera zehatzari buruzko mapa bat eskaini behar du arreta pertsonalizatuak. Hautatzeko gaitasuna ezin erabili daiteke informaziorik gabe, eta ezinbestekoa

da pertsonei beren erabakiak behar bezala informatuta hartu ahal izateko behar duten laguntza eta orientazioa ematea. Hautatzeko gaitasuna bermatzeko informazio osoa eta nahikoa jasotzeak eskatzen du esku hartzeetan informazioa eta komunikazioa irisgarriak izatea, gardenak eta pertsona bakoitzaren komunikatzeko moduari egokituak.

Gida horrekin bat etorrita, hauexek dira pertsonalizazioa gauzatzen den antolakuntza dimentsioak:

- Zerbitzuen katalogoa eta baliabideak eskuratzeko moduak zehaztea: askatasunez hautatzearen garrantzia.
- Profesionalen eginkizuna.
- Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen antolakuntza dinamikak.
- Zentroen diseinu fisikoa, arkitektonikoa eta ingurumenekoa, eta desinstituzionalizazioaren garrantzia.
- Zentroetako bizimodua arautzen duen araudia.
- Plangintza, esku hartze indibiduala eta eguneroko jarduerak.
- Erabiltzaileen parte hartzea erabaki kolektiboak hartzean.
- Baliabide komunitarioen erabilera eta komunitatean sartzea.

Aipatutako bizi dimentsio horiek eta bizi dimentsioak gauzatzen diren antolakuntza dimentsioak aintzat harturik, hauexek ahalbidetzen die pertsonalizazioak Gizarte Zerbitzuetara jotzen duten pertsonei:

- Pertsona bakoitzak joan nahi duen zentroa edo jaso nahi duen zerbitzua edo programa eta zerbitzu horiek emango dituen entitatea edo pertsona aukeratzeko posibilitatea.
- Pertsona bakoitza biziko den lekua –edo, gutxienez, leku mota– aukeratzeko posibilitatea.
- Pertsona bakoitzak arreta programaren esparruan egiten dituen jarduerak aukeratzeko eta bere esku hartze prozesuaren helburuak zehazteko posibilitatea.
- Esku hartzearen helburuak eta edukiak artatutako pertsonaren benetako interesetara eta balioetara egokitzeko aukera.
- Arautu beharreko eguneroko bizitzako alderdi ugariei lotutako kontuak hautatzeko aukera, bereziki egoitza zerbitzuen esparruan: ordutegiak, egonlekuak, konpainiak, janzkera, otorduak...
- Gertuko erreferente profesional egonkorrak izateko aukera, eta pertsona bakoitzak behar dituen gizarte, osasun eta laguntza zerbitzuak edo gizarte eta hezkuntza arloko zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna duten profesionalen zuzkidura nahikoa izateko aukera.
- Pertsona bakoitzarentzat lantzen den banakako arreta plana egiten parte hartzeko aukera, eta planari buruz duen iritzia erabakigarritzat jotzeko aukera.
- Pertsona bakoitzak izan nahi dituen harreman pertsonalak aukeratzeko posibilitatea, gainerako pertsonen neurri berean.
- Eguneroko jarduera ez berezituetan eta komunitarioetan parte hartzeko aukera, gainerako pertsonen neurri berean.
- Zaindutako pertsonaren lehen mailako euskarri sarea aldi berean behar bezala lagunduta eta babestuta egoteko aukera, zaintzak eta laguntzak emateko prozesu osoan.

[03.3.2]
Profilen estratifikazioa eta konplexutasunaren araberako beharrak

Gizarte bazterketaren kontzeptuaren barruan biltzen diren egoera, profil eta premien aniztasuna eta haren dimentsio anitzeko izaeratik eratorritako eskumen sakabanaketa kontuan harturik, mekanismo batzuk antolatu behar dira planteatzen diren profil edo premia bakoitzari erantzuteko erantzukizuna zein eragilek –publikoak edo pribatuak– bere gain hartu behar duen argi eta garbi zehazteko. Euskadin Gizarte Zerbitzuaren arloan indarrean dagoen arautegiak, batez ere Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak eta Zorroari buruzko 85/2015 Dekretuak, kontu horiek argitzen laguntzen dutela pentsa daitekeen arren, beste mekanismo batzuk antolatu behar dira, eginkizunak eta erantzukizunak zehazten aurrera egin ahal izateko (bereziki Gizarte Zerbitzuen barruko lehen eta bigarren mailako arreta mailen artean, baina baita babes sistema desberdinen artean ere), eta, gainera, hainbat arrazoirengatik erantzukizun publikoko sistemek behar bezala estaltzen ez dituzten egoerei, profilei eta beharrizanei erantzun bat emateko.

Testuinguru horretan, Plan honek estratifikazio edo segmentazio eredua egiten du bere –Kaiserren piramidea–. Eredu horrek aukera ematen du erakunde maila desberdinei erantzukizun zehatzak esleitzeko, profil eta premia desberdinei egokitutako baliabideekin erantzuteko eta, azkenik, premia guztiei erantzuteko, eta ez soilik Gizarte Zerbitzuetan sartzeko baldintza formalak betetzen dituztenei. Beraz, estratifikazioaren ideia funtsezko elementua da baliabideen sarea berrantolatzeko Plan honen esparruan.

1. irudian dago jasota proposatutako estratifikazioaren oinarrizko eredua laburbiltzen duen oinarrizko eskema. Funtsean, artatu beharreko profilen estratifikazioaren aldeko apustua egiten du ereduak, arrisku mailaren eta beharrizanen arabera. Lau estratu edo segmentu bereizten ditu, eta horietako bakoitzari esku hartze jakin bat dagokio, aldi berean maila instituzional batzuei dagokiena. Ikuspegi horretatik ondorioztatzen den planteamenduaren helburua da zerbitzuen esleipena laguntza premietan ardaztea, autozaintza edo autokudeaketa eta autodeterminazioa sustatzea, baliabideen optimizazio handiagoa ahalbidetuz, baliabideen esleipena egokiagoa izan dadin eta pertsonarentzat onura gehiago ekar ditzan. Sistemaren eta profesionalen proaktibitate handiagoa sustatzen da, ez hainbeste eskariaren arabera, baizik eta "esleitutako" biztanleria testuingurua osatzen duten pertsonen premien arabera.

Testuinguru horretan, hurrengo orrialdean ikus daitekeenez, lau kategoria bereizten dira, eta kategoria bakoitzari esku hartze eta baliabide jakin batzuk dagozkio; kategoria horiek besteak beste, autokudeaketa mailan eta jasotako laguntza mailan bereizten dira, eta beraz, zenbat eta handiagoak izan arriskua eta konplexutasuna orduan eta txikiagoa da autokudeatzeko gaitasuna eta handiagoa eskainitako laguntzen intentsitatea.

- 0 mailan biltzen dira, oro har, herritarrak eta/edo jarraipenik behar ez duten unean uneko arreta aktibatzeko aukera dutenak. Herritarren segmentu horri begira garatutako politikak bizi kalitatearen hobekuntzarekin daude lotuta, egiturazko baldintzetan eragiten dute, eta gizarteratzearen, berdintasunaren eta gizarte kohesioaren hobekuntza dute xede. Beharrizan horiei erantzuten dieten baliabideak lehen mailako arreta zerbitzuak dira (arreta sistema guztietan), eta funtsean prebentziozko eginkizuna dute. Kolektibo horren beharrizanei erantzuteko ekintza komunitarioa sustatzeko politika garatu behar da, laguntza komunitarioak garatu behar dira, indartu egin behar dira elkarte sareak eta auzo sareak, eta enplegu politika aktiboak, osasuna, etxebizitza, diru sarreren bermea eta beste arlo batzuk landu behar dira.

  Maila horretan funtsezko eginkizuna betetzen du Elkar-EKIN Lanean estrategiaren testuinguruan garatzen diren lana aktibatzeko eta enplegagarritasunari laguntzeko baliabideen sustapenak.

- 1. mailan daude jasota arrisku edo konplexutasun arineko egoeran dauden pertsonak (esate baterako, Gizarte Bazterketa Balioesteko Tresnaren esparruan 2. irizpidearen araberako bazterketa egoera arinean dauden pertsonak). Pertsona horien ezaugarria da batez ere behar materialak eta instrumentalak asetzeari lotutako afekzioak dituztela, ez dutela arazorik autonomia organiko edo funtzionalean, eta noizbehinkako edo intentsitate txikiko laguntzak behar dituztela. Profil horiei erantzuten dieten baliabideak etxeko ingurunean eta ingurune komunitarioan behar dituzten lehen mailako arreta ematekoak dira (arreta sistema guztietan), lehen mailako arretan edo arreta komunitarioan erreferentea den profesionalak eskainiak.

- 2. mailan daude jasota konplexutasun arineko arrisku egoeran dauden pertsonak (esate baterako, Gizarte Bazterketa Balioesteko Tresnaren esparruan 2. irizpidearen araberako bazterketa egoera arinean dauden pertsonak). Pertsona horiek beren eguneroko bizitzaren garapenean eragiten duten osasun arazoak dituzte, laguntza sare eskasa dute edo familia lotura hauskorrak, gatazka egoerara edo bizikidetza hausturara iritsi gabe, eta zailtasunak dituzte gaitasun sozialak garatzeko edo komunikatzeko. Pertsona horiek autokudeatzeko edo beren burua zaintzeko gaitasun txikiagoa dute, eta beraz, intentsitate handiagoko laguntzak behar dituzte, lehen arretako zerbitzuek eskainiak (eskatzen diren babes sistema guztietan), eta bigarren mailako arretako baliabideetako laguntza espezializatuekin osaturik. Halako kasuetan egoitza edo eguneko arreta baliabideak erabiltzeko aukera planteatzen bada ere, egoera horietan ohiko etxebizitzan jarraitzea lehenetsi behar da. Erreferentziazko profesionala lehen mailako arretaren edo bigarren mailako arretaren esparruan egongo da, betiere arretaren testuinguruaren eta pertsonak ingurunearekin duen loturaren arabera.

- 3. mailan daude jasota arrisku edo konplexutasun larriko egoeran dauden pertsonak (esate baterako, Gizarte Bazterketa Balioesteko Tresnaren esparruan bazterketa egoera moderatuan edo larrian dauden pertsonak). Pertsona horiek zailtasunak eta gabeziak dauzkate beren beharrizan materialak eta harreman beharrak asetzeko, eta gabeziak dauzkate garapen pertsonalari eta autonomiari dagokienez. Osasun mentaleko arazoak izan ditzakete, toxikoak kontsumitu ditzakete, eta gabezia esanguratsuak izan ditzakete komunikazioko, autozaintzako eta autogobernuko oinarrizko gaitasunak betetzean, mendekotasun edo desgaitasun egoerak bizitzeaz gain. Mugatuak dira autokudeatzeko aukerak, eta handiak dira laguntza premiak. Bigarren mailako arreta zerbitzuen kudeaketa zerbitzu intentsiboak eskatzen dituzte, babes eta arreta sistemak biltzen dituzten arreta pertsonalizatuko planak behar dituzte, laguntza eta babesa emateko eta kalteak murrizteko funtzioekin, eta gainbegiratutako etxeetan egoteko beharra dute.

1. irudia.
Estratifikazio eredua



Eredu horrek berekin batera dakar laguntza emateko sistema publikoa berrantolatzeko eta berregituratzeko beharra, lehen eta bigarren mailako arreta mailen arteko laguntzei jarraipena emango zaiela bermatzeko eta beste arreta sistema batzuk txertatzeko, konplexutasuna balioesteko tresnak garatzearekin batera.

Bestalde, eredu horrek kontzeptu eta antolakuntza arloko aldaketa sakonak dakartza:

- 1., 2. eta 3. mailetan egonik erabiltzeko baldintzak ez betetzeagatik baliabide konbentzionalak eta/edo erantzukizun publikoko baliabideak erabili ezin dituzten pertsonei laguntzeko baliabideak eta mekanismoak garatzeko beharra, esate baterako, euren egoera administratiboari dagokionez.

- foru eskumeneko bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen eginkizunak 3. Mailan kokatzeko beharra, eta modu osagarrian, 2. Mailan.

- udal eskumeneko lehen mailako arretako gizarte zerbitzuek ematen duten zerbitzua indartzeko beharra, 1. Mailan dauden pertsonei erantzun diezaieten eta, modu osagarrian, 2. Mailan daudenei.

- gizarte babeseko eta ongizateko sistema publiko eta pribatu, komunitario eta espezializatu guztiak indartzeko beharra, funtsean prebentziozko erantzun bat emateko 0 Mailako profilei eta beharrizanei

Identifikatutako profila edo premia egoera		Arreta esparrua edo maila/Esku hartze mota
- Arrisku egoeran edo konplexutasun handiko egoeran dauden pertsonak (adib: GB Moderatua/Handia,GBB aplikatua) - Zailtasunak eta gabeziak premia materiala, harremanetakoak, garapen personalekoak edo autonomia arlokoak asetzeko. - % 65eko desgaitasuna edo handiagoa aitortzea. Aitorpena edo balizko mendekotasuna baloratu gabe. - Buru nahaste larriak izatea edo diagnostikatu gabe izatearen susmoak izatea, ezegonkortasun handiarekin, egokitasunik ezagatik edo tratamendurik ez izateagatik. - Eguneroko bizitzaren garapena larriki kaltetzen duten toxikoen kontsumo aktiboa. - Komunikatzeko, autozaintzeko eta autogobernatzeko oinarrizko gaitasunak ez betetzea edo horien erabileran gabezia esanguratsuak izatea. - Lotura egonkorren gabezia eta/edo lotura ez positiboak. Hala bada, luzaroko isolamendua. - Bere egoera soziosanitario globalarekiko identifikazio eskasa eta azterketa defizitarioa. Laguntza ez onartzea eta are arbuiatzea, Laguntza eska dezake hil ala biziko kasuetan edo oso egoera larrietan. - Gaur egungo egoera soziosanitarioa 2 urtetik gorakoa. - Etengabeko arreta aurreikusten da. Bizi kalitatearen gutxieneko estandar batzuei eustea artatua den bitartean..	LAGUNTZAK E3 Arrisku eta konplexutasun HANDIA	- Deribazioa eta analisia Batzorde Misto Integratuan (Lehenengoa eta Bigarrena) - Arreta espezializatua. Kasuak kudeatzeko metodologia, arlo horretan identifikatutako eta intzatetsitako erreferentziazko profesionalarekin. - Babes eta/edo zaintza sistemak biltzen dituzten arreta plan pertsonalizatuak - Laguntzeko, babesteko eta kalteak murrizteko funtzioa. - BALIABIDE POSIBLEAK: bigarren mailako arreta edo arreta espezializatua halakoak behar diren arreta Zerbitzu edo sistema guztietan. Egoitza zerbitzuan edo eguneko arreta zerbitzuan plaza edukitzeko lehentasuna; laguntzak anbulatorioetan (SEFAC + kalean artatzeko udal zerbitzuak); sarbidea gainbegiratutako etxeetan eta Habitat programaren testuinguruan ("*Oinarrian*" modalitatean); gizarteratzeko Laguntza Ekonomikoak aktibatzeko aukera. Hala badagokio, etxebizitza eskuratzeko lehentasuna, laguntzekin; bigarren mailako eguneko zentroak, etab.
- Arrisku egoeran edo konplexutasun ertaineko egoeran dauden pertsonak (adib.:RC1 / GB Moderatua, GBTT aplikatua) - Behar materialak eta instrumentalak asetzeari lotutako afekzioak. - Eguneroko bizitzaren garapenean eragiten duten osasun egoera zailak bizi dituzte; tratamenduan diren buru nahasmenduak eta/edo zailtasun batzuk eragiten dituzten toxikoen kontsumoa. - %65etik beherako desgaitasun posiblea. - Zailtasunak komunikatzeko, autozaintzeko eta autogobernatzeko gaitasun sozialak erabiltzeko. Intentsitate ertaineko laguntzak behar izaten dituzte maiz. - Laguntza sare eskasa eta lotura hauskorrak, afektiboak zein komunitarioak, gatazkarik edo bizikidetza hausturarik gabe.. - Bere egoera social orokorrarekiko kontzientzia du eta analisi egokia egiten du. - Hein batean eta modu erregularrean onartzen ditu laguntzak. - Gaur egungo egoera soziosanitarioa 2 urtetik beherakoa. - Pronostiko onak laguntzak jasoz gero.	E2 Arrisku Edo konplexutasun ERTAINA	- Deribazioa eta analisia Batzorde Misto Integratuan (Lehenengoa eta Bigarrena) - Erreferentziazko profesionala lehen mailako arretaren edo bigarren mailako arretaren esparruan, betiere arretaren testuinguruaren eta pertsonak ingurunearekin duen loturaren arabera. - Laguntza eta sustapen funtzioa. - Ohiko inguruneanjarraitzea lehenestea. Beste arreta testuinguru batzuetan sartzeko aukera: Egoitza (zentroa edo etebizitza), eguneko zentroa.... - BALIABIDE POSIBLEAK: Lehen mailako arreta halakoak behar diren arreta Zerbitzu edo sistema guztietan, bigarren mailako laguntza osagarriekin edo espezializatuekin. Komunitatearen testuinguruan mantentzen ez den kasuetan, bigarren mailako arreta. - Balorazio espezializatua egiteko eskaera eta sarrera bigarren mailako arreta zerbitzuetan; laguntzak anbulatorioetan (SEFAC + kalean artatzeko udal zerbitzuak); Gizarteratzeko Laguntza Ekonomikoak aktibatzeko aukera, sarbidea gainbegiratutako etxeetan, bigarren mailako eguneko zentroak, etab. - Hala badagokio, lehentasunezko sarbidea udal ardurapeko zerbitzuetan.
- Arrisku egoeran edo konplexutasun txikiko egoeran dauden pertsonak (adib.: RC2, GBBT aplikatuta) - Batez ere behar materialak eta instrumentalak asetzeari lotutako afekzioak: diru sarrera irregunlarrak edo noizbehinkakoak; prekarietatea edo ezegonkortasuna enpleguan; gabeziak formakuntza eta kualifikazio mailan; etxebizitza ezegokia edo egonkortasunik gabe, osasun mailako zailtasunik gabe edo egonkortasun mailako afekzio txikiarekin, diagnostikatutako eta tratatutako gaixotasunarekin. - Eraginik gabe autonomia organiko edo funtzionalari dagokionez. - Komunikazeko, autozaintzeko eta autogobernatzeko oinarrizko gaitasun sozialak oro har erabiltzen ditu. - Inguru komunitarioan parte hartzeko edo harremanak eta/edo loturak izateko prestasuna - Prozesu hasiberriak, 6 hilabetetik beherakoak. - Bere egoera sozial orokorrarekiko kontzientzia du eta analisi egokia egiten du. - Laguntzak onartu eta egoki erabiltzen ditu. Atxikimendu ona. - Laguntza gutxi behar ditu eta/edo aldi batez/noizbehinka	E1 Zaurgarritasuna: Arrisku edo Konplexutasun TXIKIA	- Lehen mailako arreta halakoak behar diren arreta sistema guztietan. - Prebentzio, laguntza eta sustapen funtzioa. - Ingurune komunitarioan jarraitzea eta, ahal dela, etxean artatzea. - Erreferentziazko profesionala lehen mailako arretan edo arreta komunitarioan - BALIABIDE POSIBLEAK: sarbidea udal ardurapeko OGZen berezko zerbitzuetan eta prestazioetan.
- Jarraipenik behar ez duen unean uneko arreta aktibatzeko posibilitatea planteatu dezaketen herritarrak. - Lurraldeko pertsonen bizi kalitatea hobetzea egiturazko baldintzetan duen eraginetik abiatuta. - Gizarteratzea, berdintasuna eta Gizarte kohesioa hobetzea	E0 Arrisku edo Konplexutasun gabezia. AUTOKUDEAKE	- Lehen mailako arreta halakoak behar diren arreta sistema guztietan. - Prebentzio funtzioa. - Ekintza komunitarioa, parte hartzea eta gizarteratzea sustatzeko politikak. - Inbertsioa elkarte sareetan, auzo elkarteetan, lagutnza komunitarioetan... - Irisgarritasuna inguruneetara, teknologia, DBE (18-23 urte bitarteko gazteak barne hartuta eta UCren birdefinizioa); lurralde garapena; enplegu eta etxebizitza politika aktiboak, unibertsaltasuna osauna zaintzeko aukeretan.

[03.3.3]
Lurralde ikuspegia eta arreta emateko tokiko eta eskualdeko sareak sustatzea: zerbitzuen integraziorantz.

Premien pertsonalizazioarekin eta estratifikazioarekin batera, arreta ereduaren oinarrizko elementuetako hirugarrena lurralde ikuspegiari eta tokiko eta eskualdeko arreta sareen sustapenari buruzkoa da, sareko lanaren eta lehen eta bigarren mailako arreta zerbitzuen integrazioaren bidez bultzatu beharrekoa. Gizarte Politiketako Departamentuaren 2020>2030 Agendan ezartzen denaren arabera, besteak beste zaintzen tokiko ekosistemen sorreran aurrerapenak egiteko beharrari erantzuten dio zerbitzuak lurralde ikuspegi batetik konfiguratzen jarraitzeko beharrak. Ekosistema horiek, dokumentu horretan adierazitakoaren arabera, gizarte zerbitzuek eta zerbitzu soziosanitarioek eskaintzen duten arretaren, zainketen eta babesen ikuspegi eta kudeaketa sozial eta soziosanitarioa ahalbidetzen dute maila jakin batzuetan (udal eta foru mailetan).

Gizarteratzeko gizarte zerbitzuen lurralde antolakuntza ezinbestekoa da hainbat ikuspuntutatik:

- Lurralde mailan orekatuagoa den baliabide sarea konfiguratu behar da, Lurraldeko eremu jakin batzuetan gaur egun gertatzen den baliabideen gehiegizko kontzentrazioa murriztuz eta Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean ezarritako hurbiltasun eta arreta komunitarioko irizpideekin bat etorrita.

- Udal titulartasuneko eta udalaz gaindiko titulartasuneko ekipamenduak sustatu behar dira, eskualde mailako akordioak lortu behar dira –foru administrazioak susta ditzakeenak– eskualde mailako (hurbiltasun ertainean) lehen mailako arreta emateko baliabideen plangintzan aurrerapausoak egiteko.

- Aurrera egiten jarraitzea[4] Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte zerbitzuetan eta, zehazki, gizarteratzearen esparruan duen lurralde lidergoa bere gain hartzen. Gizarte Zerbitzuen Maparen zabalkundea sustatzeaz gain, foru erakundeak lehen mailako arretaren euskarriarena edo laguntza teknikoarena bete dezake. Kontuan izanik Gizarteratzeko II. Planaren arreta ereduaren ikuspegi komunitarioa, esku hartze komunitarioa errazago garatu daiteke sare sozialetan eta hirugarren sektoreko erakundeekin batera lan eginez, eta beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei eta erakundeei lagundu diezaieke aktibazio komunitarioa sustatzen, xede horretarako lidergo propio bat baliatu behar izan gabe.

- Gertuko ekintzen garapena sustatzea hainbat ardatzen inguruan, esate baterako, foru eta udal esparruko zerbitzuak eta baliabideak detektatzeko, balioesteko eta hurbiltzeko, honako hauen bidez: kalean esku hartuta, jarduerak aire zabalean eginda, erreferentziazko baliabide polibalenteak eskainita, etab.

Ildo horretan, lehendik azaldutako estratifikazio eredua kontuan hartuta, hauexek dakartza lurralde ikuspegiaren sustapenak:

- Bigarren mailako arretako foru zerbitzuen eta lehen mailako arretako udal zerbitzuen arteko baterako lanean aurrera egitea, bai kasuan kasuari dagokionez, bai baliabide eta ekimen bateratuak sustatzeari dagokionez.

- Lehen mailako arreta zerbitzuak eskualdeetan ezartzeko eta/edo mankomunatzeko lanean aurrera egitea, Gipuzkoako eskualde guztietan Gizarte Zerbitzuen Zorroan aurreikusitako lehen mailako arreta zerbitzuak eta Kaiserren piramidearen oinean dauden herritar profilei bideratutako programak, baliabideak eta prebentziozko jarduerak eskaini ahal izateko.

4 Planaren ebaluazioaren harira izandako elkarrizketetan, kontsultatutako pertsona batzuek aitortzen dute Plan honek oinarriak jarri dituela Foru Diputazioak lurralde mailako lidergo handiagoa izan dezan`. Aldaketa horrek ahalbidetu du foru erakundeak Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakundeen arteko Mahaia sustatu izana, hainbat eskualdetan gizarte zerbitzuen mapak egitea sustatu izana, beste eskualde batzuetan plan pilotuak bultzatu izana, laneratzearen esparruan eskualdeko lana sustatu izana, gogoetatzeko prozesu sistematikoak abian jarri izana eta, oro har, ikuspegi honetatik, Gizarte Zerbitzuen gobernantzaren lidergoan erakundearen inplikazio handiagoa gertatu izana.

- Gizarte zerbitzuen eta gainerako babes sistemen (enplegua, sarreren bermea, osasuna, etxebizitza, etab.) artean eta eskualde mailan, komunikazio eta koordinazio bide egonkorrak sortzeko lanean aurrera egitea.

- Elkar-EKIN Lanean Estrategiaren zabalkundean aurrera egitea, bereziki eskualde mailan lana aktibatzeko baliabideen garapenarekin zerikusia duen guztian.



[04.]
Lehentasunak, ardatzak, helburuak eta orientazioak.

Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko II. Plan honek –esan bezala I. Planaren ebaluaziotik eratorria dena– oinarri dituen printzipio orokorrez eta arreta ereduaz gain, oinarri duen oinarrizko diagnostikoa planteatu ondoren, laugarren epigrafe honetan daude jasota Planak aurre egin nahi dien erronka nagusiak, baita landu nahi dituen beharrizanak eta egoerak ere, lehentasunezko arreta eskatzen dutenak. Halaber, laugarren epigrafe honetan daude jasota Plana egituratzen duten helburuak eta ardatzak eta Marko Estrategiko honen muina osatzen duten gomendioak, jarraibideak eta orientabideak.

[04.1]

Erronka nagusiak.

Plan honen bitartez aurre egin nahi diren erronka nagusiei dagokienez, oinarrizko zazpi erronka aipatu behar dira:

- **Hobetu behar da** gizarte zerbitzuen sistema barruko eta beste gizarte babeseko sistema arteko **koordinazioa**, mikro mailan (pertsonak) eta makro mailan (erakundeak), **herritarrei arreta jarraitua eta osoa eskaintzeko**. Erronka horri erantzuteko: a) aurrerapausoak egin behar dira administrazioaren maila desberdinen artean zerbitzuak modu koordinatuan emateko, tokiko gizarteratzeko ekosistemak garatuz eta profilak eta beharrizanak estratifikatuz; eta b) bermatu egin behar da inplikatutako administrazio guztiek gizarte bazterketaren arloko prebentzioan eta esku hartzean beren erantzukizunak betetzen dituztela.

- Gipuzkoako eskualde guztietan bultzatu behar da **Gizarte Zerbitzuen Zorroaren araberako baliabideen eta zerbitzuen zabalkunde egokia**, eta zerbitzu eta prestazio horiek bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen benetako beharrizanetara egokitu behar dira, arretaren kalitatea bermatuz.

- Gizarte osoarentzat gizarte bazterketako arriskuak –enpleguaren, etxebizitzaren, osasunaren, sarreren bermearen, heziketaren eta kulturaren esparruetan– murriztea ahalbidetzen duten **prebentziozko zerbitzuen garapena** bultzatu behar da, eta bermatu behar da **Gizarte Zerbitzuen Zorroaren araberako zerbitzua**k eta/edo gizarte babeseko beste sistemak **erabiltzen ez dituzten pertsonei behar bezala erantzungo dien oinarrizko arreta sare** baten presentzia.

- Gizarteratzeko Gizarte Zerbitzuen esparruan **pertsonalizazioaren agenda** garatu behar da, eta horretarako, hura ardazten duten ikuspegiak, ereduak, metodologiak eta printzipioak txertatu behar dira: bizi kalitatea, autodeterminazioa, laguntzen eredua, baldintzagabekotasuna eta kalteen murrizketa, etab.

- **Sektorearen egituraketa** ahalbidetu behar da ezagutza kudeatuz (formakuntza, ebaluazioa, ikerkuntza eta berrikuntza), arauak eginez eta sistemaren **lankidetza gobernantza** sustatuz, baita gizarteratzearen esparruan esku hartzen duen Hirugarren Sektorearen artikulazioa indartuz ere.

- Gizarteratzearen arloan **herritarren sentsibilizazioa eta parte hartzea** sustatu behar da, baita **erabiltzaileen parte hartze soziala** ere, eta **komunitatea aktibatzeko sareak eta proiektuak**, bazterketa prozesuen prebentzioa eta egoera horiei gertuko erantzun komunitarioak ematea ahalbidetzen dutenak, bultzatu behar dira.

- **Genero ikuspegia** modu egiturazkoan eta zeharkakoan txertatu behar da gizarteratzeko zerbitzuen, zentroen eta programen diseinuan eta planifikazioan, eta aldi berean bermatu behar da aintzat hartzen direla pertsona migratzaileen edo gutxiengo etnietako pertsonen eskubideak eta beharrizanak (kulturarteko ikuspegia).

[04.2]

Lehentasunezko arreta premiak eta egoerak.

Aurreko orrialdeetan azaldu dugun bezala, II. Plan hau ez dago kolektiboen edo profil espezifikoen arabera diseinatuta, baizik eta beharrizanen estratifikazioaren eta arrisku eta konplexutasun egoeren arabera[5]. Halere, II. Planaren diseinuan parte hartu duten eragileek agerian utzi dute Planak lehentasunezko arreta eman behar dien kolektibo, profil eta beharrizanak daudela. Gehiegi sakondu nahi izan gabe, ondoko taulan daude jasota profil eta kolektibo horietako batzuk, beren ezaugarri nagusien arabera sailkatuta.

3. koadroa.
Lehentasunezko arreta premiak eta egoerak

KONPLEXUTASUN HANDIKO BAZTERKETA EGOERAK	• Luzaroan etxegabetasun egoeran egondako pertsonak, adikzioak dituztenak eta/edo osasun mentaleko arazoak; • Etxegabetasun egoeran dauden emakumeak, osasun mentaleko arazoak dituztenak eta/edo abusuak eta tratu txarrak jasan dituztenak; • Zerbitzuen eta laguntzeko baliabideen arauetara egokitzeko zailtasun handiak dituzten pertsonak;
HAURTZAROA ETA FAMILIA ARRISKU EGOERAN	• Familia gurasobakarraren ardura duten emakumeak, kanpoko laguntzarik ez dutenak; • Haurrak hazteko zailtasunak dituzten eta/edo gizarte eta hezkuntza arloetan desabantaila egoeran dauden familiak;
BAZTERKETA EGOERAN DAUDEN EDO ARRISKUAN DAUDEN MIGRATZAILEAK, ERREFUXIATUAK ETA GUTXIENGO ETNIKOETAKO PERTSONAK	• Migratzaileak edo errefuxiatuak, egoera irregularrean edo erroldatu gabe daudenak; • Beste herialde batzuetara bidean dauden migratzaileak edo babes eskatzaileak; • Atzerriko pertsonak, etxebizitzaren, enpleguaren, diru sarreren eta gizarte harremanen esparruetan sartzeko zailtasunak dituztenak; • Bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden ijitoak;
BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN GAZTEAK	• Babes sistema abandonatzen duten gazteak, erreferentzia edo lotura sendorik izan gabe; • Laguntzarik eta erreferentziarik gabeko gazte migratzaileak (bereziki egoera irregularrean daudenak); • Helduen bizitzarako trantsizioa egiteko zailtasunak dituzten nerabeak; • Hezkuntza sistema formalean zailtasunak dauzkaten gazteak; • Adingabeak babesteko sistematik irteten diren gazteak, bazterketa egoeretan gertatzen direnak (kalea, kontsumoak, laguntzarik eza..);
PREMIA SOZIOLABORALAK, SOZIOSANITARIOAK ETA SOZIOERRESIDENTZIALAK DITUZTEN PERTSONAK	• Hainbat esparrutan zailtasunak eta gabeziak dituzten pertsonak, sistema batek baino gehiagok artatuak izateko modukoak (esate baterako, mendekotasunak dituzten pertsonak eta bazterketa egoeran daudenak); • Egoitza egoera arinean edo moderatuan dauden edo ezkutuko etxegabetasun egoeran dauden pertsonak; • Prestakuntzarik gabeko pertsonak, laneko ezegonkortasun egoera larrian edo iraupen luzeko langabezia egoeran daudenak; • Gaixotasun mentalak eta/edo gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak, laguntza familiarra ez dutenak; • Adikzio arazoak dituzten pertsonak • Isolamendu eta bakardade egoeran dauden pertsonak.

5 Fantovak azaldu duen bezala (2017: 22), pertsonalizazioak "neurri handi batean ibilbide estandar baterako (kasu batzuetan, hitzez hitz, sehaskatik hilobira, esate baterako, adimen urritasuna duten pertsona ez gutxiren kasuan) 'pasaporte' gisa funtzionatzen duten kolektibo handiek zaharkitutako segmentazio mota hori gainditu behar du, eta aurrera egin behar da ibilbide protokolizatu eta malguen aniztasuna sortzen duten mikrosegmentazio prozesuetan. Prozesu horietan, zerbitzuek gutxiago funtzionatuko dute egoteko leku gisa, eta gehiago hornitzaile eta laguntza aktibatzaile gisa, gero eta autokudeatuagoak, komunitarioak eta sexu, belaunaldi, funtzio eta kultura aniztasunari erantzuteko gai direnak".

[04.3]

Ekintza ardatzak eta helburu estrategikoak.

Orain arte azaldu diren elementuetatik abiaturik –arau esparrua eta marko estrategikoa, printzipio orokorrak, arreta eredua, erronka nagusiak eta lehentasunezko arretaren xede diren kolektiboak eta beharrizanak– Planaren ekintza ardatzak eta helburu estrategikoak ezarriko dira, eta horiek jarraibideen, konpromisoen eta proiektu eragileen bidez garatuko dira. Hauexek dira Gipuzkoako Gizarteratzeko II. Plana egituratzen duten lau ardatzak, bereizita baina elkarri lotuta:

- 1. ardatza. Gizarte bazterketaren **prebentziora** bideratutako jarduerak bultzatzea eta **arrisku egoeren aurreko erantzun komunitarioa** indartzea. Era berean, gizartearen sentsibilizazioa sustatzea txirotasun, desberdintasun eta gizarte bazterketako egoeren aurrean, eta gizarte politiken garapenean gizarte osoaren **parte hartzea** ahalbidetzea, bereziki bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonena.

- 2. ardatza. Gizarte bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonek **enplegua, etxebizitza, diru sarrerak bermatzeko** prestazioak, **formakuntza, kultura** eta **osasun zaintzak** eskura ditzaten sustatzea.

- 3. ardatza. Gizarteratzeko **Gizarte Zerbitzuen sistema publikoa pertsonalizazioaren** ikuspegitik finkatzea, eta aurrera egitea Lurraldean Gizarte Zerbitzuen sistemako lehen eta bigarren mailako arreta mailak **integratzeko** bidean.

- 4. ardatza. Lurraldeko gizarteratzeko politiken **artikulazioa** eta lankidetza **gobernantza** hobetzea, erantzukizun publikoa bermatuz, eta sarearen **prospektiba, ebaluazio, ikerketa, formakuntza** eta **berrikuntzarako** gaitasunak indartzea.

20 Helburu Estrategikotan egituratzen dira lau ardatz horiek.

4. koadroa.
Ardatzak eta helburu estrategikoak.
Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko II. Plana

ARDATZAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK
1. ARDATZA. PREBENTZIOA, AKTIBAZIO KOMUNITARIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTE HARTZEA	1. Gizarte bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden eta Gizarte Zerbitzuen sistema publikoa baliatzeko zailtasunak dituzten pertsonei estaldura emateko jarduerak garatzea. 2. Tokiko eta eskualdeko koordinazio egiturak eta mekanismoak sustatzea, bazterketa prebenitzeko eta horri aurre egiteko tokiko ekosistemen garapena bultzatuz. 3. Tokiko eta gertuko ekimen komunitarioak sustatzea, gizarte bazterketako egoerak prebenitzea eta horiei aurre egitea ahalbidetuko dutenak. 4. Lurraldeko txirotasun, desberdintasun eta gizarte bazterketako egoeren inguruan herritar guztiak informatuta egoteko eta sentsibilizatzeko ekintzak bultzatzea. 5. Zerbitzuen kudeaketan erabiltzaileen parte hartzea sustatzea, eta gizarte politiken diseinuan herritar guztien parte hartzea ahalbidetzea.

2. ARDATZA. SARBIDEA ENPLEGU, DIRU SARREREN BERME, JUSTIZIA, OSASUN, ETXEBIZITZA ETA FORMAKUNTZA SISTEMETARA	6. Elkar-EKIN Lanean estrategiaren esparruan, bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko berariazko jarduerak garatzea. 7. Gizarte bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden eta diru sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzen dituzten pertsonei gizarte laguntzak emateko prozesuak hobetzea. 8. Lurraldean hobekuntzak sustatzea prestazio sistemaren osotasunean, txirotasun eta desberdintasun egoerak murrizteko. 9. Bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonek etxebizitza eskura dezaten sustatzea eta ostatatze arloan dituzten premiei erantzutea. 10. Bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonei osasun zerbitzuetarako sarbidea ahalbidetzea. 11. Zigorra Lurraldean betetzen duten pertsonei gizarteratzeko eta laneratzeko eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetzea. 12. Bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonei kultura, aisia edo denbora libreko jardueretarako sarbidea ahalbidetzea.
3. ARDATZA. GIZARTERATZEKO GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMA FINKATZEA	13. Lurraldeko eskualde guztietan Gizarte Zerbitzuen Zorroan aurreikusitako baliabideak eta ekipamenduak garatzea. 14. Sareko zerbitzuen funtzionamendua pertsonalizazioaren ikuspegira egokitzea eta arreta eredu komuna finkatzeko aurrerapausoak egitea. 15. Lehen eta bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen baterako lanerako eta/edo integraziorako beharrezko akordioak sortzea. 16. Konplexutasun handiko bazterketa egoeran dauden pertsonei ematen zaien arreta hobetzea.
4. ARDATZA. ARTIKULAZIOA ETA GOBERNANTZA	17. Sistemaren koordinazio eta gobernantza mekanismoak sustatzea. 18. Gizarteratzearen esparruan lan egiten duten erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuen erakunde hornitzaileen nahikotasun teknikoa eta ekonomikoa bermatzea. 19. Ebaluazio, formakuntza, berrikuntza, behaketa eta ikerkuntza tresnak sustatzea. 20. Bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden emakumeen beharrizanei aurre egitea ahalbidetuko duten neurri eta jarduera espezifikoak ezartzea, eta zerbitzuen diseinuan eta prestazioan genero ikuspegia sustatzea.

[04.4]

Orientabideak, gomendioak eta jarraibideak

Orientabide orokorrak dira gomendioak edo jarraibideak, Planari atxikitako eragileak gidatu nahi dituzte ezarritako marko kontzeptual eta teknikoarekin bat datozen neurri edo jarduera posibleak identifikatzerakoan, ondoren Gipuzkoako Lurralde Historikoan garatzeko. Plana egituratzen duten ardatzen arabera artikulatzen dira, eta lehen adierazitako helburuak garatzen dituzte. Planaren indarraldian zehar, jarduera zehatzetan gauzatu behar dituzte gomendio horiek Planari atxikitako erakundeek beren eskumenen esparruan.

Gomendio orokorrak diren arren, ahalik eta modu zehatzenean formulatzen saiatu gara, erakundeek jarraipen eta ebaluazio prozesuan gomendio edo orientabide horietakoren bat aplikatu duten modu frogagarrian adieraz dezaten. Konpromisoak ez bezala, orientabideak ez dira erakunde zehatzekin lotzen eta, haien eskumenen eta lehentasunen arabera, Planari lotutako edozein erakundek gara ditzake.

1. ardatza. Prebentzioa, aktibazio komunitarioa, sentsibilizazioa eta parte hartzea.

1. Bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonei zuzendutako zerbitzuen eta prestazioen sarbidearekin lotutako administrazio izapideak sinplifikatzeko neurri espezifikoak hartzea, lurraldean bizi diren eta Biztanleen Erroldan inskribatuta ez dauden pertsonen erroldatzeari arreta berezia emanez.

2. Hirugarren Sektoreko erakundeek administrazio publikoekin elkarlanean ematen dituzten zerbitzuak indartzea berehalako erantzuna emateko beste herrialde batera bidean dauden migratzaileei eta asilo eskatzaileei.

3. Egoitza zentroetatik eta/edo barnetegietatik irteteko prozesuak behar bezala planifikatzeko beharrezko neurriak hartzea, desinstituzionalizatzeko prozesu arrakastatsuak bermatzeko eta egoitza bazterketako egoerak prebenitzeko.

4. Gizarte zerbitzuen esparruan parte hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzuaren garapenean aurrera egitea, batez ere eskualde mailan, Gizarte Zerbitzuen Zorroan aurreikusitakoaren arabera.

5. Elkar-Ekin Lanean estrategiaren markoan, enplegua lortzeko zailtasun handiak dituzten pertsonak aktibatzeko eta laneratzeko jardueren garapenean aurrera egitea.

6. Haurtzaroan txirotasuna eta bazterketa prebenitzeko jarduera espezifikoak garatzea erkidego mailan garatzen diren haurrak babesteko programen esparruan.

7. Gizarte bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen oinarrizko premiak asetzeko ekimenak indartzea eta berrantolatzea.

8. Migratzaileei, errefuxiatuei edo asilo eskatzaileei eta gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden beste pertsona batzuei harrera egitean berariazko laguntza programak, mentoretza programak, babes komunitarioko programak eta herritarrak inplikatzeko bestelako formulak garatzea.

9. Kulturaren eta kirolaren bitartez gizarteratzeko programak garatzea, bereziki gizarte bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonei zuzenduak.

10. Komunitateetan eta auzoetan, batez ere auzo eta kultura elkarteen bitartez, kulturartekotasuna sustatzeko programak garatzea.

11. Bitartekaritza komunitarioko programak sustatzea eta aniztasun eta bizikidetza planak lantzea, bizilagun, auzo edo komunitate mailako gatazkak prebenitzeko eta horien aurrean esku hartzeko.

12. Gizarteratzeko politiken diseinuan eta zentroen eta zerbitzuen kudeaketan erabiltzaileen parte hartzea sustatzeko jarduerak garatzea.

13. Gizarte bazterketako egoerekin edo arriskuekin lotuta, ohiko hedabideetan sentsibilizazio kanpaina espezifikoak egitea.

14. Diskurtso eta mezu inklusiboei zabalkundea emateko ekimenak indartzea, gizarteratzeko politiken legezkotasun soziala ahalbidetzeko eta aniztasunean oinarritutako bizikidetza zailtzen duten zurrumurru eta estereotipo negatiboen zabalkundea galarazteko.

15. Tratu berdintasunari eta ez diskriminaziorik ezari buruzko kontzientziazio kanpainak egitea.

16. Gorroto delituak eta gizarte bazterketa jasateko arrisku handiena duten kolektiboen (etxerik gabeko pertsonak, gutxiengo etnikoak, migratzaileak, etab.) eskubideen urraketa prebenitzeko kanpainak egitea.

2. ardatza. Sarbidea enplegu, diru sarreren berme, justizia, osasun, etxebizitza eta formakuntza sistemetara.

17. Diru sarrerak bermatzeko euskal eredua indartzea eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) babes gaitasuna handitzea, bai diru sarrerarik gabeko pertsonentzat bai soldata edo pentsio txikiak dituztenentzat.

18. Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) eta laguntza horiek zaurgarritasun egoeran dauden herritarren larrialdi egoerei aurre egiteko duten gaitasuna indartzea.

19. Diru sarrerak bermatzeko euskal sisteman jasotako prestazio ekonomikoen eta PFEZren esparruan aplikatutako zerga tresnen koordinazioan/integrazioan aurrera egitea.

20. Emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala prebenitzeko eta murrizteko berariazko ekintzak egitea.

21. Elkar-EKIN Lanean estrategiaren markoan, enplegu programa lagunduen eta enplegu babestuen gaitasuna sustatzea, baita gizarteratzeko enpresena ere, gizarte bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan duden pertsonei kalitatezko enpleguetarako sarbidea sustatzeko programak eskaintzeko.

22. Elkar-EKIN Lanean estrategiaren markoan, gizarteratzeko enpresen eta bestelako enpresen arteko aliantzak ahalbidetzea, baita Enplegu Zentro Berezien eta enpresa arrunten artekoak ere, enpresa sarearen gizarte erantzukizuna sustatuz enplegua lortzeko laguntza premia handienak dituzten pertsonen laneratzea bultzatzeko.

23. Kontratazio publikoko prozesuetan klausula sozialak txertatzea, kontratazio publikoan klausulak sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legean xedatutakoarekin eta kontratazio publikoko ingurumen irizpideei buruzko euskal araudian xedatutakoarekin bat etorrita.

24. Laneratzeko laguntza osagarriak ahalbidetzera bideratutako jarduerak garatzea, arreta berezia jarriz kontziliazioaren eta haurren zaintzaren, garraioaren eta lanpostu batean sartzeko beharrezkoak diren ordainketa ekonomikoen arloko beharrizanetan.

25. 0-2 urte bitarteko eskolatze goiztiarraren kalitatean eta irisgarritasunean aurrera egitea, arreta berezia jarriz gizarte ingurune behartsuetatik etorritako haurrengan.

26. Gizarte eta hezkuntza arloko desabantaila handienak dituzten biztanleei bereziki zuzendutako osabidezko hezkuntza, oinarrizko lanbide heziketa eta gizarte eta hezkuntza arloetan esku hartzeko programak indartzea.

27. Etxebizitza berriak eraikiz eta hutsik dauden etxebizitzak mobilizatuz, alokairupeko sustapen publikoko etxebizitzen parkea handitzea, eta gizarte bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonei etxebizitza horiek lehentasunez eskuratzeko aukera sustatzea.

28. Etxebizitza sistemaren eta Gizarte Zerbitzuen sistemaren arteko ekimen bateratuak sustatzea, gizarte bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonei eta Gizarte Zerbitzuen esku hartzeko prozesuen xede izandako pertsonei, etxebizitza lortzen laguntzeko.

29. Etxegabetzeak prebenitzeko jarduerak indartzea.

30. Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta udalen arteko hitzarmenak sustatzea premian dauden gizarte sektoreentzat zuzkidura bizitokien udalaz gaindiko sare bat arian-arian eratzeko.

31. Osasun arreta egokia jasotzeko aukera sustatzeko jarduera espezifikoak garatzea, arreta berezia jarriz adinekoen pertsonengan, desgaitasunak dauzkatenengan, migratzaileengan, gaixotasun mentalak dauzkatenengan eta askatasunik gabeko pertsonengan.

32. Gizarte bazterketako edo bazterkeriako arrisku handia dagoen arloetan esku hartze komunitarioak diseinatzea, buru nahasmenduak eta adikzioak eragiten dituzten faktoreetan jarduteko.

33. Gizarte zaurgarritasun handieneko kolektiboei osasun sistemarako sarbidea ahalbidetuko dieten esku hartze espezifikoak finkatzea, Hirugarren Sektoreko erakundeek kolektibo jakin batzuetara iristeko bitarteko eragile gisa duten zeregina sustatuz.

34. Arrisku edo zaurgarritasun bereziko egoeran dauden pertsonen edo kolektiboen osasuna sustatzea eta adikzioak prebenitzea.

35. Zigorra Gipuzkoako Lurralde Historikoan betetzen duten pertsonei ematen zaien arreta hobetzea eta horiek gizarteratzeko eta laneratzeko programa berriak garatzea.

3. ardatza. Gizarteratzeko gizarte zerbitzuen sistema finkatzea eta zerbitzuen pertsonalizazioa sustatzea.

36. Mikro mailan (arreta pertsonei), sistema barruko eta sistema arteko kudeaketa partekatuan oinarritutako programa berritzaileak garatzea eta erreferentziazko mekanismoak sustatzea.

37. Gizarteratzeko gizarte zerbitzuetan artatutako pertsonei arreta emateko banakako planen balorazioan, preskripzioan eta prestaketan aurrera egitea.

38. Gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzearekin, esku hartze psikosozialarekin eta gizarte laguntzarekin lotutako prestazioak eta zerbitzuak sustatzea, bereziki ingurune komunitarioetan eta ingurune komunitarioetarako garatutakoak.

39. Gizarte Zerbitzuen Zorroan gizarte bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonei begira aurreikusitako zerbitzu guztien zabalkundea sustatzea, lehen mailako zein bigarren mailako arretakoak, Lurraldeko Gizarte Zerbitzuetako oinarrizko zona, eremu, eskualde eta sektore guztietan.

40. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ekintza gaitasuna emendatzea gizarte bazterketako egoerak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko.

41. Gizarteratzeko laguntza publikoak indartzea eta birbideratzea.

42. Lehen eta bigarren mailako arretako zentroen eta zerbitzuen baterako kudeaketa sustatzea, Foru Aldundia eta eskualde bakoitzeko udalak sarea osatzeko beharrezkoak diren ekipamenduen sustapenean eta kudeaketan lotuz.

43. Lurraldeko pertsonalizazioaren garapenaren testuinguruan, erabiltzaileek laguntzak, zerbitzuak eta prestazioak hautatzen parte hartuko dutela bermatzea.

44. Pertsona bakoitzak behar dituen laguntzak edukitzeko prestazio ekonomikoak jasotzeko aukera aztertzea, Gipuzkoan pertsonalizazioaren garapenean aurrera egiteko.

45. Zentroen eta zerbitzuen funtzionamendua egokitzeko bidean aurrera egitea, Gipuzkoan pertsonalizazioaren printzipioetan oinarritutako arreta eredu komun bat eskaintzeko.

46. Konplexutasun handia duten pertsonei espezifikoki zuzendutako programak eta neurriak bultzatzea, arreta berezia jarriz gizarte bazterketako egoeran dauden emakumeengan eta patologia mental larriak dituzten pertsonengan.

4. ardatza. Artikulazioa, berrikuntza eta gobernantza

47. Eskualdeetan eta udalerrietan diagnostikoak eta jarduteko plan espezifikoak garatzea, sareko lana indartzeko eta tokiko arretako ekosistemak eraikitzeko.

48. Auzo, udalerri eta eskualde mailan txirotasunaren eta gizarteratzearen esparruan koordinaziorako lurralde mahaiak sor daitezen bultzatzea, enplegu, osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzuetako zerbitzu publikoen jarduerak koordinatzeko, eta Hirugarren Sektorearen parte hartzea sustatzea.

49. Gertutasun geografikoaren printzipioarekin eta baliabideen erabileraren efizientziaren printzipioarekin bat etorrita, zerbitzuak emateko elkarteen osaera bultzatzea.

50. Zerbitzuetan gizarte bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonentzat lan egiten duten profesionalen eta boluntarioen oinarrizko formakuntzara eta formakuntza espezializatura bideratutako jarduerak indartzea.

51. Gizarteratzearen esparruan lan egiten duten eragileen esku hartzearen kalitatea bermatzeko koordinazio protokoloak, jardunbide egokien eskuliburuak eta esku hartzeko gidak lantzea, eta esku hartzeko eredu komun bat aplikatzea.

52. Arreta zerbitzuen prozesu, emaitza eta eragin adierazleak ezartzea, bai zentroetan edo zerbitzuetan, bai sistema osoan, eta arreta emateko sarea ikuskatzeko eta ebaluatzeko eginkizunak indartzea.

53. Gizarte Zerbitzuen Zorroan gizarteratzeko aurreikusitako zentro eta zerbitzuen eredu arautzaile komunetan aurrera egitea erkidego, foru eta udal mailetan.

54. Gizarteratzearen arloko premiak eta politika publikoek premia horiek asetzeko duten eragina ikertzearekin lotutako jarduerak bultzatzea, ikerkuntza eta azterketa jarduerak indartuz.

55. Gizarteratzean arloan lan egiten duten Hirugarren Sektoreko erakundeen barne artikulazioa eta koordinazioa indartzea.

56. Administrazio publiko guztiek itun sozialeko araubidea eta lankidetza hitzarmenak sustatzea hirugarren sektorearekiko lankidetza formalizatzeko.

57. Enpleguaren kalitatea sustatzea erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeetan.

[05.]
Jarraipena eta gobernantza

[05.1]

Sarrera.

Planaren jarraipenerako eta gobernantzarako tresnak planteatzerakoan, kontuan hartu behar dira elementu hauek:

- Azaldu bezala, Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko II. Plana maila askotako tresna gisa planteatzen da, eta erakunde arteko izaera du, izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak gidatuta, maila askotako erakundeek eta entitateek bat egin dute Plan horrekin. I. Planaren ildoan, II. Plan hau ere administrazioen arteko lankidetzaren ideian oinarrituta dago, Gipuzkoan gizarteratzeko politiken arloan lan egiten duten eragile guztien lan bateratuan eta koordinatuan ardazten baita. Ikuspuntu horretatik, eta Gipuzkoa 2030 Agendaren ildoan[6], plan hau behar bezala kudeatzeko ezinbestekoa da plana txertatzeko eta ebaluatzeko lanetan inplikatutako erakunde eta entitate guztiak biltzea ahalbidetuko duten lankidetza gobernantzarako egiturak sortzea.

- Azaldu bezala, alde batetik Foru Aldundiaren lidergoan oinarritzen da Plana, eta bestetik, erakunde eta entitate sorta handi baten borondatezko aliantzan. Aliantza horri esker Planak ezarritako bideak gauzatuko dira, konpromisoak hartuko dira, jarduera zehatzak burutuko dira eta jarraipen eta ebaluazio lanetan parte hartuko da, benetan burututako ekintzei buruzko beharrezko informazio guztia eskainiz.

- Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko Plan osoa bi tresnaren bidez egituratzen da, Marko Estrategikoaren bidez eta jarduera planen bidez, eta indarraldi eta helburu desberdinak dituzte. Halaber, desberdinak izan behar dira bi tresna horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak.

- Prozesuei eta eraginari buruzko ebaluazioak eta emaitzak jaso behar ditu jarraipen eta ebaluazio prozesuak, eta Gizarte Politiketako Departamentuaren 2020>2030 Agendaren esparruan abian jarritako beste ebaluazio tresna guztiak kontuan hartuta egingo da hori. Zehazki, Gipuzkoa 2030 Agendaren ekintza hauek kontuan hartu behar ditu jarraipen eta ebaluazio ereduak:

  - Gizarte Politiketako Departamentuan Ikerketa, Garapen eta Ebaluazio Unitatea (I+G+E) diseinatzea eta abian jartzea.

  - Gizarte Politiketako Departamentuaren berrikuntzaren eta parte hartzearen monitorizazioa diseinatzea eta ezartzea.

  - Kudeaketa Aurreratuko Aurrerabide Unitatea abian jartzea

  - GLHra egokitutako sarean egiaztatzeko eta ebaluatzeko sistema eredu bat diseinatzea.

  - Arretaren arloan kalitatezko estandar eta jarraibide lotesleak prestatzea.

6 Maila askotako lankidetza gobernantzaren aldeko apustuak ere Gipuzkoan esparru horretan garatzen ari den lanari erantzuten dio. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuaren 20>30 Agendaren arabera, gobernantzan berrikuntza publikoa bideratzeko arloan, egokia da parte hartzeko eta erabakiak hartzeko guneak sustatzea gizarte politikak diseinatzeko, ebaluatzeko, gomendatzeko eta sustatzeko.

- Diseinatzea eta abian jartzea Transakzio Monitorea, Zainketen Ebaluazio Sareak osatua, teknika kualitatibo zein kuantitatiboetan eta erabakiak hartzeko tekniketan oinarritua, Trantsizioko Gizarte Politiken aurrerapena monitorizatzeko.

- Pertsonalizazioaren adierazle sorta bat diseinatzea eta aplikatzea.

[05.2]

Planaren gobernantzarako tresnak.

Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko II. Planaren aplikazioari, jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren emakume Biktimen Arretako Zerbitzuari dagokio lidergoa. Zerbitzuak lau egitura izango ditu plana garatzeko:

- **Idazkaritza Tekniko bat.** Planaren aplikazioren ondoriozko jardueraren zati bat kudeatzeko ardura izango du, eta jardueren koordinazio orokorraz eta Planaren gaineko jarraipenaz arduratuko da. Idazkaritza Tekniko hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuaz kanpoko erakunde baten esku utzi ahal izango da.

- **Planaren Jarraipenerako Batzorde bat.** Planari lotutako erakundeetako ordezkari teknikariek osatuta egongo da. Planaren jardueren gaineko jarraipena egiteko, planaren esparruan garatzen diren jarduerei buruzko eztabaidak egiteko, hobetzeko gomendioak eskaintzeko eta Planaren emaitzei eta eraginei zabalkundea emateko eta ezagutarazteko prozesuei euskarri bat emateko esparru gisa planteatzen da Batzorde hau.

  Hauexek izan litezke Jarraipen Batzorde horren eginkizun posibleak:

  - Laguntzea Jarduera Planak egitean eta baliozkotzean.

  - Planari lotutako erakundeek egindako jarraipen txostenak eta egiten diren ebaluazio txostenak gainbegiratzea.

  - Planaren edukian egokitzapenak eta hobekuntzak proposatzea, eta hala badagokio, jarduera edo helburu berriak gomendatzea.

- **Aholkularitza Talde Teknikoa.** Gainera, aholkularitza talde tekniko bat osatuko da planaren gobernantzarako. Talde hori gizarteratzeko gizarte politiken arloko kudeaketan eta ikerkuntzan kaudimen eta esperientzia handiko pertsonek osatuko dute. Talde horren eginkizunak izango dira Jarraipen Batzordeari eta Aldundi osoari aholkularitza ematea arazo berrien larritasunari buruz eta lan ildo edo jarduera berriak hartzeari buruz, bai eta Planaren jarraipen eta ebaluazio prozesuetan parte hartzea ere.

[05.3]

Planaren jarraipenerako eta ebaluaziorako tresnak.

Hauexek dira Planaren jarraipenerako eta ebaluaziorako tresnak:

- **Aginte taula** bat diseinatzea eta aldian behin eguneratzea, Lurraldeko gizarte bazterketako egoerei buruzko **adierazleekin**, baita Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako eta Gizarteratzeko Zerbitzuaren barruko barne kudeaketako prozesuei buruzko adierazleekin ere. Aldian behin eguneratuko da aginte taula hori, eta ondorengo alderdi hauei buruzko informazioa jasoko du:

  - Lurraldeko txirotasunarekin, desberdintasunarekin eta gizarte bazterketarekin zerikusia duten egoeren hedapena.

  - Bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonei zuzendutako Gizarte Zerbitzuen Zorroaren araberako baliabideen hedapena.

  - Gizarteratzeko Gizarte Zerbitzuetara bideratutako udal eta foru inbertsioari buruzko informazioa.

  - Gipuzkoako Gizarteratzeko Sarearen zerbitzuetan artatutako pertsonen oinarrizko ezaugarriak.

- **Planari lotutako erakunde bakoitzak egindako jarraipen txostenak.** Jarduera plan bakoitza amaitzean, Planari lotutako erakundeek txosten bat egingo dute orientabideak betetzeko garatu dituzten jarduerak zehaztuz, hartutako konpromisoen betetze maila azalduz eta erakunde bakoitzaren ardurapeko proiektu eragileen garapen mailaren berri emanez.

- Informazio horretan oinarrituta, Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko Planaren esparruan egindako **jarduera plan bakoitzari buruzko ebaluazio txostena** egingo da (segur aski bi zaingo dira). Prozesuen ebaluazioa izango dute ardatz txosten horiek, hau da, burututako jarduerei, emandako zerbitzuei eta Sarearen funtzionamenduan izandako aldaketei buruzko informazioa jasoko dute.

- **Proiektu eragileen inpaktuari buruzko ebaluazioak,** behin amaitu ondoren, gizarteratzeari eta erabiltzaileen bizi kalitatearen hobekuntzari dagokienez, haien helburuak hobetzeko eraginkorrak izan ote diren aztertzeko.

- **Planaren ebaluazio orokorra**, behin planaren indarraldia amaitzean. Ebaluazio horretan jasoko dira prozesuari buruzko ebaluazioaren emaitzak (planaren esparruan burutako jarduerak) eta inpaktuari buruzkoak (nola eragin duten jarduera horiek arreta sarea hobetzen). Halaber, ebaluatutako proiektu eragileen inpaktuari buruzko ebaluazioen emaitzak jasoko dira.

Departamentuak erabakiko du nork izango duen Planaren jarraipenerako eta ebaluaziorako tresnak abiarazteko jarduerak burura eramateko erantzukizuna.